# Goienkaria

2009ko martxoaren 2a > Astelehena > VII. urtea > 223. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net



"Gizakia existituko ez balitz, guztia askoz bioanitzagoa litzateke"

**Javier Loidi**
Biologoa > 09

**G2a** Musikagida egin dute Arrasaten, Kulturaten > 29

**LEINTZ GATZAGA** Arlaban gaineko plan bereziari hasierako onarpena eman diote > 11

**ARRASATE** Eguaztenean babes ofizialeko 175 etxebizitza zozkatuko dituzte > 14

**SASKIBALOIA** Arizmendi Dragons Madrilgo Lauko Finalerako sailkatu da > 21

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 09** > EMAITZAK

# Ibarretxe irabazle eta Aralarrek eta sozialistek gora egin dute nabarmen

**EAJ IRABAZLE**
Garaipen garbia izan dute jeltzaleek, bigarrengoen (PSE-EE) zenbakiak bikoiztuz

**ARALAR, GORA**
Ezenarrorenek irabazi dituzte boto gehien eta sozialistek ere asko

**EA ETA EB GALTZAILE**
Jeltzaleekin Gasteizen gobernatu duten EAk eta EBk boto galera handia izan dute

**BALIOGABEAK** D3M-ren Urrezko Botoak 5.783 izan dira Debagoienean, EHAK-k baino ia 3.000 gutxiago

**NORMALTASUNA**
Eguna normaltasunez igaro da, aparteko istilurik barik > 02-05




LEGEBILTZARRA

## Espainiako Konstituzioaren aldekoak nagusi

> Ibarretxe irabazle nagusia izan arren, ezingo du gobernatu erabakitzeko eskubidearen aldekoekin.

> EAJk 8 eserleku irabazi ditu, sozialistek 6 eta Aralarrek 3; EAk bost galdu ditu; PPk eta EBk bina.

> Rosa Diezen UPDk ordezkari bat izango du Gasteizen.




LEGEBILTZARRA 2009




LEGEBILTZARRA 2005

## Araba

ERROLDA 248.231
ABSTEN. %34,16

| | | | |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 47.395 | %30,34 | 8 aulki |
| EAJ | 45.600 | %31,5 | 8 aulki |
| PP | 32.112 | %21,35 | 6 aulki |
| ARALAR | 6.585 | %4,38 | 1 aulki |
| UPD | 5.974 | %3,97 | 1 aulki |
| EA | 5.267 | %3,5 | 1 aulki |
| EB | 5.143 | %3,42 | 0 aulki |
| UB + BG * | 9.048 | %5,62 | - aulki |

## Bizkaia

ERROLDA 952.835
ABSTEN. %32,42

| | | | |
|---|---|---|---|
| EAJ | 240.015 | %41,5 | 12 aulki |
| PSE-EE | 176.699 | %30,58 | 8 aulki |
| PP | 81.015 | %14,02 | 4 aulki |
| ARALAR | 24.586 | %4,25 | 1 aulki |
| EB | 19.893 | %3,44 | 0 aulki |
| EA | 16.801 | %2,91 | 0 aulki |
| UPD | 10.801 | %1,87 | 0 aulki |
| UB + BG * | 44.073 | %7,02 | - aulki |

## Gipuzkoa

ERROLDA 574.986
ABSTEN. %36,94

| | | | |
|---|---|---|---|
| EAJ | 110.942 | %36,94 | 10 aulki |
| PSE-EE | 91.799 | %30,56 | 8 aulki |
| PP | 31.817 | %10,59 | 3 aulki |
| ARALAR | 31.043 | %10,34 | 2 aulki |
| EA | 15.752 | %5,24 | 1 aulki |
| EB | 11.098 | %3,70 | 1 aulki |
| UPD | 5.227 | %1,74 | 0 aulki |
| UB + BG * | 47.803 | %13,5 | - aulki |

## EAE

ERROLDA 1.776.052
ABSTEN. %34,12

| | | | |
|---|---|---|---|
| EAJ | 396.557 | %38,56 | 30 aulki |
| PSE-EE | 315.893 | %30,71 | 24 aulki |
| PP | 144.944 | %14,09 | 13 aulki |
| ARALAR | 62.214 | %6,05 | 4 aulki |
| EA | 37.820 | %3,68 | 2 aulki |
| EB | 36.134 | %3,51 | 1 aulki |
| UPD | 22.002 | %2,14 | 1 aulki |
| UB + BG * | 100.924 | %8,8 | - aulki |

* URREZKO BOTOA + BALIOGABEAK (GUZTIAK DIRA BALIOGABEAK)

**AURKIBIDEA**

**Hauteskundeak** > 02-05
**Debagoiena** > 06-07
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Asteburua** > 33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denborapasa** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 45
**Hamarrekoa** > 40

**ARIZNOA** > URTEURREN JAIA

## Ariznoak pilotalekua bete zuen

Bergarako Ariznoa Gimnasia Elkarteak 25. urteurren jaialdia egin zuen atzo, eta mila ikusle baino gehiago izan ziren pilotalekuko harmailetan, Besteak beste, Almudena Cid gimnasta olinpiarrak esku hartu zuen. > 24-25



Almudena Cid, Ariznoa Gimnasia Elkarteko gaztetxoekin. JOSETXO ARANTZABAL

## Iritsi dira otsaileko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 8. orrialdera





Bergarako EAJko ordezkariak bulegoan, pozik, boto zenbaketaren ondoren. JOSETXO ARANTZABAL

**HAUTESKUNDEAK 09** > DEBAGOIENEKO EMAITZAK

# EAJ garaile garbia, Aralarrek ia bikoiztu eta sozialistek gora

Eusko Alkartasunak nabarmen egin du behera eta Ezker Batuak ere ia 900 boto galdu ditu

D3Mri dagokionez, 5.783 Urrezko Boto eskuratu dituzte eta UPDk, 111 boto

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Euzko Alderdi Jeltzalea izan da nagusi Debagoienean. 11.642 botorekin nagusitu da, 2005eko hauteskundeetan baino 400 boto gutxiagorekin. Haren atzetik, bigarren indar gisa PSE-EE geratu da, 6.356 botorekin, 2005ean baino 1.200 boto gehiagorekin eta D3M hirugarren, 5.783 Urrezko Botorekin. Aralarri dagokionez, gora egin du nabarmen boto kopuruan; 4.349 eskuratu ditu, 2005eko hauteskundeetan baino ia 1.800 boto gehiago. Hala, bailarako laugarren indarra izatera pasatu da, EAren eta PPren aurretik.

**EA ETA EB, BEHERA**

EAJrengandik banatu izana nabaritu egin du Eusko Alkartasunak, beherakada nabarmena izan du-eta: hain zuzen, 2005eko hauteskundeetan baino 2.000 boto gutxiago jaso ditu Unai Ziarreta buru duen alderdiak.

Beherakada izan duten beste bi alderdi dira Ezker Batua eta Alderdi Popularra. Ezker Batuari dagokionez, ia 900 boto gutxiago jaso ditu eta PPk ere ia 1.000 boto galdu ditu. UPD alderdi sortu berriari dagokionez, 111 boto eskuratu ditu.

Abstentzioari dagokionez, horrek ere gora egin du: %34,19 izan da; alegia, 2005etik 4,89 puntu egin du gora.

DEBAGOIENEKO LEGEBILTZARRA

## Legebiltzarreko 33 aulki EAJrendako

Debagoieneko datuak bakarrik kontuan hartuta EAJ izango litzateke Legebiltzarrean nagusi, 33 aulki eskuratuta. Haren atzetik PSE-EE legoke 18 legebiltzarkiderekin eta ondoren Aralar 12rekin.

Eta hiru alderdi horien oso atzetik beste hiru: EA bostekin, PP laurekin eta EB hirurekin. UPD alderdiak ez luke izango aulkirik.




## Urrezko Botoa kontatuta ere EAJ nagusi

Debagoienean jasotako Urrezko Botoak ontzat emanez gero, 13 aulki eskuratuko lituzke D3Mk. Hala ere, EAJ izango litzateke nagusi 27 aulkirekin eta atzetik leudeke PSE-EE 15ekin eta Aralar 10ekin.




**LEGEBILTZARKIDEAK**

## Garitano, Roncal eta Erostarbe Gasteizera

Hirugarrenez egongo da Legebiltzarrean Roncal; Garitano eta Erostarbe lehenengoz

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Atzo osatu berri zen Eusko Legebiltzarrean Debagoieneko hiru ordezkari egongo dira: Euzko Alderdi Jeltzaleko Jose Luis Garitano, PSE-EEko Blanca Roncal eta Aralarko Oxel Erostarbe.

Jose Luis Garitano Euzko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako zerrendako seigarren hautagaia izan da. Arrasaten jaiotako bergararra, gaur egun Donostian bizi da.

**RONCAL ETA EROSTARBE**

Roncal, berriz, sozialisten zerrendako hirugarren hautagaia da Gipuzkoatik, eta aurreko bi legealdietan ere legebiltzarkide izan zen; oraingoa hirugarrena izango du, hortaz. Horrekin batera, Oñatiko zinegotzi ere bada gaur egun. Erostarbe elgetarrari dagokionez, Aralarrek Gipuzkoan lortzen duen bigarren legebiltzarkidea izango da, Aintzane Ezenarrorekin batera. 2003an zinegotzi aukeratu zuten eta 2007a ezkero Elgetako alkatea da. Aralarren Gipuzkoako koordinatzailea ere bada.



Jose Luis Garitano. GOIENKARIA



Blanca Roncal. GOIENKARIA



Oxel Erostarbe. GOIENKARIA

# Hauteskundeetako emaitzak, herriz herri

## Arrasate

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 3.533 (%27,1) (1) | 3.349 (%34,8) |
| PSE-EE PSOE | 2.599 (%19,9) | 3.028 (%31,5) |
| aralar | 621 (%4,7) | 1.119 (%11,6) |
| PP | 1.194 (%9,1) | 786 (%8,2) |
| EB | 1.006 (%7,7) | 606 (%6,3) |
| EA | 1.124 (%8,6) (1) | 589 (%6,1) |
| upd | (2) | 66 (%0,7) |
| URREZKO BOTOA (3) | 2.860 (%21,9) (4) | 1.874 (%16,1) |

**ERROLDA:** 18.162
**BOTOAK:** 11.615 (%63,9)
**BALIOGABEAK:** 47 (%0,4)

**> PSE-EE GORA** Sozialistek gorakada nabarmena izan dute; hala ere, jeltzaleak izan dira irabazleak. Ezker abertzaleak behera egin du Arrasaten.

**ABSTENTZIOA:**
%32,1 (6.199 boto)
%36,0 (6.551 boto)

## Bergara

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 2.937 (%33,8) (1) | 2.866 (%37,6) |
| PSE-EE PSOE | 982 (%11,3) | 1.290 (%16,9) |
| aralar | 782 (%9,01) | 1.151 (%15,1) |
| EA | 934 (%10,7) (1) | 320 (%4,2) |
| EB | 509 (%5,8) | 312 (%4,1) |
| PP | 512 (%5,9) | 300 (%3,9) |
| upd | (2) | 10 (%0,2) |
| URREZKO BOTOA (3) | 2.003 (%23) (4) | 1.328 (%17,4) |

**ERROLDA:** 11.803
**BOTOAK:** 7.702 (%64,7)
**BALIOGABEAK:** 31 (%0,4)

**> EAJ IRABAZLE** Jeltzaleak izan dira irabazle garbiak Bergaran. Aralarrek nabarmen egin du gora eta EAk, ostera, behera. D3Mk botoen %17,4 lortu du.

**ABSTENTZIOA:**
%29,7 (3.690 boto)
%29,8 (3.524 boto)

## Oñati

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 2.554 (%39) (1) | 2.528 (%51) |
| aralar | 517 (%7,9) | 950 (%16) |
| PSE-EE PSOE | 465 (%7,1) | 612 (%12,35) |
| EA | 813 (%12,4) (1) | 326 (%6,5) |
| PP | 372 (%5,6) | 253 (%5,1) |
| EB | 298 (%4,5) | 223 (%4,5) |
| upd | (2) | 7 (%0,1) |
| URREZKO BOTOA (3) | 1.501 (%22,9) (4) | 921 (%15,5) |

**ERROLDA:** 8.500
**BOTOAK:** 5.929 (%69,7)
**BALIOGABEAK:** 54 (%0,9)

**> GEHIENGO ABSOLUTUA** Oñatin ez da ezustekorik egon: EAJk lortu ditu boto gehien. Bestalde, Aralarrek eta PSE-EEk nabarmen egin dute gora.

**ABSTENTZIOA:**
%25,6 (2.266 boto)
%32,7 (2.571 boto)

## Aretxabaleta

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 1.178 (%31,2) (1) | 1.124 (%32,1) |
| PSE-EE PSOE | 534 (%14,1) | 657 (%18,8) |
| aralar | 288 (%7,6) | 521 (%14,9) |
| EA | 375 (%9,9) (1) | 239 (%6,8) |
| PP | 266 (%7) | 138 (%3,9) |
| EB | 193 (%5,1) | 129 (%3,7) |
| upd | (2) | 8 (%0,2) |
| URREZKO BOTOA (3) | 909 (%24,1) (4) | 626 (%17,9) |

**ERROLDA:** 5.326
**BOTOAK:** 3.497 (%65,6)
**BALIOGABEAK:** 15 (%0,4)

**> EAJ NABARMEN** Alde handia atera die beste alderdiei EAJk. PSE-EE eta Urrezko Botoa gero eta Aralar atzetik, aurreko hauteskundeetatik %10,81 igo arren.

**ABSTENTZIOA:**
%27,5 (1.452 boto)
%34,3 (1.829 boto)

## Eskoriatza

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 704 (%32,5) (1) | 676 (%33,5) |
| PSE-EE PSOE | 365 (%16,8) | 504 (%24,9) |
| aralar | 96 (%4,4) | 180 (%8,9) |
| EA | 224 (%10,3) (1) | 117 (%5,8) |
| PP | 142 (%6,5) | 86 (%4,3) |
| EB | 136 (%6,2) | 69 (%3,4) |
| upd | (2) | 13 (%2,2) |
| URREZKO BOTOA (3) | 470 (%21,7) (4) | 314 (%15,5) |

**ERROLDA:** 3.270
**BOTOAK:** 2.021 (%61,8)
**BALIOGABEAK:** 10 (%0,5)

**> PSE-EE GORA** EAJ izan da irabazle, baina aurreko hauteskundeetatik behera egin du. Gertutik jarraitu dio PSE-EEk, %8,1 igota.

**ABSTENTZIOA:**
%33,6 (1.101 boto)
%38,2 (1.249 boto)

## Antzuola

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 414 (%31,5) (1) | 426 (%33,7) |
| PSE-EE PSOE | 162 (%12,3) | 190 (%15) |
| aralar | 75 (%5,7) | 169 (%13,4) |
| EA | 132 (%10) (1) | 58 (%4,6) |
| EB | 47 (%3,5) | 28 (%2,2) |
| PP | 52 (%3,9) | 22 (%1,7) |
| upd | (2) | 1 (%0,1) |
| URREZKO BOTOA (3) | 430 (%32,7) (4) | 358 (%28,3) |

**ERROLDA:** 1.734
**BOTOAK:** 1.264 (%72,9)
**BALIOGABEAK:** 5 (%0,4)

**> EAJ BERRIZ** Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan bezala, EAJk lortu du boto gehien: 426. Aralarrek izan du gorakada nabarmenena (%7,7).

**ABSTENTZIOA:**
%22,5 (386 boto)
%27,1 (470 boto)

## Aramaio

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 426 (%43,7) (1) | 351 (%41,05) |
| aralar | 58 (%5,9) | 120 (%14,03) |
| EA | 135 (%13,8) (1) | 113 (%13,21) |
| PSE-EE PSOE | 26 (%2,6) | 39 (%4,56) |
| EB | 62 (%6,3) | 18 (%2,10) |
| PP | 16 (%1,6) | 6 (%0,70) |
| upd | (2) | 4 (%0,46) |
| URREZKO BOTOA (3) | 249 (%25,5) (4) | 186 (%21,75) |

**ERROLDA:** 1.224
**BOTOAK:** 855 (%69,85)
**BALIOGABEAK:** 3 (%0,0035)

**> EAJ GARAILE** Aramaioarren boto gehienak EAJk eskuratu baditu ere, 2005arekin alderatuz botoak galdu ditu. Aralarrek igoera nabarmena izan du.

**ABSTENTZIOA:**
%20,9 (259 boto)
%30,15 (369 boto)

## Elgeta

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 228 (%35) (1) | 256 (%42) |
| aralar | 106 (%16,2) | 129 (%21) |
| PSE-EE PSOE | 22 (%3,3) | 34 (%5,6) |
| EA | 73 (%11,2) (1) | 17 (%2,8) |
| PP | 25 (%3,8) | 16 (%2,6) |
| EB | 27 (%4,1) | 13 (%2,1) |
| upd | (2) | 2 (%0,3) |
| URREZKO BOTOA (3) | 170 (%26,1) (4) | 131 (%21,72) |

**ERROLDA:** 846
**BOTOAK:** 603 (%71)
**BALIOGABEAK:** 2 (%0,33)

**> EAJ GARAILE** Alderdi bozkatuena izateaz gain, 2005eko boto kopurua gainditu du EAJk. PSE-EEk eta Aralarrek gora; gainontzekoek behera.

**ABSTENTZIOA:**
%23,3 (201 boto)
%29 (243 boto)

## Leintz Gatzaga

| | 2005 | 2009 |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 67 (%38) (1) | 66 (%50,38) |
| aralar | 10 (%5,6) | 10 (%7,63) |
| EA | 21 (%11,9) (1) | 3 (%2,29) |
| EB | 4 (%2,2) | 3 (%2,29) |
| PSE-EE PSOE | 1 (%0,5) | 2 (%1,53) |
| PP | 4 (%2,2) | 1 (%0,76) |
| upd | (2) | 0 (%00,0) |
| URREZKO BOTOA (3) | 67 (%38) (4) | 45 (%34,35) |

**ERROLDA:** 207
**BOTOAK:** 131 (%63,29)
**BALIOGABEAK:** 1 (%0,76)

**> EAJ NAGUSI** 2005ean moduan, EAJk lortu ditu gatzagarren boto gehien; koalizioaren apurketak ez dio eragin. Alderantziz, ordea, EAren kasuan.

**ABSTENTZIOA:**
%17,7 (38 boto)
%36,71 (76 boto)

(1) EAJ-EA koalizioari dagokio. (2) 2005ean ez zen aurkeztu. (3) Urrezko Botoak ez du balio ofizialik. (4) EHAK

**LURRALDE HISTORIKOAK** > HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

# Jeltzaleak nagusi Gipuzkoan eta Bizkaian eta PSE-EE Araban




## PSE nagusi, EAJk bi aulki gehiago eta Aralarrek eta UPDk bana

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Botoetan eta portzentajeetan gora egin dute PSE-EEk eta EAJk, baina jeltzaleek legebiltzarkide bat gehiago irabazi dute. PPk eta EAk ordezkari bana galdu dute eta lehenbizikoz Aralarrek eta UPDk legebiltzarkide bana lortu dute Araban. Rosa Diezen alderdiak Araban lortu du legebiltzarkide bakarra. Ezker Batuak 3.000tik gora boto galdu ditu Gasteizen eta ordezkaritzarik gabe geratu da. EA, esan bezala, aulki bakar batekin konformatu beharko da.




## EAJ garaile, PSE-EEk gora, PPk behera eta Aralarren sorpresa

**E.M.** > BERGARA

EAJ izan da garaile nagusia Bizkaian, botoen %41,5ekin. PSE-EEk ere nabarmen egin du gora, eta, jeltzaleekin gertatu bezala, bi legebiltzarkide gehiago izango dute sozialistek Gasteizen. PPk aurreko legealdiarekiko legebiltzarkide bat galdu du eta Aralar izan da sorpresa, aulki bat eskuratuta. EAk izan du beherakadarik deigarriena eta Unai Ziarretaren alderdiak eta Madrazorenak lehen zeukaten aulkia galdu dute. Partaidetza orain dela lau urtekoaren antzekoa izan da.




(1) EAJ eta EAren botoak eta ehunekoa jarleku-kopuruaren arabera. (2) 2005ean ez zen aurkeztu. (3) Urrezko Botoak ez du balio ofizialik. (4) EHAK

## EAJ garaile izan da, baina boto kopuruan behera egin du

**UBANE MADERA** > BERGARA

EAJ garaile izan da eta eserleku kopuruan ere gora egin du, baina ez da horrela izan boto kopuruan, 2.000 boto gutxiago izan ditu-eta. Eta jaitsi egin dira, eta nabarmen gainera, EAk eta Ezker Batuak; aurrenekoak 20.000 boto galdu ditu eta bigarrenak, berriz, 10.000 boto inguru. Aldiz, bototan gorakada Aralarrek, sozialistek eta Alderdi Popularrak izan dute. Aralarren kasuan, bikoiztu egin ditu 2005eko hauteskundeetan lortutako boto eta eserleku kopuruak. Abstentzioa ere 2005eko hauteskundeetakoa baino handiagoa izan da.



**analisia**

Mikel Irizar

## Egoera bihurria

Egon dira datu esanguratsuak, baina zalantza nagusiena ez da erabat argitu. Eta aukera politiko bat legez kanporatzeak errotik aldatu du panorama. Hain zuzen, airean dago nor izango den hurrengo lehendakaria.

Ibarretxek berriro erakutsi du bere indarra, alderdian norbaitzuek oraingoan baztertu nahi bazuten oso zaila dute operazioa. Lider sendoa da, boto propioak ditu, EAJn ez dute ordezkorik. Baina ez du lortu Lopezen gehiengo osoa ekiditea, haren esku dago ekimena.

**"Ibarretxe lider sendoa da, baina ez du lortu Lopezen gehiengo osoa ekiditea"**

Lopezek ez du emaitza onegirik izan, baina bai nagusiena: Ibarretxe ordezkatzeko aukera. Eta iragarri du ez diola aukera horri muzin egiten. Oso operazio zaila du berak ere, interes asko nahasten dira eta oraingo aliatu popularra etsai izango luke bi urte barru Espainiako hauteskundeetan. Erabakia Madrilen hartuko da, tamalez.

Irabazle garbia izan da Aralar, eta hautagaitza sendoa aurkeztu du ezker abertzalearen ardatz izateko. Galtzaile nabarmenak EA eta EB, ez dute ondo neurtu bakarka duten indarra eta erabateko galbidean sar daitezke.

Gehiengo abertzalea duen herriak lehendakari ez abertzalea izan lezake. Egoera bihurria, inondik ere.

**EGUNA IRUDITAN** > NORMALTASUNA

# Lasaitasuna nagusi eta parte hartze txikiagoa


EAJko Lourdes Idoiaga. J.A.


PSE-EEko Paco Gartzia. J.A.


Ezker abertzaleko Agurne Barruso. J.A.


EAko Ainhoa Gallastegi. J.A.


Aralarko Oxel Erostarbe. J.A.


EBko Isabel Salud. J.A.


Eguerdian bergarar ugari ibili zen bozkatzen. JOSETXO ARANTZABAL

### AIPAGARRI

**> EGUN LASAIA**
Orokorrean eguna oso lasai joan zen Debagoieneko herrietan. Ertzaintzaren eta udaltzaingoen esanetan, ez zen aparteko ezer gertatu gurean.

**> EZKER ABERTZALEA**
Hainbat hauteslekutan ez zen arazorik egon Urrezko Botoen gaineko txartela eskuratzeko.

**> ANTZUOLA**
Antzuolan, 16:30ean bozkatzeko eskubidea zutenen erdia baino gehiago pasa ziren Olaran etxetik.

**> ONDOEZA**
Oñatin eta Aretxabaletan mahaikide bik ondoeza sentitu zuten eta ordezkatuak izan ziren. Oñatikoa handik gutxira bueltatu zen berriro.

**> LEHENAK**
Oñatin baserritarrak eta mojak izan ziren bozkatzen lehenak.


Aretxabaletan botoa ematen. J.A.



D3M plataformaren txartela. J.A.


Hauteslekuak itxi ondoren, kontaketa egiten hasi ziren. M.B.

### HERRITARREN IRITZIA HAUTESLEKUAN

## Zer eskatuko zenioke lehendakari berriari?


**Mari Kruz Alberdi**
Bergara

Gauza asko eskatuko nioke; tartean, gaur egungo egoera hobetzea. Hori bai, nahiago dut hemengo ordezkariak irteten badira.


**Aurelio Gonzalez**
Arrasate

Aukera baliogabetu badute ere, Urrezko Botoa eman dut. Zer eskatuko diogu, bada? Dena eskaintzen badigute, ez dugu ezer eskatzeko.


**Mila Madinabeitia**
Oñati

Diru publikoa eta lanbide liberaletan irabazten dutena kontrolatzea. Erakundeetan dirua kontrolatuko balitz ez zen krisirik egongo.


**J. L. Arizmendiarrieta**
Elgeta

Botoa ematea oso inportantea da. Ez dut uste aldaketarik egongo denik. Lanpostuak sortzea eta krisia gainditzea eskatuko nioke.


**Juan Rodriguez**
Antzuola

Erretiratuei ardura dadila eta pentsioak igo ditzala eskatzen diot lehendakari berriari. Ez dut uste egoera askorik aldatuko denik.


**Izaskun Irure**
Aretxabaleta

Aldaketa eta demokrazia handiagoa. Hauteskunde hauetan ez da demokraziarik egon, jendea bozkatu barik geratu delako.

### BALORAZIOAK

**Lourdes Idoiaga**
> EAJ

"Emaitzak ikusita, Juan Jose Ibarretxek legitimitate guztia dauka lehendakari izateko; baina EAk eta EBk botoak galdu dituzte, Aralarrek gora egin duelako. Hor daukagu mehatxua. Espainiako alderdiek gehiengo absolutua dute eta ez dakit zer gertatuko den".

**Haritz Arrieta**
> PSE-EE

"Emaitzak oso onak dira; zazpi eserleku igoko ditugu, eta hori ez dago batere txarto. Zenbakien arabera, kalkuluak egin beharko ditugu gaurtik aurrera. Kontuan hartu behar dugu, horren harira, boto baliogabeek zerikusia dutela".

**Ainhoa Gallastegi**
> EA

"Emaitza txarra da; hauteskundeen bipolarizazioaren ondorioa izan dela uste dut. Bestalde, lehenengo aldia izan da EAJren babesean ez garela joan. Gainera, uste dut Aralarren gorakadak ere eragina izan duela emaitzan. Barne gogoeta egin beharko genuke".

**Itziar Lamarain**
> PP

"Bi eserleku galdu ditugu, baina buelta garrantzitsua eman da. Gobernu konstituzionalista izan dezakegu, nahi badugu. Ikusi beharko dugu aldaketaren gainean hainbeste berba egin duen Patxik benetan aldaketa nahi duen ala ez. Gu gertu gaude aldaketarako".

**Oxel Erostarbe**
> ARALAR

"Pozik gaude emaitzekin. Herri honetan politikan ezker abertzale baten beharra dago. Datorren lau urteetan, jasotako babesaren araberako lana egin behar dugu. Argi geratu da ezker abertzale zibil eta zabala behar dela, eta Aralar beti hor egongo da elkarlanerako".

**Isabel Salud**
> EZKER BATUA

"Balorazio negatiboa egiten dugu. Bipartidismoak gure aurka jokatu duen arren, alderdi barruan ere hausnarketa egin beharra dugu, non kale egin dugun jakiteko. Gobernu berriari dagokionez, eraketa oso zabalik ikusten dugu".

**Agurne Barruso**
> EZKER ABERTZALEA

"Urrezko Botoak izan duen emaitza oso ona da. Sektore handi batek ulertu du etorkizuneko botoa dela; nahi bat dago. Bestetik, gehiengoak osatzeko arazoak ikusten ditut. Ziurrenik, Patxi Lopezek Ibarretxek baino gutxiago edukiko ditu".

**MONDRAGON TALDEA** > IZENDAPENA FAGORREN

# Jose Manuel Calvo, Fagorreko Altzari eta Domotika negozioko gerente berria

Calvok erretiroa hartu berri duen Jose Ramon Arenazaren lekua beteko du gaurtik aurrera; Fagor Altzarietako zuzendaria izan da 2007tik



Jose Manuel Calvo eta atzean, Jose Ramon Arenaza. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Fagorrek Jose Manuel Calvo izendatu du Altzari eta Domotika negozioko gerente. Calvok erretiroa hartu berri duen Jose Ramon Arenazaren lekua beteko du. Arenazak 30 urtetik gora eman ditu Fagorren, azken 11 urteak Sukaldeko Altzarien gerente postuan eta 2003tik zeregin hori Domotikako ardurarekin uztartuta.

**FAGOR ALTZARIETAKO ZUZENDARI**

Jose Manuel Calvo Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta Fagor Etxetresnak-en 2000. urtean hasi zen. Altzarien esportazio sailean bost urtez jardun zuen. Era berean, 2002. urtetik Canal Detall-eko salmenten ardura hartu zuen. 2006an Fagorrek kanal espezialistaren iparraldeko zuzendaritza agindu zion eta 2007ko uztailetik Fagor Muebleko zuzendaria izan da. Altzari eta Domotikako negozioko gerente berria dugu gaurtik.

Marketin, esportazio eta zuzendaritza komertzialean hainbat kargu izan ditu Arenazak 1976tik; bereziki altzari sektorearen hazkundean urte hauetan guztietan Arenazak egindako ekarpena nabarmendu du Fagorrek.




GOIENKARIA

## Jantokietako langileen aldeko protesta

LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, eskoletako jantokietako langileen aldeko kontzentrazioa egin zuten joan den astean Arrasateko Auzolagun enpresaren aurrean. Jantokietan lan egiten dutenendako hitzarmen propioa eskatzen dute, haien lan baldintzak hobetzeko. Kudeaketa zuzena duten enpresak (Auzolagun tartean) daukate hitzarmena negoziatzeko ahalmena. Sindikatuek plataforma bat eratu zuten orain dela hiru hilabete, baina haien arabera ez dute patronalaren aldetik erantzunik jaso oraindik.

> ZAHARREN EGOITZAK

## Zaharren egoitzetan azpikontratutako langileek paroa deitu dute biharko eta eguenerako

Zaharren egoitzetan azpikontratatutako langileek aurtengo hitzarmena negoziatzen dihardute, baina sindikatuak eta patronala ez dira ados jartzen. Langileen aldarrikapenak aintzat hartzea eskatzen dute sindikatuek. Patronala estu jartzeko, Eskoriatzako eta Bergarako egoitzetan hiru orduko geldialdia egin zuten egubakoitzean. Martitzenerako eta eguenerako, hilak 3 eta 5, paroa deitu dute. Bihar, martxoak 3, langileen elkarretaratzea egongo da, San Martin plazan, 10:45ean.

**Baita zu ere.**

**Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.**
Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIESek emandako datu berrien arabera.
Eskerrik asko, irakurle guztioi.

**> GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.**
**> Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.**




Goienkaria

**ELKARTASUNA** > SAHARAKO EGUNA

# Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa, gogoan ibarrean

Egubakoitzean herrialdea eratu zeneko 33 urte bete ziren; sahararren askatasuna exijitzeko bailarako udaletxeetan hango bandera jarri zuten

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zeneko 33 urteurrena izan zen joan den egubakoitzean. Sinbolikoki egun hori ospatzeko eta saharararrenganako atxikipena azaleratzeko Debagoieneko udaletxeetako balkoietan Saharako bandera jarri zuten.

Nubi elkarteko Agurne Juldainek gogorarazi zuenez, orain dela 33 urte, Maroko Mendebaldeko Saharan sartu zenean, herri sahararra banandu behar izan zen Tindoufeko kanpamentuetan eta Marokok hartutako Mendebaldeko sahararren artean. Garai hartan Frente Polisarioa sortu zen eta Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zen.

Juldainen esanetan, "udaletxetan bandera jartzean herri saharararren askatasuna aldarrikatu nahi dugu". Bailaran ez zen bestelako ekimen berezirik egin. Zapatuan, baina, urteurrena ospatzeko, Euskal Herri mailako jaialdia egin zuten Gasteizen.

**EPE LABURRERA BEGIRA**

Bestalde, Debagoieneko Nubi, Iesbaa eta Bubisher elkarteek herri saharararren alde lanean dihardute. Karabanako proiektuarekin amaitu ostean, dagoeneko hango umeei zuzendutako *Oporrak bakean* egitasmoa martxan jarri dute. Jakina denez, udan neska-mutikoak debagoiendarren etxeetan hartzean datza kanpaina hori.



Eskoriatzako udaletxean ere Saharako bandera eskegi zuten balkoian. MIRIAN BITERI

etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > 'uagirre@goiena.com'

## Euskara krisian: EREa eskatu beharko du

Datu kezkagarria zekarren joan den asteko egubakoitzeko *Goienkariak*: "Aramaion, 14 eta 25 urte arteko gazteen artean 2001ean %81ek erabiltzen zuten euskara eta gaur egun, berriz, %32k". Beherakada handia da hori. Txikitatik euskara ikasi eta ikasketa guztiak ere euskaraz egin arren, horrek ez du bermatzen gero euskaraz egingo dutenik. Askok ikasketekin lotzen dute euskara, beste batzuek familiarekin eta hortik kanpora gaztelaniara jotzen dute. Teknologia berrien errua dela diote batzuek. Nik dakidala, teknologia berrietan ingelesa da nagusi eta inor ez dugu ingelesez hitz egiten entzuten kalean.

**"Ikasketak euskaraz egin arren, ezin bermatu euskara egingo duten"**

Hauteskunde kanpainan, euskara inposatu egiten dela eta horrelakoak entzun ditugu behin eta berriz, batez ere alderdi bateko kideen ahotan. Aramaion egindako ikerketa horretako datuak irakurrita gustura geratuko ziren, pixkanaka euskara desagertzen doala ikusita.

Gazteak dira etorkizuneko euskara bermatuko dutenak eta adin horretan ezin du euskararen erabilerak behera egin, gero ere euskaraz bizi nahi badugu. Euskarak iraun dezan euskaraz bizi beharra daukagu, ez eskolan bakarrik, hortik kanpora ere bai. Orain, hauteskunde kanpainako zirkoa bukatuta, ikusiko dugu zer egiteko gai diren politikariak.

**> Biharamuna**

**Gaur, martxoak 2, hauteskunde egunaren biharamuna. Legebiltzarra modu batera edo bestera egon, eguneroko arazoak, lehengoak, ezta? Hauteskunde biharamuna izan edo ez, astelehenean lanera joan behar**

**> Txistulariak**

**Udaberria ere bertan dugu eta urtaro eder honi harrera egiteko kontzertua egingo dugu Antzuolako txistulariok martxoaren 15ean. Torresoroako auditorioa estreinatuko dugu gainera. Gonbidatuta zaudete!**

**AZPIEGITURAK** > AHT

## Zapatuan AHTren lanak salatzeko egingo den mendi martxara joateko deia egin dute

Bi abiapuntu izango ditu ibilbideak: Legutiotik eta Eskoriatzatik; azken horretatik, 09:00etan irtengo dira plazatik

**M.B.** > BERGARA

Datorren zapatuan, martxoak 7, Abiadura Handiko Trenaren lanak salatzeko mendi martxa antolatu dute. Ekitaldi horrek bi abiapuntu izango ditu: Eskoriatzatik eta Legutiotik. Handik Albertia mendira igoko dira, eta jarraian Urbinarantz abiatuko dira. Mendi martxan joatera animatzen direnek ingurune horretan egiten dabiltzan "sarraskien" gaineko azalpenak jasoko dituzte.

**URBANOA**

Eskoriatzatik 09:00etan irtengo dira, plazatik. Antolatzaileek Debagoieneko herrietakoei parte hartzeko gonbidapena egin diete. Eskoriatzaraino joateko Bergaratik 08:15ean edo 08:35ean ateratzen diren urbanoak har ditzaketela jakinarazi dute. Arrasatera, 08:30ean edo 08:45ean; eta Aretxabaletara, 08:35ean edo 08:50ean iritsiko dira.

Debagoienetik joaten direnek bost orduko ibilbidea izango dute aurretik. Albertian memoria historikoaren eta lurpeko uraren gaineko hitzaldiak entzungo dituzte eta handik, esan bezala, Urbinara joango dira. Herri bazkaria egongo da han.

Antolatzaileek esan dute, bueltatzeko, Eskoriatzaraino autobusa jarriko dela eta ura, mendiko oinetako eta arropa eramatea gomendatu dute. Legutiotik, bestalde, 11:00etan irtengo dira.

**POLITIKA** > PRESOAK

## Amaia Arrieta preso ohiaren aldeko ekitaldia egin zuten

Herriko hainbat taldek opariak eman zizkioten Amaia Arrieta arrasatearrari

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Egubakoitz iluntzean Amaia Arrietak lagun ugari izan zituen alboan Arrasateko Herriko Plazan. Txalapartarien doinuek hasi zuten ekitaldia; jarraian Ezker Abertzaleko, gazte independentisten eta Askatasunako ordezkariek opariak eman zizkioten Arrietari, baita Ilargi alabatxoari ere; eta aurreskua dantzatu zioten. Arrietak eskerrak eman zizkien familiakoei eta lagunei, eta besarkadak bidali zizkien espetxeetan dauden preso guztiei.

**MANIFESTAZIOA ETA AFARIA**

Manifestazioa ere egin zuten eta Portaloitik abiatzean Amaia Arrietak bere argazkia kendu zuen. Ertzaintzarekin eztabaida izan zuten arren, azkenean manifestazioa bukatu zuten; eta gauean herri afaria egin zuten Uarkape jatetxean.

auzorik auzo

**UBERA** > Bergaratik Elgetarako bidearen alde bietan bananduta dago Ubera auzoa; 45 baserri eta 100 biztanle inguru ditu. Uberako kalegunearen ondoko muino batean dago San Paulo eliza, eta aldamenean hilerria dago.




San Paulo eliza auzoaren kaleguneko muino batean dago. ARANTZAZU EZKIBEL

**Jesus Mari Elortza** > Auzo-alkatea

# "Arazo handia daukagu abiadurarekin, autoak oso azkar pasatzen dira auzotik"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Jose Mari Elortza Uberako auzo-alkatea da azken sei urteetan. Auzo bizia da Ubera; orain gutxi, San Paulo jaiak ospatu dituzte eta laster sagardotegira irteera egingo dute. Auzoaren gorabeherak azaldu dizkigu Elortzak.**

**Aurreko mendera arte elgetarrak zineten!**

Bai, 1928an sartu zen Ubera Bergaran; ordura arte elgetarrak ginen. Ez dakit zergatik; Ubera eta Angiozar izan ginen Bergaran sartu ginenak urte hartan. Nik uste dut egokiago zelako izan zela.

Gainera, oso kuriosoa da: orain arte, elizari dagokionez Elgetakoak izan gara. Hau da, Bergarako udalerrian sartuta egon arren, gure eliza Elgetakoa zen. Orain, dena da Bergara.

**Diote berezko izena Urbera dela, lau erreka batzen direlako auzoan.**

Ez dakit, izan daiteke; hemen, berez, hiru erreka batzen dira eta horrela izan daiteke, baina beti Ubera esan izan dugu.

**Zein da gaur egun auzoak daukan arazo nagusia?**

Udalarekin eta Itsasmendikoirekin batera programa bat garatzen gabiltza. Azterketa egin dugu auzotarren artean; kexak batu, eta lanean hasita gaude.

Kezka nagusietako bat urari dagokiona da. Hau da, Urkuluko ura, herrikoa, auzora ekartzea.

Bestalde, auzoan etxeak egiteko asmoa dago. Orain dela zortzi urte hasi ziren proiektuarekin, baina arazoak daude. Asmoa da zazpi etxe libre egitea eta baita babes ofizialekoa sei etxebizitzako beste bloke bat ere.

**Beldurra duzue auzoa hutsik geratuko ote den?**

Bai, hala da. Etxerik ezin bada egin, gazteak herrira joango dira. Hori argi dago.

**Errepidearekin ere arazoak dituzue.**

Bai; arazoa abiadurarekin daukagu. Hemen oso azkar pasatzen dira autoak. Kexa mordoa sartu dugu Udalean, eta haiek Diputazioan… baina ez dugu irtenbiderik aurkitzen. Ertzaintzarengana ere joan izan gara. Lehen, baden batzuk zeuden, baina Bergara eta Elgeta arteko bidea konpondu zutenean kendu egin zituzten eta ordutik hona ez dago ezer. Badenak, semaforoak… edo ertzainak isunak jartzen egotea eskatzen dugu.

Lehen, badenekin ez genuen arazorik izaten. Oraindik ez da ezer pasatu, baina zerbait pasatzen denean izango dira kontuak.

Bestalde, eskatu dugu bidegorri sarean sartzea. Uste dugu oso samurra dela hemendik Bergarara bidegorria egitea; gero, oso samurra da handik Soraluzera, Antzuolara edo Arrasatera mugitzea.

**Uberan badago auzotar ezaguna: Zezeaga pilotaria, ezta?**

Asko edo gutxi, denok jokatu dugu pilotan; baina ezaguna Zezeaga bakarrik da. Jose Maria Zezeaga 1962an jaio zen eta pilotari profesionala izatera iritsi da; orain erretiratua dago.

GURASO ELKARTEA

## "1975. urtean sortu genuen Uberako guraso elkartea"

"Pilotalekua norbaiten izenean jarri behar zelako, erakunde juridiko bezala sortu zen guraso elkartea 1975. urtean", dio Elortzak. Guraso elkartea lehen nesken eskola zen lekuan dago –mutilen eskola zena, ostera, elkarte gastronomikoa da.

Pilotalekua auzoarena da, eta guraso elkarteak kudeatzen du: ordua lau euro ordaindu behar da erabiltzearren. "Gure ardura da pilotalekua txukun mantentzea. Baina erabaki dugu Udalari pasatzea pilotalekuaren kudeaketa", dio. Hortaz, aurrerantzean Udalaren pilotaleku sarean egongo da Uberako frontoia ere.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Otsaileko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Irabazlea:
Iñigo Heriz Unzueta
(Aramaio)

KAMISETA+POLTSA
Irabazlea:
Arantza Ugarte Bolibar
(Aramaio)

DVD
Irabazlea:
Igor Ugarte Umerez
(Bergara)

PENDRIVE
Irabazleak:
Esteban Barandiaran Fernande de Jauregi
(Arrasate)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Bergarako landaretza, ekosistemak eta paisaia aztertu eta ondorioak atera dituzte Udalak hala eskatuta, EHU-ko hainbat katedradunek. Horien artean dago Javier Loidi bergararra, bihar bertan Basoaren Aste barruan, Bergarako kultur etxean ikerketaren emaitzak azaltzearen arduRa izango duena. Azterketa egiteko, 7.148 erregistro ikertu behar izan dituzte.

**Javier Loidi** > Biologoa eta EHUko katedratikoa

# "Gizakia existituko ez balitz, guztia askoz ere bioanitzagoa izango litzateke "



Javier Loiti bergarra, EHU-ko katedratikoa da. GOIENKARIA

MIREN ARREGI > BERGARA

**Javier Loidi bergararra Bilboko Zientzien fakultatean dabil, irakasle lanetan. Zientzia biologikoetan aditua, Bergarako landaretzaren eta paisaiaren gaineko ikerketan buru belarri aritu da azken hiru urteotan. Bihar, ikerketaren ondorioak azalduko ditu Bergarako kultura etxean.**

**Lan ederra, inondik inora…**

Hiru urte eta erdiko lana izan da, eta EHUko zortzi aditu aritu gara ikerketan lanean. Bergarak dituen 79 kilometro koadroetan egin dugu lana, eta hiru ataletan banatu dugu: batetik, Bergarako flora aztertu dugu, zein landare espezie dauden, alegia. Horren ostean, ekosistemak aztertu ditugu; eta lan horretan puntu garrantzitsuena paisaiaren aztertzea izan da. Laugarren zatia, berriz, kudeaketari dagokiona da. Udalari zuzendutako gomendioak ematen dira.

**Desberdintasun handiak aurkitu dituzue, biodibertsitateari dagokionez, eremu publikoen eta pribatuen artean?**

Ez, eremu publikoak zein pribatuak modu berdinean kudeatu direlako. Presio demografikoak eragin zuzena du horretan, jende asko bizi den guneetan baliabide naturalek presio handiagoa jasaten dute eta landa guneetan, jende gutxiago bizi den eremuetan, presioa txikiagoa da.

**Interes bereziko landare espezieak aipatzen dira txostenean…**

866 espezie identifikatu ditugu, eta hori asko da. Alde horretatik aberastasun handia dago; eremu bakoitzeko espezie kantitatea nahiko handia da. Egia esan, sutsuki bilatu ditugu espezie desberdinak. Dokumentazio lana itzela izan da, 7148 erregistro maneiatu ditugu, horien artean, Jose Antonio Aperribai bergararraren herbarioa.

**Landare espezieei dagokienean aberastasuna aipatu duzu; hori kopuruaren arabera neurtzen da?**

Landare guztiak dira onak, batzuk gure arreta deitu dute arraroak direlako eta arazoak dituztelako, adibidez desagertzeko zorian daudenak edo tradizionalki erabili izan direnak, esanahi sinbolikoren bat dutenak… Bergaran aztertu ditugun 866 espezie horietatik, 13 jasotzen dira Europar Batasuneko, edo Espainiako edota EAEko babestu beharreko landareen legediaren barruan. Espezie horien gainean, txostenean jaso ditugu jarraitu beharreko irizpide batzuk, espezie horiek nola babestu adierazten dituztenak.

**Eta komunitateei edo ekosistemei dagokienean?**

226 erregistro maneiatu ditugu. Horiek landaretzaren inbentarioak dira. Horietatik 52 komunitate edo landare mota atera ditugu. Horietatik 19 Habitat arauaren barruan daude eta bost dira lehentasunezkoak. Alegia, Bergaran, ekosistema edo komunitate tipo asko daude Europar Batasuneko legediak kontuan hartzen dituenak.

**Zer dira ekosistemak? Eta zein garrantzi dute biodibertsitateari dagokionez?**

Ekosistema bat izan daiteke pagadi bat, belardi bat, erreka inguru bat… Batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa dute, esaterako pinudi batek ez du biodibertsitate aldetik balio handirik.

**Eta nola eragin du lehen sektorearen beherakadak gure herrietako landaretzan eta paisaian?**

Guztia basatiagoa bilakatua da. Baserrietatik jendeak alde egin du eta ez da inolaz ere lehen bezala lantzen lurra. Baserrietan bizi diren gehienek ere kalean lana egiten dute eta, beraz, lurra ere ez da lantzen lehen bezala. Horren ondorio nagusia zein izan da? Basoak pinuz josi izana. Horrek gauzak asko aldatu ditu. Pinuak ez dira landaretza mota naturala. Lurrarekiko estrategiak kontserbazionistak behar dute izan, zuhurrak; izan ere, lurra ez da errekurtso berriztagarria. Gastatu egiten den errekurtsoa da. Makineriak ere, lehen sektorean sartu direnak, eragin kaltegarria dute lurrean.

**Eta porlanak, hormigoiak, badu eraginik?**

Badu eragina, baina horrek lurraren eremu txiki bat hartzen du. Gure topografiak, gainera, zaildu egiten du gune urbanoak zabaltzea. Bergara ere zulo batetan dago eta oso zaila da, orografiagatik, hiriak lur espazio gehiago hartzea. Eta hori ona da; nik beti esaten dut sistema urbano ekologikoena Eibarko kasua dela. Dorre altuak daude, lur eremu zati txikia okupatu da, eta 40.000 biztanle bizi dira oso azalera txikian. Gure orografiak inposatu egiten dizkigu gauzak egiteko moduak.

**Espezie inbaditzaileak, non aurkitu dituzue?**

Aurkitu dira, baina ez gehiegi. Kanpokoak kontsideratzen diren espezieen %11 aurkitu dugu. Ez da berdina kanpoko espeziea edo inbaditzailea izatea. Baina horietatik batzuk, inbaditzaileak dira. Kanpoko espezieak inbaditzaile kontsideratu ahal izateko, landareak duen indarra eta bizitzeko modua hartzen dira kontutan; landare inbaditzaileak itsaso bidezko trafikoaren eraginez sartzen dira. Beste batzuetan nahita ere landatu izan dira, egurretarako onak direlako edo beste arrazoi batzuk medio, robinea edo akazia kasu.

**Neurriak hartu behar al dira landare inbaditzaileen kontra?**

Saiatu behar da mesede egiten dieten baldintzak saihesten. Eguzkia behar badu, gerizpetan egon daitezen egin beharko da lan. Baina ez da itsutu behar. Kanpoko landareak dira eta bertakoak kaltetzen dituzte, hori da kontua. Dena den, hemen oso gutxi dago Hawai edota Zeelanda Berriarekin alderatuz. Herrialde horietan landareen %80 dira kanpokoak. Gehienak, gainera, Europatik eroandakoak dira.

**Orokorrean, esango zenuke Bergarako floraren eta ekosistemaren osasuna ona dela?**

Bergarako egoera normaltzat jotzen da dituen ezaugarriak kontutan izanda, eta lurrari eman zaion erabilpena kontutan hartuta. Ez dago ezer arreta deitzen duenik. Bergarak, eta orokorrean Debagoienak gizonaren eragin handia dute; saturazio demografikoak kalte handiak eragin ditu.

**Biodibertsitateari begira beraz, hobe da gizakiak ezer ez egitea.**

Nekazaritza, abeltzaintza, industria… horrek guztiak egiten dio kalte biodibertsitateari. Alde horretatik toki eredugarrienak Amazonasko oihana eta halako tokiak dira. Gizakia existituko ez balitz, guztia askoz ere bioanitzagoa izango litzateke, baina nola egin uko gure existentziari?

AZTERKETA

**"Bergarako landaretza eta paisaia aztertu ditugu; normaltasuna da nagusi"**

INTERES BEREZIKO LANDAREAK

**"Dokumentazio lan itzel baten ostean, 866 landare espezie identifikatu ditugu"**

ESPEZIE INBASOREAK

**"Espezie inbasoreak aurkitu ditugu baina ez gehiegi. Hala ere erreka inguruak beteta daude"**

NEURRIAK

**"Landare inbaditzaileak gustatzen zaizkien baldintzatatik urrundu behar dira"**

**kale inkesta**

# Ezagutzen dituzu Interneteko sare sozialak? Horiek erabiltzeko ohitura duzu?



**Jonathan Lozano**
Ikaslea
Bergara

Ezagutzen baditut ere, ez dut horiek erabiltzeko ohiturarik. Baina, inguruko lagunak askotan ibiltzen dira *Facebook*-en eta *Fotolog*-en batez ere. Ikastetxean *blog* bat egin dugu eta hori erabiltzen dut batzuetan.



**Jon Mikel Aiastui**
Ikaslea
Bergara

Bai, ezagunak dira. Baina ez zaizkit larregi gustatzen. Ikastetxean *Flicker* zelan erabili erakutsi digute, baina etxean ez dut erabiltzen. Bestalde, Internet eta *online* bidezko jokoak askotan erabiltzen ditut.



**Igor Lete**
Langilea
Bergara

Hor daudela dakidan arren sekula ez ditut erabili. Ni klasikoa naiz, Interneteko sare sozialek berandu harrapatu naute. Ondo erabiltzen badira, erabilgarriak eta interesanteak izan daitezkeela iruditzen zait.



**Maria Cordero**
Ikaslea
Bergara

Ezagutu eta erabiltzen ditut. Aste bukaeran ibiltzen naiz *Facebook*, *Fotolog* eta *Tuenti* bezalakoetan. Argazkiak hartzeko balio dute. Internet, bestalde, informazioa jasotzeko erabiltzen dut.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

**> "Zikloturistak tropelean bai, baina binaka, mesedez"**

Irakurle batek idatzi digu, esanez zikloturistek batzuetan ez dituztela zirkulazioko arauak errespetatzen: "Asteburuetan ziklista asko ibiltzen dira ibarreko errepideetan, eta zirkulazio txikiagoa egoten denez, aste barruan baino lasaiago ibiltzen dira, arauak hausteraino. Guztiok erabili behar dugu errepideak, baina zikloturistek binaka joan behar dute, eta ez errepide osoa okupatzen".

ARAMAIO

**> Suñako errepidean kamioiak oso azkar ibiltzen dira**

AHTko lanak direla-eta kamioi mordoa ibiltzen da Suñako errepide estuan aurrera eta atzera, eta hasi gara lehenengo kexuak jasotzen: "Batetik, errepide hori hilabete gutxi barru erabat lehertuta egongo da, baina hori ez da larriena. Kontua da hor dabiltzan kamioiak oso azkar ibiltzen direla gora eta behera, eta autoan behetik gora joanez gero, ez da asko behar istripu bat izateko".

BERGARA

**> Zapatu goizetan ezinezkoa da erdialdean aparkatzea**

Zapatu goizetan azoka egoten denez Bergarako erdialdean oso zaila izaten da aparkatzea, jende asko autoz gerturatzen delako erdigunera erosketak egitera. Konponbidea ez da lurpeko aparkaleku gehiago egitea, eta bai ohiturak aldatzen hastea. Esaterako, erosketendako karroa hartuta azokara paseatzen joatea.

**usteak uste**

**Txomin Madina**

# Horoskopoan sinesten duzu?

Pertsona guztiak ezberdinak garen arren, badira galdera batzuk denok egin ditugunak, edo denoi egin dizkigutenak. Tartetxo honen izenburuan dagoena izango da horietako bat.

Onartzen dut neuk ere tarteka begiratzen dudala egunkari, astekari eta hilabetekari ia guztiek izaten duten atal hori. Baina beti irribarre erdia ezpainetan, aurkituko dudanaz barre egiteko prest... Amodioa? Dirua? Osasuna? Guzti hori zeruan dauden planeta, izar eta konstelazioen arabera badago, zergatik ez hartu kontutan zabor espaziala? Edo hegazkinak?

Esperimentu ez-zientifiko bat proposatzen dut: hartu hauteskundeetako emaitzak, eta begiratu atzoko horoskopoek zer zioten hautagai bakoitzaren zeinuaren inguruan...

**zorroztailea**



**Joxemari Muxika**

# Erabakietan parte

"Egiteko, parte hartu egin behar da. Herria eraikitzeko, eta kritikatu ahal izateko. Ezin da kritikatu parte hartu gabe. Ezin dira gauzak aldatu parte hartu gabe". Horrela eskatu du EAJren alde botoa emateko Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, kanpainari amaiera emateko Bilboko Casilla pabiloian eginiko mitinean."
Berria > 2009-02-28




Egun t'erdi izan dut botoa eman aurretik hausnarketa egiteko. Nori botoa eman erabakia hartzeko garaian alderdien egitasmoak eta ordezkariak azaltzen duten gaitasuna baloratu ditut gehienbat. Eta esan beharra daukat zehaztasunik gabeko egitasmoak iruditu zaizkidala, promesa orokorrak aurkitu ditut.

Horiek horrela, galdera gehiegi geratu zaizkit erantzunik gabe. Egitasmoek itxura ona eta pertsonek gaitasuna izan arren, agindu dutena beteko dute? Zintzotasunez jokatuko dute? Alderdiek elkarri egiten dioten kontrola nahikoa al da jendartearen premiei erantzuteko? Jendartean sor daitezken aldaketak nola interpretatuko dituzte? Zergatik itxaron behar dut lau urte ahoa itxita?

Egia esan, eskasa iruditzen zait herritarren parte hartzea lau urtez behin ordezkariak kendu eta haien tokian besteak izendatzera murriztea, eta bitartean erabaki guztiak eurak hartzea. Jendarteak daraman bilakaeraren abailan oso gutxi da hori. Irizpidea duen pertsonaz osatutako jendarte batean, eta gurea hala dela esango nuke, demokraziaz jokatzeko beste aukera batzuk eskaini behar dira.

**"Herritarren parte hartzea lau urtez behin izatea eskasa iruditzen zait"**

**"Informazioa zabaldu eta kontsultak egin beharko lituzkete"**

Hartu beharreko erabakiei buruz herritarrei informazioa zabaltzeaz gain, herritarren mugimenduekin iritziak trukatzeaz gain edo negoziatzeaz gain, erabakiak hartzeko kontsultak egin behar lituzkete agintariek. Horrela hartutako erabakiekin bi gauza lortzen dira: kalitatea fintzea eta herritarren atxikimendua.

Jokamolde hau erabiltzen dute adibidez Suitzan, Austrian eta USAko estatu batzuetan. Eta hori da hain zuzen ere Europako agintariek gomendatzen dutena. Ekonomia arloan, Arrasateko Kooperatiba Mugimenduan Batzar Nagusietan hartzen dira erabakiak edo bestela erreferendumaren bitartez. Parte hartze honetara, idealera, iristeko bideak jartzea utopia egingarria da, posiblea.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Xabier Urtzelai, Mirian Biteri eta Txomin Madina **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**




**> ARRASATE**
Babes ofizialeko 175 etxebizitza 847 eskatzaileen artean zozketara, etzi **> 14**





**> ARETXABALETA**
Gaur, astelehena, jarriko du Udalak martxan Durana kaleko kirol lokal berria **> 19**





**> ANTZUOLA**
Debagoieneko Trikitilarien Egunean antzuolarrek esku hartzeko batzarra deitu dute **> 20**




Joan den astean udalbatzak onartu zuen plan bereziak Arlaban gaineko lurrei eta Gatzagain ingurukoei eragingo die. MIRIAN BITERI

**LEINTZ GATZAGA** > HIRIGINTZA

# Udalak hasierako onarpena eman dio Arlaban gaineko plan bereziari

**ALEGAZIOAK**
Udalbatzak herritarrek aurkeztutako bi alegazioetatik bat onartu du

**HIRU PISUKO ETXEAK**
Etxebizitzek bi solairukoak izan beharrean, hirukoak izan ahalko dira

**MIRIAN BITERI** > LEINTZ GATZAGA

Joan den eguenean egindako osoko bilkuran Arlaban gaineko behin behineko plan berezia onartu zuen Leintz Gatzagako udalbatzak. Orain Diputazioak ontzat hartu beharko du eta arazorik egon ezean, behin betiko onarpena emango diote. Horrekin Arlaban eta Gatzagain batzen dituen ingurunea arautu gura dute.

Aspaldiko gaia da Arlaban gaineko planarena. Orain dela hiru urte hasi zen aurreko agintaldiko udalbatza lantzen. Urtebete geldi egon ostean, horri ekin zion berriro oraingo udalbatzak. Aurreko agintaldian Toledo taldeak egindako proiektuan aldaketak egingo zituztela jakinarazi zuten orduan. Azaroko plenoan plana onartu zuten eta herritarrei azaldu zizkieten horren nondik norakoak. Jarraian, iradokizunak egin eta alegazioak aurkezteko 45 egunetako epea zabaldu zuten. Herritarrek aurkeztutako bi alegazioak jaso ostean, aldaketa batzuekin, plana onartu zuten joan den astean.

Leintz Gatzagako alkate Eusebio Villarrek azaldu duenez, gune eraikigarrietan etxebizitzek bi pisuko altuera izatetik hirukora pasa ahal izatea adostu zuten; etxebizitzen altuera zazpi metrotik zortzi eta erdira pasatzea, hain zuzen.

### ARAU SUBSIDIARIOAK ALDATU

Alegazio batek, gainera, Arlaban gainean etorkizunean etxebizitza eraikitzeko aukera ematea ere eskatzen zuen. Villarrek azpimarratu du hori ez dela horren erraza, udalerriko arau subsidiarioak aldatu behar dituztelako. Beraz, joan den asteko osoko bilkuran hori mahai gainean uztearen alde azaldu ziren.

Gogorarazi du, horren harira, arau subsidiarioak 1986. urtetik aldatu barik daudela. Alkatearen esanetan, "herria mugitzen dabil eta lurrak beherantz egiten du, eta arau subsidiarioak aldatu aurretik, ikerketa geoteknikoa egin beharko genuke, herriaren egoera jakin eta eraikigarri diren guneak zeintzuk diren ikusteko".

### JAKION ARLABANERA EROAN

Esan bezala, plan horrekin ingurunea arautu nahi da. Guztira, 458.000 metro koadro lur eremu hartzen du. Horietatik, 240.000 inguru gune babestuak izango dira. Alkatearen arabera, plan horrekin aurrez eginda dauden eraikinak –jatetxeak eta ostatuak– eta etorkizunean egin daitezkeenak arautuko dira. Azken horren harira, Jakion enpresa Arlabanera eroatea aurreikusten da. Nekazari produktuak gertatzen dituen enpresa herrian dago gaur egun, San Migel plazan. Baina, han dituzten azpiegiturak ez dira egokiak eta Udalaren asmoa da enpresa hara eramatea: "Baina, Jakion gora eroan ahal izateko plana onartu behar dugu".

### URAREN ARAZOA

Bestalde, ingurune horretan urarekin duten arazoa gogorarazi du. Gipuzkoako Kontsortzioak ura haraino eroateko proiektua egin du eta orain dirulaguntzen zain daude. Ohartarazi du, baina, ura ez bada haraino eramaten, Arlaban gaineko plana bertan behera geratuko dela: "Ura goian ez badago, ezin daiteke Jakion hara eroan ezta bestelakorik egin".



Bizikleta gainean zein bestela ederto pasatzen dute domekero Bergarako Txirrindulari Elkartekoek. IKER BARANDIARAN



Bizikleta txangoa egiten baino gehiago disfrutatzen ei dute hamarretakoa jaten. Zapatuan Zuloa elkartean egin zuten. I.B.




Antolatzaileetako bat den 'Txiki' Menor fin-fin ibiltzen da antolatzaile lanetan. I.B.

**BERGARA** > ZIKLOTURISTAK

# Bizikletan ibiltzearen onena, ostean egiten den hamarretakoa?

## Atzo hasi eta urriko azken domekera arte astero egingo dituzte txangoak bergararrek

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Bergaran, ibarreko beste herri askotan moduan, bizikleta gainean ibiltzeko zaletasun handia dute. Guk domekan Bergarako Txirrindulari elkartekoekin egin genuen hitzordua. Dorletako Amaren Egunarekin bat eginda, aurtengo denboraldiari hasiera eman diote Bergarako zikloturista koadrilakoek. Dorletako lore eskaintzatik bueltan Bergaran harrapatu genituen. Atzotik, domeka, hasita urriko azken domekara arte astero irtengo dira txangoa egitera.

Lehenengo irteeran 40 bat lagun batu ziren. Horietatik nagusienak 65 bat urte ditu eta gazteenak, berriz, 27 urte. Gehienak 40 urteren bueltan daude, eta diotenez aspaldian "odol gaztea" batu zaie taldera.

**ESKAERA**

Hala, domekako planera batu gura duenak badaki 09:00etan herriko plazan elkartzen direla (uda sasoian, berriz, 08:00etan); eta txangoa egin ostean, onena daukatela zain: *Txiki* Menorrek prestatutako arrautza frijituak eta bestelakoak. Hala harrapatu genituen guk behintzat, Zuloa elkartean.



Aspaldiko ohiturari eutsita, salda hartu zuten tabernan mezara eta bazkaltzera joan aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > ERRETIRATUAK

# Urteko ospakizuna egin zuten Basotxo elkartekoek

## Meza entzun eta txikiteoa egin ostean, mahaiaren bueltan elkartu ziren adinekoak

**I.B.** > ARETXABALETA

Herenegun, zapatua, Basotxo erretiratuen elkarteko kideek egun berezia izan zuten Aretxabaletan. Hain zuzen ere, urteroko ospakizuna izan zuten.

Hala, eguna hasteko, erretiratuen tabernan bertan hitzordua egin zuten. Saldak lagunduta, barrenak berotu zituzten.

Horren ostean, ohiturari jarraituta, meza entzun zuten Agustindarren komentuan.

**BAZKARIA BASTER-ALDE**

Egunari bukaera ederra emateko, Baster-Alde jatetxera igo ziren hainbat kide. Han bazkari ederraz gozatu, eta tertulian izan ziren luzaroan.

**ARRASATE** > AISIALDIA

# Larunblai: tailer eta jolasen ekimen ibiltari sortzailea

## Zapatuan, jolastearekin bat, sormena lantzeko aukera izan zuten San Andresen batutakoek

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Zapatuan ume eta gaztetxoendako tailerrak egin zituzten Arrasateko San Andres auzoan Txatxilipurdi elkartekoek. Buru-belarri harrapatu genituen horietako asko eguerdi aldera Kurtzetxiki plazan. Jakina da jolasekin moduan tailerrekin ere gustura ibiltzen direla gaztetxoenak, baina herenegungoak ez ziren edonolako tailerrak: sormena lantzekoak ziren, eta horrek kontzentrazio handiagoa eskatzen du.

**TAILER ARRAKASTATSUAK**
Eider eta Jokin ere zeharo kontzentratuta harrapatu genituen, baina tarte bat hartu zuten guri arreta egiteko. Eurek azaldu ziguten pena zutela, "ekimena goizez" bakarrik egiten dutelako. Euren esanetan, Txatxilipurdik arratsaldez ere egin beharko luke Larunblai ekimena. Eurek behintzat gustura hartuko lukete.

**EKIMEN IBILTARIA**
Hainbat urte pasa dira Arrasateko Txatxilipurdi ume eta gazte aisialdi elkarteak asteburuetako ekimenak kalera, eta are gehiago auzoetara eramatea erabaki zuenetik.

Ludoteka ibiltaria ere herriko puntu desberdinetan egiten dute urtean zehar. Sasoi honetan, berriz, Larunblai ekimenari ekingo diote; eta ziur, emaitzak onak izango direla.



Denetariko materiala erabili zuten tailerretan. JOSETXO ARANTZABAL



Begiraleari kasu egitea ezinbestekoa da. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > LANAK

## San Juan kaleko lanak bukatuta

Bergarako hainbat bizilagunek aitortu digute San Juan kaleko lanak bukatu direla-eta, pozik daudela; batetik, euren esanetan, kalea txukun geldítu delako; eta bestetik, etxearen alboan lanak edukitzea nekagarria delako. Kale osoko lurra goitik behera aldatu dute denbora tarte guzti horretan, eta luze jo dute lanek. Joan den astean, oinezkoendako joan-etorria baimendu zuten; eta asteburuan, berriz, ibilgailuena. Hala bada, halako lanak hoberako izan daitezela!



ETXEAK > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA

# 175 etxebizitza 847 eskatzaileren artean zozketatuko dituzte etzi

Etxebizitza tokatu zaienen zerrenda hiru lekutan argitaratuko dute: Arrasateko udaletxean, lurralde ordezkaritzan eta 'Etxebide.info'-n



Uribarrin babes ofizialeko 44 etxebizitza dabiltza eraikitzen; oraindik obrak bukatu barik daude. MIRIAN BITERI

UBANE MADERA > ARRASATE

Etzi, eguaztena, 12:00etan, Uarkapen. Horixe da Jaurlaritzak egin duen hitzordua Arrasaten eraikitako babes ofizialeko azkeneko etxebizitzak zozketatzeko. 175 etxebizitza dira guztira. Gelman 131 dabiltza eraikitzen eta gainerako 44ak, berriz, Uribarrin.

175 etxebizitzok zozkatuko dituzte 847 eskatzaileren artean.

**ZOZKETA, KUPOEN ARABERA**

Zozketatuko dituzten etxebizitzak kupoen arabera zozkatuko dituzte. Hau da, 175 etxebizitzetatik 75 izango dira Etxebiden lau urteko antzinatasuna duten eskatzaileendako. 65 izango dira 25 eta 35 urte bitartekoendako eta beste zortzi mugikortasun urria dutenendako. Gainerako 27ak kupo orokorrekoak izango dira.

Eskatzaileen artean lau urteko antzinatasuna duten eskatzaileak dira gehiengoa: 336. Ondoren, 25 eta 35 urte bitartekoak datoz. Ezaugarri hori duten 331 lagunek parte hartuko dute. Mugikortasun urrikoei dagokienez, zortzi etxebizitza daude eta zortzi eskatzaile dira; beraz, badirudi kasu horretan ez dela zalantza handirik izango. Eta bukatzeko, kupo orokorreko 172 eskatzailek parte hartuko dute zozketan.

Etxebidek ohi duen moduan, zozketa egingo dute ordenagailu zein herritarren parte-hartzearen bitartez. Hau da, konbinatu egingo dituzte ordenagailu bitartez ateratzen dituzten zenbakiak Uarkapen elkartuko diren herritarrek aterako dituzten zenbakiekin. Jakina, notario batek ikuskatuko du prozesu guztia, betiere Jaurlaritzako ordezkarien laguntzarekin. "Baina, domekan hauteskundeak direnez, ezin da aurreratu zein ordezkari politiko izango den Uarkapeko zozketan", azaldu du Pilar Matiasek, Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko prentsa arduradunak.

Hark esan du zozketa egin eta gero etxebizitza tokatu zaienen zerrenda argitaratuko dutela udaletxean, *Etxebide.info* webgunean eta lurralde ordezkaritzan; horrez gain, gutuna jasoko dute adjudikaziodunek.

**URTEBETE ITXARON BEHAR**

"Dena den, zozketa egin eta urtebetera edo urtebete pasatxora arte ez dugu jakingo zeintzuk diren behin betiko adjudikaziodunak", azpimarratu du Matiasek. Azaldu du zozketa egin eta urtebete ingurura konprobatzen dituztela adjudikaziodunek beharrezko baldintzak betetzen dituzten: "2008ko errenta aitorpena eskatuko dugu. Dena den, beti egoten bajaren bat; etxebizitza lehenago eskuratu dutelako, adibidez. Halakoetan, itxaron zerrendan hurrengo doanari ematen diogu etxebizitza", dio Matiasek.

Horrez gainera, izaten dira, baita ere, etxebizitza tokatu eta hartu gura ez dutenak. "Halakoak programa konkretu horretatik kendu egiten ditugu. Eta etxebizitza bi bider tokatu eta bietan erabakitzen badu ez hartzea, orduan Etxebidetik ezabatu egiten dugu behin betiko", dio Jaurlaritzako ordezkariak.

Adjudikaziodunei dagokienez, berriz, etxe berrietan sartu ahal izango dira; jakina, obrak bukatzen dituztenean.

## Oraingo astean bukatuko dute Gelma pareko biribilgunea

Joan den egubakoitzean jardun zuten Gipuzkoa etorbidean biribilgunea egiten diharduten langileak erripedira galipota botatzen. "Aurreneko kapa" dela azaldu zuen obra arduradunak. Eta horren ostean, bigarrena botatzea besterik ez dela falta obra guztia bukatzeko. Hain justu ere, emandako xehetasunen arabera, gaur (astelehena) ez bada, bihar botako dute galipotaren bigarren kapa. Eta behin hori eginda, Gipuzkoa etorbidea libre geratuko da, semaforo eta obretako makina barik. Hori bai, orain arte biribilgunea egiten ibili diren langileek Gelmako urbanizazio lanak egiten segituko dute datozen asteotan.



U.M.

### oharrak

ABAROA
**> Bide hezkuntza**

Datorren eguenean, martxoaren 5ean, bide hezkuntzaren gaineko hitzaldia izango da Abaroako 5. aretoan. Iban Aranguren udaltzaina izango da hizlaria. 18:00etan hasiko da; doan izango da.

MARTXOAREN 8A
**> Takarraran herri lasterketa**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Takarraran izeneko herri lasterketarako izena emateko epea zabalik dago. Emakume Txokoan, Musakolako kiroldegian edo herri lasterketaren egunean bertan egin daiteke hori. 14 urtetik gorakoek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Lasterketa 12:00etan hasiko da.

Bestalde, Martxoaren 8an Uarkapen herri bazkaria egin behar dute. Izena eman behar da datorren egubakoitza baino lehen, Emakume Txokoan, 18 euro ordainduta.

**AZPIEGITURAK** > EPELE-ELORREGI ARTEKO BIDEGORRIAREN PROIEKTUA

# Udalak uste du egungo proiektua gauzatzeak ez duela "inongo zentzurik"

Udalaren ustez Aldundiaren proposamena ez da errentagarria, tranbiaren lanak direla-eta bidegorria zabalik urtebetez bakarrik egongo litzatekeelako

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko Udala ez dago ados Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen bizikleta eta oinezkoendako Elorregi-Oñati eta Elorregi-Epele arteko bidegorriaren lehen fasea egiteko proiektuaren zenbait punturekin. Aldundiak, besteak beste, Errekabaltz eta Minazulueta tunelak egokitzea eta bidegorri zati handi bat eraikitzea aurreikusten du. Era berean, bidegorriak trenbide zaharraren ibilbidea jarraituko du zati handienean zehar. Eta Arrasateri dagokionez, obra handiena Elorregiko (San Prudentzio) biribilgunearen inguruan egongo da: harresi eta harri-lubeta bat eraikiko dute biribilgune azpitik pasa dadin.

Horren aurrean, Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, "proiektua egungo terminoetan gauzatzeak ez du zentzurik, ez lurren gordespenaren ikuspegitik eta ezta ikuspegi ekonomikotik ere".

**EZ EKONOMIKOA, EZ EKOLOGIKOA**

Udalak uste du "epe oso laburrera" egokitzapen lan guztiak ezerezean geratuko direla, eta, beraz, proiektua ez dela ekonomikoki errentagarria izango. Zergatik? Bada, Udalak adierazi duenez, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako egutegien arabera, "bi edo hiru urtean tranbiaren lanak hasita egongo direlako". Hori horrela, bidegorria urtebetez bakarrik egongo litzateke erabilgarri.

Lurren zaintzari dagokionez, bestalde, Udalak aditzera eman du Aldundiak proposatutako proiektuarekin "epe luzerako lurren kudeaketa albo batera utzita geratuko dela".

**UDALAREN PROPOSAMENA**

Udal Gobernuaren desadostasuna adierazteko, Udalak eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuari Epele eta Elorregi artean egin beharreko bidegorria behin betikoa den marraren arabera garatua eta gauzatua izan dadila. Eta ez hori bakarrik, bidegorria egiteko lanak "lehenbailehen" has daitezela eskatu dio Udalak Aldundiari.

**OBRAK** > IGOGAILUAK

# Eguaztenean hasiko dituzte Ferixalekua eta Altamira auzoa lotuko duten igogailuen lanak

Lehen igogailuaren lanak direla-eta, lau hilabetez itxiko dute oinezkoendako Aldaigain eta Jose Luis Iñarra kaleen arteko pasabidea



Etzi hasiko dira bi igogailuetatik lehena egiten. JOKIN BEREZIARTUA

**J.B.** > ARRASATE

Hilabete inguruko atzerapenarekin bada ere, etzi hasiko dira Ferixalekua eta Altamira auzoa lotuko duten igogailu publikoen obrak. Bi igogailu izango dira, guztira: batak Otalora kalea eta Uarkape pilotalekuaren atzetik datorren Gernika pasealekua lotuko ditu; eta besteak, Gernika pasealekua eta Jose Luis Iñarra kalearen goiko aldea. Azken igogailu horrekin hasiko dira, eta obrak direla-eta bihartik aurrera oinezkoendako itxita egongo da Aldaigain kalea eta Jose Luis Iñarra pasealekuaren arteko zatia; hau da, Ferixaleku eraikinaren atzetik datorren oinezkoendako pasabidea.

**ALTERNATIBA BI OINEZKOENDAKO**

Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, "lau bat hilabetez" ezin izango da aipatu pasabidea zeharkatu. Hala, oinezkoek bi modutan zeharkatu ahalko dute itxita egongo den pasabidea, Zigarrolatik herriko erdigunera goazela: lehena, hilerri zaharreko eskailera berrietatik Gipuzkoa etorbidera jaitsiz; eta bigarrena, goiko aldetik joanda Mesedeetako Andra Mari ikastetxe zaharraren ondoko eskailerak hartuz.

**URTEBETE OBRA OSOA AMAITZEKO**

Bigarren igogailuari dagokionez, lehena amaitu ostean, egun gaztetxe kanpoan dagoena kendu eta berria eraikiko dute. Obra osoak 2010eko martxoan amaituta egon beharko luke; izan ere, Udalak urtebeteko epea jarri du obra amaitzeko.

Bi igogailu publikoak egitearen ardura izango dute Contrucciones Amenabar SA eta Orona S. Koop. enpresek. Bi enpresak UTE –aldi baterako enpresen arteko fusioa– batean elkartu dira; hau da, izaera juridiko berria hartzen duen subjektua sortu dute.

**INBERTSIO HANDIA**

Bestalde, bi igogailu horiek eraikitzeak inbertsio handia dakar Udalarentzat, aurrekontua 2.118.658 euro da-eta.



Erretiratuak taberna zerbitzu barik daude atzo ezkero. ARANTZAZU EZKIBEL

**ZERBITZUAK** > ABAROA

# 2010 amaiera arte taberna gabe geratu dira erretiratuak

Taberna ez beste instalazioak erabili ahalko dira; batzuk kexu dira gune hori txikiegia delako

**J.B.** > ARRASATE

Atzo itxi zuten behin betiko Abaroako taberna, Iturbide egoitza berritzeko lanengatik. Hortaz, erretiratuek Abaroa berria egin arte –hau da, 2010 amaierara arte– ez dute taberna zerbitzurik izango. Abaroa berria egiteko lanak hasiak dira dagoeneko; San Andres auzoan egingo dute, Etxaluze baserria zegoen orubean.

Taberna itxita egongo den arren, erretiratuek gainontzeko instalazioak erabili ahalko dituzte. Hala ere, batzuk kexu dira Udalak utzi dien gunea nahikoa ez delako; adierazi dutenez, "lekua txikiegia da eta aste bukaeretan, batez ere, ez da egongo denontzako lekurik".

Era berean, eraikin berriari begira hainbat zalantza dituzte, lekua eta kokapena dela-eta. Obrak hasiak direla ikusita, Abaroa berria ere txiki geratuko dela uste dute askok. Bestalde, kokapena ez dute gustuko, "biribilgune batetik eta errepidetik gertuegi" dagoelako.

**ABAROA BERRIA, BERRITZAILEA**

Askok Abaroa berria txikia izango dela uste duten arren, Iñigo Garitano Udaleko Gizarte Ongizateko teknikariburuak jakinarazi du Abaroa zaharra baino "dezente handiagoa izango dela". Garitanok jakinarazi duenez, tabernak beheko solairu ia osoa hartuko du, eta, hortaz, "erretiratuek ez dute leku arazorik izango".

Egoitza berria berritzailea izango da. Izan ere, Udalaren aurreikuspenen arabera, energia berriztagarriak aprobetxatuko dituen eraikina izango da; eta diseinu aldetik, ikusgarria. Lau solairu izango ditu, guztira: sotoa, beheko solairua eta beste bi. Beheko solairuan taberna, sukaldea, billar mahaia, podologoa eta ile-apaintzailea izango dira; eta lehen solairuan, berriz, hiru batzar gela, bulego bi, bideo gela bat eta informatika gela bat. Azken solairuan bulego gehiago egingo dituzte, San Andresko auzo alkatetzari zuzenduta.



Haize handia dabilenean ezin dute erabat bermatu herritarren segurtasuna; zuhaitza osasuntsu egon arren, beti eror daitezke arramak haizearen indarragatik. GOIENKARIA

**AZPIEGITURAK** > PARKEAK

# Egun haizetsuetan itxi egingo dituzte herriko parkeak, segurtasuna bermatzeko

Usondo, Errotalde, Errekalde eta Arrizuriaga parkeak itxi egingo dituzte

Horrez gain, zuhaitzei azterketa fitosanitarioa egitekoak dira

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak erabaki du herriko lau parkeak ixtea haize handia ibiltzen denean. Lorezainen arduradun Arkaitz Tolosak azaldutakoaren arabera, herritarren segurtasuna bermatzeko asmoz hartu dute erabaki hori, "arrisku potentziala dago-eta".

Usondo, Errotalde, Errekalde eta Arrizuriaga parkeak dira itxiko dituztenak. Gainera, ondo seinaleztatuta egongo direla gehitu du lorezainburuak.

**OSASUN AZTERKETA**

Herriko zuhaitzei azterketa fitosanitarioa egingo zaiela ere aurreratu du Arkaitz Tolosak: "Azterketa horrekin jakingo dugu osasuntsu dauden ala ez eta horren arabera hartu beharreko neurriak erabakiko ditugu".

Azterketaren emaitza dena delakoa izanda ere, haizea egiten duenean parkeak itxi egingo direla azpimarratu du Tolosak, "zuhaitza osasuntsu egon arren, arramak erori egin daitezkeelako".

**BASOAREN ASTEA**

Udaleko Ingurumen batzordeak antolatutako Basoaren Astearen baitan *Bergarako landaretza eta paisaiaren ikerketaren ondorioak* delako lana aurkeztuko du Javier Loidi EHUko katedradunak. Azterketak deskribatzen du, besteak beste, herrian aurkitutako 866 espezietako bakoitza; 111 familia.

Bihar, martitzena, izango da ikerketaren aurkezpena, 19:00etan, kultura etxean.

**txaloak eta txistuak**




GOIENKARIA

## Non dago saskia?

Irakurle batek bidali du txistua. Seminarioko jolaslekuan dagoen saskibaloi eremuaz kexu da. Saskibaloi eremuan aparkatuta egoten diren auto guztiez, hain justu ere. Honela dio: "Badakit saskibaloia bigarren kategoria batean dagoela, baina hau zapalketa da. Areto futboleko bi kantxetan ez da autorik egoten".

**ONDAREA**

## Casino Vergares-en fondoa jaso du artxiboak

**M.B.** > BERGARA

Bergarako Udal Artxiboak fondo berria jaso du. Casino Vergares fondoa, hain justu ere, Bitoriano Larrañagak dohaintzan emandakoa. Horren harira, artxibotik eskertu egiten dute dohaintza, eta "bergararrek erakusten duten artxiboarekiko konpromisoa eta eskuzabaltasuna". Fondo hori lau kutxatan dago.

**1922TIK 1991RA**

Casino Vergares elkartea 1922. urtean sortu zen. Haren gainean dagoen azken agiria, berriz, 1991. urtekoa da.

Casino Vergaresek egoitza Komenio kaleko 4. zenbakiko bigarren solairuan zuen. Eraikin hori Elizarena da eta han egondako urte guztietan errentan egon zen kasinoa.

**oharrak**

UDAL PILOTALEKUAK
**> Zabalotegi pilotalekua dagoeneko erabil daiteke**
Udaletik jakinarazi dutenez, dagoeneko erabil daiteke Zabalotegi pilotalekua. Itoginak konpondu dituzte eta hezetasuna ateratzeko arnas hodiak ireki dituzte.

UDAL ZERGAK
**> Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga**
Zergaren 2009ko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea hasiko da martxoaren 2an eta bukatuko da maiatzaren 29an. Egun horretatik aurrera errekarguarekin kobratuko dute.

HITZALDIA
**> 'Euskaldunak eta Nafarroa' delako hitzaldi sorta**
Martxoaren 4an izango da hurrengo hitzaldia, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. *Historia de Navarra, el Estado Vasco* gaia jorratuko du Mikel Soraurenek.

ODOL ATERATZEA
**> Martxoaren 4an izango da hurrengo odol ateratzea**
Ohi bezala, Seminarioko egoitzan izango da.

LOKALEN ZOZKETA
**> Etxebizitza erabilera izango duten lokalak zozkatuko ditu Udalak**
Interesatuta dagoenak izena eman behar du Bulego Teknikoan (2. solairuan). Hala, dagoeneko badagoen interesdunen zerrendara atxikiko dute. Betiere, gutxienez azkeneko urtebetean Bergaran erroldatua egon beharko du interesdunak eta ez du etxebizitzarik jabetzan izan behar.

IZENEMATEA
**> Judas Priest ikustera joateko autobuserako izenematea**
Judas Priest, Megadeth eta Testament taldeek martxoaren 13an Donostian egingo duten kontzertura joateko autobusa antolatu dute. Izenematea zabalik dago martxoaren 8ra arte Kai tabernan. 10 euro aurreratu beharko dira.

BERTSO AFARIA
**> Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi, Artatsen**
Urteroko bertso afaria egingo dute martxoaren 14an. Txartelak salgai daude Arrano, Pol-Pol eta Kortazarren. 24 euro da prezioa; 15 euro, ikasle eta langabeendako.

ESKOLAK
**> Euskararen gaineko bi ikastaro antolatu dituzte**
Udal Euskaltegian bi ikastaro hasi dira otsailean: bata, dendariek euskara ikasteko (60 ordu); eta bestea, Bergarako euskalkia lantzeko (10 ordu). Bietan ala bietan izena emateko aukera dago oraindik.

Inkestak egin dituzte erabiltzaileen artean, asebetetzea ezagutzeko

Batez beste, 7,55eko nota jaso dute jarduerek; txikiena jaso du aquaerobik ikastaroak, 1,87 punturekin

**KIROL ZERBITZUA** > ASEBETETZE INKESTA

# Erabiltzaileak pozik daude Kirol Zerbitzuko ikastaroekin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak asebetetze inkesta egin berri du erabiltzaileen artean. Zerbitzu horrek eskaintzen dituen ikastaroei buruz erabiltzaileek duten iritzia jaso nahi izan dute modu horretan. Abenduan egin zituzten inkestok. Jardueretan ziharduten 1.100 ikasleri eskatu zitzaien inkestok betetzea eta %10ek erantzun zituen.

**NOTA ONA**

Ikastaroetan erabilitako materialaren, puntualitatearen, irakaslearen eta haren metodologiaren gainean galdetu zitzaien, besteak beste. Erabiltzaileek 0 eta 10 arteko puntuazioa eman behar zioten galdera bakoitzari. Horrez gainera, iradokizunak eta proposamenak egiteko gonbita ere jaso zuten.

Horrekin guztiarekin, Kirol Zerbitzuko ordezkariek azaldu dute emaitzak "oso onak" izan direla: "Batez besteko nota 7,55ekoa izan da". Puntuazio txikiena izan dute aquaerobik ikastaroak (1,87 puntu) eta 4 eta 7 urte arteko umeendako igeriketak (6 puntu). Handiena, berriz, fibromialgia eta yoga ikastaroek (9,37 puntu jaso dute biek).

**PROPOSAMENAK**

Erabiltzaileen proposamen eta iradokizunak ere jaso dituztela aurreratu dute Kirol Sailetik.

Jasotako proposamen eta iradokizun aipagarrienak hauek dira: spinning ikastaroko txirrinduen mantenua eskasa dela; jarduera batzuetan materiala falta dela eta zenbait ikastarotan musika ozenegi egoten dela eta albokoei enbarazu egiten diela. Bada, Udalak azpimarratu du "konponbidean jartzen saiatuko" dela.

Aste Santura bitartean eremuz eremuko inkestak betetzeko aukera ere egongo da. Inkestak sarreran egongo dira eskuragarri.

Jardueraz jarduerako emaitzok *www.bergara.net* webgunean daude ikusgai



JOSETXO ARANTZABAL

## Martoko auzoko berdegunean zuhaitzak landatu dituzte

San Antonio eta Martoko artean, errekaren kontra dagoen berdegunean zuhaitzak landatu dituzte asteon. Iaz arte, erregulatu bako aparkaleku gisa erabiltzen zen gune hura; hainbat auzotarrek lagatzen zuten autoa han. Dena den, San Antonio eta Martoko auzoen arteko oinezkoendako bidea konpontzearekin batera berdegune gisa berreskuratu dute gune hura.

Udaleko lorezainek landatu dituzte zuhaitzok: zortzi gereziondo, sei makal eta bost lizar landatu dituzte. Gunearen lorezaintza lanak erabat bukatzeko, zuhaixkak jartzea eta belarra ereitea falta da.

**UDALEKUAK**

## Uztailerako begirale euskaldunak behar dira

Interesatuek dagoeneko eman dezakete izena Xipizaro ludotekan

**M.B.** > BERGARA

Uztaileko udaleku irekietarako begirale euskaldunak behar direla aditzera eman dute Udaletik. Begiraleok uztailean goizez umetxoendako egiten diren udaleku irekietan jardungo dute.

**IZENEMATEA**

Izena emateko interesa duenak Agorrosin Ekintza Gunean dagoen Xipizaro ludotekan egin dezake. Ludotekaren ordutegia hauxe da: astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Informazio gehiagorako deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira edo idatzi mezua *nnarbaiza@bergara.net* helbidera.

> AISIALDIA

### Gaztetxoendako ur jolasak Agorrosinen martxoaren 7an

Kirol Zerbitzuak antolatuta ur jolasak egongo dira Agorrosinen datorren zapatuan, martxoaren 7an. Puzgarriak eta jolasak egongo dira.

Igerileku handian 8 eta 14 urte arteko neska-mutikoendako jolasak egingo dituzte eta txikian, berriz, 8 urtetik beherakoendakoak.

> IKASTAROA

### Informatika ikastaroa antolatu du Udaleko Enplegu Sailak

Enplegu Sailak 50 orduko informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word hasiera ikastaroak. 12 lagunendako lekua dago eta eskolak martxoaren 9tik maiatzaren 6ra izango dira, 15:00-17:00 ordutegian. Izenematea da martxoaren 4ra arte, Enplegu Sailean (50 euroko sarrera egin behar da).



**ELKARTASUNA** > ARGENTINAKO ELKARTASUN TALDEA

# Lau edukiontzi bidaliko dituzte aurten Argentinara

Material asko dute Bidebarrietako lokalean, eta apirilean beste edukiontzi bat bidaliko dute

Eguaztenero eta eguenero hartzen dute materiala



Argentinako Elkartasun Taldekoek lanean dihardute Bidebarrieta kaleko lokalean. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Argentinako Elkartasun Taldeak urteko plangintza aldatu egin behar izan du. Orain arte, urtero hiru edukiontzi bidali dituzte Argentinara. Baina aurten lau bidaliko dituzte. Arrazoia da Bidebarrietako lokalean material asko dutela. "Orain arte urtarrilean, maiatzean eta irailean bidaltzen genituen edukiontziak. Aurten, baina, bat gehiago bidaltzea erabaki dugu. Urtarrilaren 12an bidali genuena banatzen hasi dira dagoeneko. Hurrengoa apirilean bidaltzeko asmoa dugu, eta hurrengoak uztailean eta urrian", esan digu taldeko kide Jose Antonio Urteagak.

Lokala gainezka duten arren, herritarren poltsak jasotzen dihardute, eguaztenero eta eguenero 18:30etik 20:30era. Era berean, materiala utz daiteke Bidebarrieta kalean dagoen edukiontzi zurian.

**GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE**

Duela zazpi urte sortu zen Argentinako Elkartasun Taldeak beste pauso bat eman nahi du. Hain zuzen ere, gobernuz lanpoko erakunde (GKE) moduan eratuko dira. " GKE eratuta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko dirulaguntzak eskatu ahalko ditugu. Erakunde publikoen laguntzak eskatzeko nahitaez GKE moduan eratu beharra daukagu. Izan ere, egun, Udala da gure ordezkaria", azaldu du Jose Antonio Urteagak.

GKE moduan eratzeak ez du aldaketarik ekarriko taldeko lanean, baina erakunde publikoen laguntzarekin proiektu potoloagoak egin ahalko dituzte. "Jose C. Paz hirian 300 bat neska-mutikori jaten ematen dien San Jose Providente fundazioa dago. Haren barruan Nazaret izeneko proiektua bultzatu nahi dugu. Besteak beste, haurrendako formazio tailerrak eta kirol azpegiturak egingo ditugu. Gainera, elbarriendako egoitza egin nahi dugu", azaldu digu Urteagak.

**22 EDUKIONTZI**

Argentinako Elkartasun Taldea 2002. urtean sortu zen. Helburu nagusia Oñatirekin senidetuta zegoen Jose C. Paz hiriko behartsuen alde lan egitea zen. Urte hauetan 22 edukiontzi bidali dituzte Argentinara; besteak beste, liburuak, arropak, oinetakoak, jostailuak eta josteko makinak bidali dituzte. Bestalde, hainbat proiektu jarri dituzte martxan: ile-apaindegiak, aroztegiak, behartsuendako jantokiak eta josteko tailerrak.



MIREIA BIKUÑA

## San Martingo zubia zabaldu egingo dute

San Martin zubitik Murgia auzora doan bidean lanak egiten hasi dira. Alkateak esan digunez, zubia eta bidea zabaldu egingo dituzte. Zubiaren eskuinetara zeuden etxeak bota egin dituzte, eta hondeatzeko makina lurra mugitzen hasi da. Murgia auzora doan bidea bi zatitan zabalduko dute: San Martin zubitik zaharren egoitzarainoko bidea eskuin aldetik zabalduko dute, argazkian ikusten den moduan; handik gora ezkerretik zabalduko dute bidea. Alegia, San Martineko etxeak egiten dihardúten tokitik; gainera, espaloia zabaldu eta bidegorria egokituko dute.

Bidea domekan itxiko dute, eta, bitartean, tarte horretan kontu handiz gidatzeko gomendioa egin dute udal arduradunek.

## oharrak

HITZALDIA

**> DBH bukatuta egin daitezken ikasketei buruzko hitzaldia Elkar Hezin**

Elkar Hezi ikastetxeko orientatzaile Ana Sanzek egingo du hitzaldia bihar, 19:00etan. Bigarren Hezkuntzako eraikineko mediatekan egingo dute.

Bestalde, Huheziko irakasle eta psikopedagogo Joxe Amiamak hitzaldi-tailerra egingo du eguenean. *Norbera izaten ikasi* hitzaldia 18:30ean egingo dute DBHko mediatekan.

HITZALDIA

**> Goi mailako hezkuntza zikloen gaineko hitzaldia ikastolan**

Arizmendi ikastolaren, ETEOren eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren eskaintzari buruz egingo dute berba ikastetxeetako ordezkariek bihar. Hitzaldia ikastolako aretoan egingo dute, 18:30ean.

HITZALDIA

**> II. Errepublika eta Espainiako gerraren gaineko hitzaldia**

Intxorta 1.937 Kultur Elkarteak antolatuta *II. Errepublika, Gerra Zibila eta errepresioa Oñatin* hitzaldia egingo du Juan Ramon Garaik eguaztenean kultura etxean, 19:00etan.

> AZPIEGITURAK

## Bidegorri plana ikusteko azken eguna bihar da

Epele eta Zubillaga arteko bidegorriaren proiektua ikusteko azken eguna bihar da. Alegazioa egin gura dutenek udal bulegoetan aurkez dezakete.

Foru Aldundiak 2011. urtea baino lehen egin nahi du Epele eta Oñati arteko bidegorria, eta bidegorri horren lehen fasea egiteko proiektua jarri dute jendaurrean (Epele eta Zubillaga artekoa). Bigarren fasea aurrerago egingo dute.

> ETXEBIZITZAK

## Ugarkaldeko babes ofizialeko etxeetako baldintzak, onartuta

Egueneko osoko bilkuran, Ugarkalden egingo dituzten babes ofizialeko etxeendako baldintzak onartu zituzten. Baldintzak jendaurrean jarriko dituzte hilabetez, alegazioak aurkezteko.

Ugarkalde 5 eta 6. zenbakietan babes ofizialeko 40 etxe egingo dituzte. Bina etxe gordeko dituzte familia ugariendako, ezgaituendako eta lau urtez Etxebiden izena emanda dutenendako.

**ARETXABALETA** > KIROLA

# Gaur jarriko dute martxan Durana kaleko kirol lokal berria

Lokal berria ez da publikora zabalik egongo; espazio falta dela eta, Zainduz gimnasioan eskaini ezin diren kirol jardueren eskolak emango dituzte han, hala nola, aerobic eta spinning



Langileak egubakoitzean oraindik lanean zeuden Durana kaleko lokal berrian. MIRARI ALTUBE

**MIRIAN BITERI** > HERRIA

Azken hilabeteotan Durana kaleko 30. zenbakian –pasabide berriaren ondoan– kirol jarduerak egin ahal izateko lokala gertatzen ibili ostean, gaur, astelehena, martxan jarriko du Aretxabaletako Udalak. Lanok Aikia eraikuntza enpresak egin ditu eta 127.240 euroko gastua izan dute.

Durana kaleko atzeko aldera ematen duen lokal horretan 130 metro koadroko gela gertatu dute kirol jarduerak egiteko. Gelarekin batera komun bi egokitu dituzte. Durana kalera ematen duen aldea, ostera, biltegi bezala erabiltzen jarraituko du Udalak.

**ZAINDUZ GIMNASIOA TXIKI**

Kirol teknikari Asier Mujikak azaldu duenez, Ilargi plazan dagoen Zainduz gimnasioa txiki geratu da gura beste kirol jarduera eskaintzeko ordutegi aukera zabalarekin. Mujikak gogorarazi du Zainduzen bi areto daudela eta horietako bat, intsonorizatu gabe dagoela. Beraz, musikadun jarduerarik ezin dela egin horretan: "Egoera horrek asko mugatzen gaitu. Ordu berdinean ezin ditugu eman musikadun jarduera bi".

Gabezia horrek eragin du, esaterako, aerobi-en itxaropen zerrenda egotea: "Arazo hori konpondu ta dago lokal berriarekin. Dagoeneko taldea sortu dugu eta gaur bertan hasiko dira eskolak ematen".

Kirol teknikariak jakinarazi du gaur zabaltzen den areto berria ez dela publikora zabalik egongo: "Han kirol jarduera zehatzak egingo dira, Zainduzen egin ezin direnak. Eskola dagoenean monitorea hara joango da eta lokala zabalduko du; eskola eskaini ostean, berriz itxiko du. Ez da gimnasioa izango, gura dutenek nahi dutenean joateko".

**MATERIALA**

Spinningeko eskolak ere han egingo dira eta horretarako beharrezkoa den materiala dagoeneko jarrita dago; hala nola, bizikletak, ispiluak eta musika aparatua. Tonifikazio aparatuak ere badaude.

Horretaz aparte, bestelako jarduеretarako ere balio duela uste du Udalak. Osakidetzari eskaini dio erditze aurreko eta osteko gimnasiak emateko. Osakidetza aztertzen dabil balio dezakeen edo ez; erantzunik ez du eman oraindik.

Kirol teknikariak, azkenik, kirola egiteko gomendioa egin du. Horren harira, azaldu du eskaintzen diren kirol jardueretan interesa dutenak Zainduz gimnasiotik pasa daitezkeela, 07:30etik 21:30era bitartean. Han horren gaineko informazioa jaso ahal izango dute.

> INGURUMENA

### Zuhaitz Eguna egingo dute eguenean ikasleek Bainu Etxen

Datorren eguenean, martxoaren 4an, Zuhaitz Eguna egingo dute Aretxabaletan. Eguerdi partean, Kurtzebarrri ikastetxeko ikasleek irakasle agenda beteta dutela eta Almeneko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako 58 ikaslek parte hartuko dute. Horiekin batera, ikastola bereko hiru ikasle joango dira.

Eguerdirako egin dute hitzordua; 14:30ean, guztiak Bainu Etxe bezala ezagutzen den ingurunera joango dira eta askotariko zuhaitzak landatuko dituzte han. Konkretuki, Fagorren aparkaleku inguruko lurzoruan landatuko dituzte.

> ZINEA

### 'Las mujeres de verdad tienen curvas' eta 'Camino' ikusgai

Dagoeneko prest dute martxoko Arkupeko kultura egitaraua. Datozen egunotan, zinea egongo da. Eguenean, zine klubaren barruan, *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma emango dute, 19:30ean. Adin guztiko lagunak ikusteko moduko filma da. Sarrerak lau euro balioko du.

Martxoaren 6an, 7an, 8an eta 9an, berriz, zine komertzialak hartuko du lekukoa. *Camino* izeneko filma ikusi ahal izango da. Barikuan eta zapatuan 22:00etan hasiko da; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Lehenengo hiru egunetan lau euro balioko du; azkenak, bi euro.

**ESKORIATZA** > KAFE-TERTULIA

# Ibarraundi museoan emakume eta krisiaren gainean jardungo dute eguen arratsaldean

Gizarte langile eta hezitzaile Loredi Salegik hizlari lanak egingo ditu 18:00etan hasiko den mahai-inguruan

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak eguenerako, martxoak 5, *¿Crisis y mujer: nos afecta de manera diferente?* izeneko kafe-tertulia antolatu du Ibarraundi museoan. Izenburuak dioan bezala, emakumearen eta krisiaren gainean jarduteko aukera izango dute hara joaten direnek.

Loredi Salegi arduratuko da kafe-tertulia hori gidatzeaz. Emakumeen arloan bereziki jardun duen gizarte langilea eta Bergarako UNEDen Genero-indarkeriaren gaineko irakaslea da Salegi. Batzarra 18:00etan hasiko da eta horretan parte hartzeko sarrera librea izango da.

**MODU INKONTZIENTEAN**

Salegik azaldu duenez, kafe-tertulia martxoaren 8aren harira antolatu dute. Ekitaldi horren helburu orokorra da azaleratzea gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa emakumeak ikusezintasunean jasaten duela. Salegiren esanetan, "emakumeok modu inkontzientean bizi dugu egoera hori. Krisia nola biziko dugun azaleratzea bilatzen dugu batzar horrekin".

Zailtasun ekonomikoak iristen direnean eta etxean gastuak murriztu behar direnean, nondik gutxituko diren aztertuko dute mahai-inguruan. Gizarte langilearen arabera, "emakumeak dira, normalean, galtzen dutenak. Seme-alabak daudenean gu gara familiari lehentasuna ematen diogunak eta lanaldi murrizketa eskatzen dugunak. Gehiago sufritzen dugu krisia. Hori datuen bitartez azalduko dut". Azpimarratu du, horren harira, oso garrantzitsua dela orain arte lortu izan dena ez galtzea: "Ezin dugu atzera egin".

Parte hartzaile bakoitzak gai horren gainean dituen sentsazioak eta iritziak azaltzeko aukera izango du. Esan bezala, eguenean, 18:00etan emango diote hasiera Ibarraundin. Gizonezkoak ere horretan parte hartzera gonbidatuta daude.

**txaloak eta txistuak**




GOIENKARIA

## Eskoriatzan txarto idatzita dagoen seinalea jarri dute

Irakurle batek Aretxabaletatik Eskoriatzara doan errepidean txarto idatzita dagoen seinalearen berri eman digu. AP-1 autobidearen lanak direla eta, trafiko desbideraketa egin dute eta behin-behineko biribilguneko seinalean Gasteiz jarri beharrean, Gazteiz jartzen du. Hori ahalik eta azkarren zuzentzea eskatu du.



Iaz Oñatin egindako Debagoieneko Trikiti Egunean parte hartu zuten trikitilari antzuolarrak. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > MUSIKA

# Trikitilarien batzarra izango da eguaztenean

Antolatzaileek Debagoieneko Trikiti Egunean jotzera animatu nahi dituzte herriko trikitilariak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Debagoieneko Trikiti Eguna apirilaren 25ean izango da, Antzuolan. Musika eskolako trikiti ikasleen gurasoei dagokie egun horretako ekitaldiak antolatzea, eta badihardute egun horretako ekintzetarako dirua jasotzeko hainbat jarduera egiten. Azkena izan zen Santa Ageda bezperan abesbatzakoekin batera egindako diru bilketa.

Antolatzaileek pentsatu dute trikiti ikasle horiez gain, Antzuolan badela urtetan barrena trikitia jotzen ikasi duen jende gehiago, eta baita oraindik jotzen dutenak eta trikitizaleak ere. Hortaz, Debagoieneko Trikiti Egunean parte hartzeko gonbidapena egin nahi diete herriko trikitilari eta zale horiei.

Gonbidapen horren harira, eguaztenean, martxoaren 4an, antolatzaileek batzarra egingo dute gerturatzen diren trikitilariekin eta zaleekin. 20:00etan udaletxean elkartuko dira eta bilera eskolako aretoan izango da. Apirilaren 25ean trikitia jo nahi dutenak bilerara azal daitezen nahi dute antolatzaileek.

**DATORREN URTEAN SORALUZEN**

Batzarrera soinu txikia eraman beharko dute apirilaren 25ean jo nahi dutenek. Asmoa da ikustea zein animatzen den, trikitilari kopurua zehazteko, eta baita zein pieza jotzen dakiten ikustea ere.

Pixkanaka, eguna gerturatzen joan ahala, gertatzen dihardute Trikiti Eguneko egitaraua eta jakin badakite ibarreko trikitilari mordoa elkartuko dela egun horretan Antzuolan. Soraluzetik ere etorriko da talde bat; izan ere, iaz oñatiarrek antzuolarrei eman zieten neurrian, aurten Antzuolako trikitilariek Soraluzekoei pasako diete lekukoa eta haien ardura izango da datorren urteko Trikiti Eguna antolatzea.

**ELGETA** > EKITALDIAK

# Aste Berdeko eta Emakumeen Eguneko hainbat ekitaldi datozen egunotan

Eskolako umeek gaur emango diote hasiera II. Aste Berdeari, eta Udalak erakusketa eta krosak egingo ditu aste bukaeran

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Gaurtik aurrera II. Aste Berdea egingo dute Elgetan ura ardatz hartuta. Herri eskolak Udalarekin batera antolatutako ekimena da, eta zortzi ekintza iragarri dituzte zapatura arte luzatuko den Aste Berdearen barruan.

Ur kontsumo arduratsuaren inguruko hausnarketa bultzatzea da ekimenaren helburua eta aurreko urtean egin zen moduan etxeko iturrietan ipintzeko txorrotak banatuko dituzte.

Gaur, astelehena, ur jolasak izango dituzte umeek. Bihar, martitzena, irteera egingo dute herriko iturriak ezagutzeko. Eguaztenean, Aixola errekaren bueltan ibiliko dira, eta 15:00etan 'Ura beste begirada batetik' dokumentala ikusteko aukera egongo da Herri Eskolan. Eguen goizean eskolan egindako lanak ipiniko dituzte ikusgai herriko plazan, eta txorrotak banatuko dituzte herritarren artean. Barikuan, Zaldibiako Ur interpretazio gunera joango dira eta zapatuan, 17:00etan hasita, jolasak izango dituzte plazan.

**EMAKUMEEN EGUNA**

Domekan ospatzen da Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. Udalak erakusketa zabalduko du Espaloian herriko 20 emakumeri ateratako argazkiekin. 13:00etan Alizia Gartziak egindako diaporama erakutsiko dute, eta 19:00etan la Modelo Clownpublicitaria antzezlana egongo da. Egokiren umeendako krosarekin batera, gainera, Udalak bikotekako krosa antolatu du aurten. Izenematea zabalik dago.

**LEINTZ GATZAGA** > ZERBITZUAK

# Gatz museoa, denda eta turismo bulegoa kudeatzeko deia

Bi urterako kontratua egingo diote hiruren ardura hartuko duenari, eta beste bi urte luzatzeko aukera zabalik utzita

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udalak otsailaren 20an argitaratu zuen Eugenio Otsoa Gatz Museoa, turismo bulegoa eta Labidea denda kudeatzeko lehiaketa deia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 15 egun dituzte interesatuek eskaerak aurkezteko. Bi urterako egingo du kontratua, beste bi urte luzatzeko aukerarekin: "Izan ere, lehen, 20 urterako zeukaten sinatuta, baina gehiegitxo dela uste dugu, edozein arazo sor daitekeelako tarte horretan", azaldu zuen Eusebio Villar alkateak.

2000. urtean zabaldu zuen Udalak gatz museoa, eta 2002an lehiaketa bidez kudeatzeko ardura eman zuen, 2008a arte.

Lehiaketaren gaineko argibide guztiak dituzte udaletxean eta udal webgunean. Baldintza-orrietan zehaztuta daude aurkeztu beharreko agiriak eta betebeharrak zeintzuk diren. Era berean, Udalak zehaztu du urtero 3.600 euro emango diola kudeatzeko ardura hartzen duenari. Interesatuek beste eskaintza bat egin dezakete, baina, betiere, esandakoaren azpitik.



Eugenio Otsoa Gatz Museoa. M.A.

**TXIRRITOLA ELKARTEA** > IPUIN LEHIAKETA

# Martxoaren 27an bukatzen da ipuinak aurkezteko epea

Ipuin lehiaketako partaide bakoitzak sari bakarra jaso ahalko du

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Abian da Txirritola Euskara Elkartearen ipuin lehiaketa; martxoaren 27a da lanak Udal Liburutegian aurkezteko azken eguna.

Ipuin lehiaketan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da Aramaion bizi izatea edo bertan ikastea. Gaia librea izango da, baina ipuinek euskaraz idatziak egon beharko dute, eta argitaratu gabeak.

Lanak gutun-azal handi batean sartuta aurkeztu beharko dira; bertan idatzi beharko da *Txirritola ipuin lehiaketa* eta egilearen goitizena eta ikasketa maila. Barruan, ipuina eta gutun-azal txiki bat sartu behar dira. Gutun-azal txikiaren barruan, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi behar ditu partehartzaileak.

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleendako ipuinaren luzera librea da; bigarren eta hirugarren mailakoek bi orriko ipuinak idatzi beharko dituzte, gutxienez; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako gutxieneko luzera hiru orri da.

**SARIAK**

Sari banaketa apirilaren 23an egingo da, kultura etxean. Txirritola elkarteko ordezkariek azaldu dute lehiaketara aurkeztutako lanek gutxienezko kalitaterik ez badute, sariak hutsik uzteko erabakia har dezakeela epaimahaiak.

# Kirola




**> UDA, LIDER**
Ondarroako Aurrera taldeari 0-1 irabazita UDAk lehen postura egin du salto **> 22**



**> ARIZNOAREN JAIA**
Dantza eta gimnasia jaialdiaz gozatzeko jende asko batu zen atzo Bergaran **> 24**

**> ELKARRIZKETA**
Selene Sifuentes eskubaloi jokalariak Mexikoko selekzioan dihardu, eta datozen hilabeteotan Aloña Mendin jokatuko du; beka bidez etorri da **> 26**




**SASKIBALOIA** > SERIES COLEGIALES

# Arizmendi Dragons Madrilgo Lauko Finalerako sailkatu da

ARIZMENDI DRAGONS
**76-73**
LOIOLAKO SAN INAZIO

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arizmendi Dragons saskibaloi taldeak lortu du ametsa egi bilakatzea; Series Colegiales estatuko txapelketako finalera sailkatzea. Iturripeko kantxa jendez beteta zela, partidu gogoangarrian, Amianoren eta Gabilondoren mutilek 76-73 hartu zuten mendean Loiolako San Inazio.

Hala, hurrengo pausoa, eta azkena, datorren apirilaren 4an eta 5ean Madrilen jokatuko duten Lauko Finala izango da; Estatuko lau talde onenak elkartuko dira bertan. Erraz esaten da.

**ARRATSALDE BIRIBILA**

Egubakoitzean Arizmendik eta Ointxe! kirol elkarteak elkarlana zer den erakutsi zuten ondo. Ipar zonako finala zegoen jokoan, baina ez hori bakarrik, finala antolatzeko ardura ere hartu zuten. Norgehiagoka aurretik ikasleendako saskibaloi azkarreko partiduak antolatu zituzten. Emaitza: Iturripe beteta.

Orduan, 17:30ak pasatxo, bozgorailuetan esatari lanetan ibili zen lagunak Loiolako jokalarien aurkezpena egin zuen; txaloak jokalariendako. Eta segidan etorri zen Arizmendi Dragons taldeko jokalarien aurkezpena; zoramena harmailetan: Ander Atxa, Jon Altube, Iker Barbero, Julen kortabarria, Gorka Arejolaleiba, Iñigo Merino, Aitor Revalo, Markel Balantzategi eta Iker Moreno.

**HASIERAN ASMATU EZINKA**

Partiduko lehenengo minutuak ez ziren onak izan, ez Arizmendirendako ezta Loiolako taldearendako ere. Jaurtiketetan ohi baino kale gehiago eginez, Arizmendikoak izan ziren punteria zuzendu eta markagailuan aurreratu zirenak (18-12).

Bigarren laurdena, baina, etxekoendako txarra izan zen, Loiolakoek hiruko jaurtiketetan abilezia galanta erakutsi zutelako –15 egin zituzten guztira–, eta Arizmendikoak nahastuta ibili zirelako erasoan. Hala ere, nahiz eta markagailuan atzetik joan kanpotarrek ez zuten alde handirik hartu (34-35). Hirugarren laurdenean Loiolak jarraitu zuen aurretik, baina etxekoek ez zuten amore ematen (53-55).

Eta laugarren laurdena telebistan grabatzekoa modukoa izan zen. Zaleen bultzada igarri egin zuten jokalariek, guztiek egin zuten lan ona, baina Balantzategi, Atxa eta Barbero bikain ibili ziren taulapean, bikain. Tentsio handiko minutuetan *dragoiek* ondo eutsi zioten lortutako aldeari eta Loiolak azken segundoan egin zuen hiruko jaurtiketa ez zen sartu (76-73). Finalean dira.



**AIREAN** Ander Atxa, San Inaziokoen taulapean airean, biko saskiratzearen bila; sekulako lana egin zuen. JOSETXO ARANTZABAL



Martxel Balantzategi, eskuman, errebotearen bila. J.A.



Partidua irabazita, denak lurrera. J.A.




Arizmendi Dragonsek Akerren eta zaleen animuak izan zituen. J.A.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Aretxabaleta, preferenteko lehen postuan

## Lehenengo zatiko 13. minutuan egin zuen Aritz Igartuak gola, urruneko jaurtiketa bati esker

## Ondarroako Aurrerak ondo estutu zuen UDA, baina defentsan serio ibili ziren aretxabaletarrak

ONDARROAKO AURRERA
**0-1**
ARETXABALETA

**Ondarroako Aurrera** > Agirre, Goñi, Ander, Akarregi, Mikel, Aitz, Enrike, Unai, Josu, Aramaio, Ganboa (Inazio 75. min.).

**Aretxabaleta** > Unda, Artetxe (Iñaki, 65. minutuan), Alain, Ruben, Gorka, Gotzon, Eriko (Enrike, 70. minutuan), Aritz Igartua, Espinosa, Arkaitz, Iban Lopez.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

UDAk lidergoa balio duen garaipena eskuratu zuen zapatuan Zaldupe futbol zelaian. Eta, hiru puntu horiei esker, UDAko mutilek sailkapeneko lehenengo postura egin dute salto (43).

Norgehiagoka amaitzearekin batera Gordobilen eta Arenazaren mutilek bazekiten Hernanik barkatu egin zuela Anaitasunaren zelaian (0-0), baina beranduago jokatu behar zuen Tolosaren emaitza falta zen. Eta, horiek ere barkatu egin zuten Donostian, Vasconiaren kontra (1-1). Hala, aretxabaletarrek gustura hartu zituzten aldeko emaitza horiek.

**IGARTUAREN GOL EDERRA**

Zaldupe futbol zelaian etekinik lortzea ez da erraza, Ondarroak ondo estutzen duelako etxean. Baina, UDAk partidu serioa egin zuen; norgehiagoka hasi eta berehala Eriko bakarrik geratu zen Ondarroako atezain Agirreren aurrean, baina aurrelari aramaioarrak ez zuen asmatu.

13. minutuan etorri zen gola; Aritz Igartuak baloia zelai erdian jaso, atezaina aurreratuta ikusi eta urruneko jaurtiketa ederrari esker 0-1ekoa egin zuen: "Lehenengo mailan izango balitz aste osoan gol hori ikusten ibiliko ginateke", Arenazaren berbak dira.



Igartua izan zen partiduko golegilea, urruneko jaurtiketa bati esker. GOIENKARIA

**ONDARROA ESTUTZEN**

Markagailuan atzetik, Ondarroako entrenatzaileak jokalari garaiak atera zituen zelaira, baloi luzeko jokaldietan kontaktua bilatu eta baloi geldiko jokaldietan etekina eskuratu asmoz. Baina, nabarmentzekoa izan zen defentsan aretxabaletarrek egindako partidu txukuna, eta neurri handian, hor egon zen garaipenaren gakoa. Gainera, norgehiagoka errematatzeko aukera izan zuten Iban Lopezek eta Iñaki Uribetxebarriak, baina langatik gertu-gertu, kanpora joan ziren jaurtiketa biak.

**"LIDERGOA, LANAREN ONDORIOA"**

Hamaika jardunaldiren faltan UDAko mutilek ez dute sailkapenarekin itsutzeko asmorik: "Anekdota baino ez da, lanaren ondorioa. Baina, gurera jarraitu behar dugu, pausoz-pauso. Datorren astean Amaikak Bat dator, azkena; esperientziak esaten digu ezin garela lasaitu".



JOSETXO ARANTZABAL

### Mondrari irabazita, Bergarak 14 puntuko aldearekin jarraitzen du

Erregional mailako derbian, Bergara 0-2 nagusitu zen atzo Mojategin. Hala, Bergarak 14 puntuko aldearekin jarraitzen du beste astebetez, eta Mondra sailkapenaren azken lekuan dago: "Gola egitea falta zaie, baina talde moduan asko gustatu zait Mondra, serio jokatu dute-eta", adierazi zuen Bergarako entrenatzaile Manu Diazek. Mondrak ondo jokatu zituen derbiko lehenengo minutuak, liderra baloi geldiko jokaldietan ondo estutuz. Baina, 44. minutuan Nafarrateren golak hegoak eman zizkion talde mahoneroari. Bigarren zatian hobeto ibili zen Bergara, eta 70. minutuan Oterok egin zuen lasaitasunaren gola (0-2). Orain, bederatzi jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko: "Asko da oraindik; oraingoz datorren astean Mutrikuren kontrako partidua baino ez dut buruan".

> PREFERENTEA

### Mondrak eta Aloñak galdu egin dute etxetik kanpora

Donostiako Cesar Benito zelaian zazpi gol ikusi zituzten zapatuan, baina gol zaparrada horretan Aloña Mendik ez zuen etekinik jaso, 4-3 nagusitu zelako sailkapenaren erdian ez aurrera eta ez atzera dabilen Berio. Porrot horrekin, eta joan den astean Anaitasunaren kontrako berdinketarekin (1-1) Aloñak lekua utzi die aurreko postuetan UDAri, Hernaniri, Tolosari eta Trintxerperi. Oraingoz, baina, liderra bi puntura baino ez dago.

Mondrak ere ez zuen gehiago egin Pasaian (2-0) eta dagoeneko hamaika jardunaldi igaro dira azken garaipenetik –Zumaiakoren kontra, azaroaren 28an–. Martxa horretan, Mondraren liga amaierak emozioa izan behar du, baina jaitsierako postuetan dauden taldeak geroago era gertuago daudelako emozioa. Eta inork ez ditu horrelako emozioak gura.

**emaitzak eta sailkapenak**

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Aretxabaleta** | **43** | 23 |
| 2. **Hernani** | **43** | 23 |
| 3. **Tolosa** | **42** | 23 |
| 4. **Trintxerpe** | **41** | 23 |
| 5. **Aloña mendi** | **41** | 23 |
| 6. **Pasaia** | **40** | 23 |
| 7. **Hondarribia** | **39** | 23 |
| 8. **Real union** | **38** | 23 |
| 9. **Berio** | **34** | 23 |
| 10. **Idiazabal** | **32** | 23 |
| 11. **Ondarroako Aurrera** | **30** | 23 |
| 12. **Euskalduna** | **24** | 23 |
| 13. **Mondra** | **23** | 23 |
| 14. **EHU Vasconia** | **20** | 23 |
| 15. **Zumaiako** | **18** | 23 |
| 16. **Anaitasuna** | **17** | 23 |
| 17. **Astigarrag. Mundarro** | **16** | 23 |
| 18. **Amaikak Bat** | **16** | 23 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Berio-Aloña Mendi | 4-3 |
| Pasaia-Mondra | 2-0 |
| EHU Vasconia-Tolosa | 1-1 |
| Real Union-Astig. Mundarro | 2-0 |
| Hondarribia-Idiazabal | 2-0 |
| Ondarroako Aurrera-Aretxabaleta | 0-1 |
| Amaikak bat-Euskalduna | 1-0 |
| Zumaiako-Trintxerpe | 1-1 |
| Anaitasuna-Hernani | 0-0 |

**Hurrengoak**

Berio-Anaitasuna
Aloña Mendi-Pasaia
Mondra-EHU Vasconia
Tolosa-Real Union
Astig. Mundarro-Hondarribia
Idiazabal-Ondarroako Aurrera
Aretxabaleta-Amaikak Bat
Euskalduna-Zumaiako
Trintxerpe-Hernani

**BESTELAKOAK**

**LEHEN ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Antzuola | 0-1 |
| BTLS-Urola | 2-1 |
| Aretxabaleta-Anaitasuna | 0-0 |
| Mondra-Bergara | 0-2 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Martutene-Bergara | 3-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Vasconia | 2-1 |

**1. MAILAKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Amara Berri | 1-2 |

**1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Aretxab-Arizmendi B | 0-0 |
| Bergara | Atsedena |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Ordizia-Aretxab.Arizmendi B | 1-1 |
| Billabona-Bergara | 2-2 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Ostadar | 3-0 |
| Aloña Mendi-Eibar | 3-3 |

**KADETEEN 1. MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Behobia-Aretxabaleta KE | 4-0 |

**KADETEEN 1. MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Urola-Aloña Mendi- | 0-3 |
| Bergara-Arizmendi | 6-1 |

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Soraluce | 1-3 |
| Mondra-Lazkao | 6-0 |

**EMAKUMEZKOEN KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Arizmendi | 2-1 |

**EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Zestoa-Aloña Mendi | 2-0 |

**EMAKUMEZKOEN F-11 KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Beasain-Bergara | 2-3 |

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Irabazteko, dirudiena baino gehiago sufritu zuen Mugarrik

Arrasatearrek gogor hasi zuten lehia, eta lau goleko errentarekin joan ziren atsedenaldira. Bueltan, baina, aurkarien joko bortitzagoak gauzak zaildu zituen.


Bigarren zatian lehia gogortu egin zen bi taldeen artean. JOSETXO ARANTZABAL

FORD MUGARRI
**32-27**
LEA CORAZONISTAS

**Ford Mugarri** > Egaña, Valle, Alzelai (3), J. Ezkibel (6), A. Ezkibel (1), Zubiaurre (5), Masip, Santos, Gruzeta, Aldanondo (11), Herrero, Arrese (2), Zuloaga(4).

**Lea Corazonistas** > Cortes, Rubio (2), Carrasco 83), Otxoa de Zuazola (5), Lopez (1), Carou, Gonzalez, Acha (2), Barrio, De los Ojos (5), Ruiz de Luzuriaga (5), Ruiz (2), Lopez de Sosoaga (7), Berroci.

**Golak** > 3-0, 6-3, 10-6, 10-9, 13-11, 17-13. Atsedena. 17-16, 19-19, , 25-22, 25-25, 30-26, 32-27.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE
Indartsu irten ziren Ford Mugarriko jokalariak zapatuan Iturripeko kantxara, eta nabaria izan zen hori lehenengo zatian. Markagailuan aurretik ibili ziren uneoro; eta atsedenaldira, lau goleko errentarekin joan ziren

Atsedenalditik bueltan, baina, Lea Corazonistasekoek apurka aldea murriztea lortu zuten, eraso gogorrari eta arrasatearren akatsei esker. Zenbait unetan berdinduta egon arren, azkenean arrasatearrek erreakzionatu zuten eta garaipenaren bi puntuak etxean geratu ziren.

Edu Orgaz arrasatearren entrenatzailea gustura zegoen garaipenarekin eta lehenengo zatian egindako jokorekin; ez hainbeste bigarren zatikoarekin, bere hitzetan, jokalariek ez zituzten-eta esandakoak bete. Gaineratu zuen partiduak irabazten jarraitzea dela euren asmoa.

> SASKIBALOIA

### Garaipenarekin ekin dio Bergarak igoera faseari

Markagailuan 74-60ko emaitzarekin, Soraluce BKEk garaipen garrantzitsua lortu zuen zapatuan Oiartzunen kontra. Neurketa nahiko berdinduta hasi arren, bergararrak izan ziren partiduaren kontrola eraman zutenak. Zarautz eta Beasain izango dira hurrengo aurkariak.

> SASKIBALOIA

### Hernaniri irabazita, goiko postuetan segitzen du Aloñak

Gipuzkoako Txapelketan, 49-75 irabazi zion atzo Aloña Mendik Hernaniri. Azken laurdenean erlaxatu arren, lehenengo hiru laurdenetan oso gogor ibili ziren oñatiarrak, puntu errenta handia lortuz. Lauko finalerako postuetan dago orain Aloña.

> ESKUBALOIA

### Soraluce BKEk 24-34 irabazi zion Usurbili etxean

Sailkapenean hirugarrenak ziren usurbildarrei irabazita, Bergarakoek gero eta urrunago dituzte Gipuzkoaren Lehenengo Lurraldeko Txapelketako jaitsiera postuak. Datorren astean, Irungo gazteak izango dituzte aurkari, jaitsiera ekiditeko bergararren lehiakideetako bat.


JOSETXO ARANTZABAL

## Dorletako Amak txirrindulari eskolako taldeak aurkeztu ditu

Dorletako Ama txirrindulari elkarteak Txirrindulari 2009 denboraldirako taldeak aurkeztu zituen zapatu eguerdian Leintz Gatzagan. Urtero bezala, Dorletako Santutegian lore eskaintza egin zuten, eta ondoren herrirantz abiatu ziren. Aurten, guztira, 37 txirrindulari daude, mendiko eta errepideko bederatzi taldeetan banatuta. Errepidean kimuen, infantilen, kadeteen eta jubenilen taldeak egongo dira. Mendiko bizikletan, kadete, jubenil, 23 urte azpiko, Elite eta Master 30 eta ziklo krosean, Eliteko beste talde bat egongo da.

**SASKIBALOIA** > EMAKUMEZKO SENIORRA

## Eskoriatzarrek azken segundoetan lortu zuten aurkariak menderatzea

ESKORIATZA K.E.
**47-46**
KRAFFT ATLETICO.

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Azken bi astetan galdu ostean, zapatu arratsaldean partidua irabaztea lortu zuten eskoriatzarrek, Donostiako Krafft Atleticoren aurka. Norgehiagoka puntu bateko aldearekin amaitu zen, esan bezala, etxekoen alde: 47-46.

Eskoriatzarrek oso ondo hasi zuten partidua eta laster 9-2 jarri ziren aurretik. Saskiratzean eta defentsan ondo ibili ziren. Bigarren laurdeneko hasieran 10 puntu inguruko aldea mantendu zuten, baina, atsedenerako hiru minutu falta zirenean, aurkariek erreakzionatu zuten; 25-20 heldu ziren atsedenera. Hirugarren laurdena oso txarra izan zen etxekoendako eta donostiarrak 25-28 jarri ziren. Sei puntu baino ez zituzten lortu eskoriatzarrek. Azken laurdena emozio handikoa izan zen. Zortzi puntutik galtzen zeudenean etxekoek erreakzionatu zuten eta partidua berdindu zuten. Azken minutua infartuzkoa izan zen.

**BIGARRENAK SAILKAPENEAN**
Sailkapenean bigarrenak daude eskoriatzarrak, Añorgako neskekin berdinduta. Biek hamabi puntu dituzte. Hurrengo partidua seigarren postuan dagoen Cafes Aitona A taldearen kontra jokatuko dute Donostiako Benta Berrin. Hitzordua zapatuan jarrita dago, 18:00etan.

**DANTZA ETA GIMNASIA** > ARIZNOA KIROL ELKARTEAREN 25. URTEURREN JAIALDIA

# Pilotalekua goraino, Ariznoa Gimnasia Taldea zoriontzeko

17:15ean hasi zuten jaialdia eta 16:00etarako jende ilara zegoen kanpoan, sartzeko zain

Almudena Ciden ariketa izan zen arratsaldeko txalotuena; gasteiztarra oso gertuko egon zen

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ariznoa Gimnasia Elkarteko jaialdia antolatzen ibili den Txomin Cabok hilabeteak daramatza esaten eurek ez dutela horrelako jaialdirik antolatzeko ohiturarik, eta barkatzeko. Bada, atzo Ariznoa Gimnasia Elkarteak pilotalekuan antolatu zuen jaialdia biribila izan zen: herritarrek erantzun egin zuten, ekitaldi bizia izan zen, erritmo handikoa, eta tapiz gainera salto egin zuten dantzariek eta gimnastek duten onena eman zuten.

**KONBINAZIO ONA**

Gimnasia erritmikoko jaialdia antolatzerakoan Ariznoakoak ez ziren itsutu, eta pilotalekura joateko jende gehiago animatzeko asmoz, dantza estilo ezberdinak eta gimnasia bateratu zituzten atzo. Hala, euskal dantzen artean klasikoenarekin hasi zuten ekitaldia, aurreskuarekin. Mikel Igartuaren eta Ibane Sasetaren ardura izan zen saioa estreinatzea, eta dantza suelto txapelketan bigarren geratu diren bikoteak jaso zituen arratsaldeko lehenengo txaloak.

Eta dantza klasiko batetik erabat modernora, *Tu si que vales* telebista saioan ikusi ditugun Samu Crew taldekoak taularatu zirelako segidan. Ikusleek, gainera, txaloekin jarraitu zuten musikaren erritmo bizia: jendea berotzen zebilen.

Kontrasteen ondoren gimnasten txanda etorri zen, Ariznoako gazte mailako nesken txanda (Maialen, Saray , Itsaso, Ainiz eta Olaia). Eta jarraian etorri ziren Beti Aurrerako, Ipuruako eta Ariznoako kadete mailako (Cristina, Eukene, Izaskun, Jennifer eta Olatz) gimnasten saioak. Hala, Ariznoako entrenatzaile Sonia Correderaren esanetan nahiz eta denboraldi hasiera izan, guztiek eman zuten neurria. Hori bai, Beti Aurrerako Paula Gomez gimnasta gaztetxoak harrituta utzi zituen asko eta asko: gomazkoa zirudien!

Ondoren etorri zen Ariznoako gazteen saioa (Ane, Amaia, Jone, Lide eta Onintza), eta gaztetxoenek ere –alebinek– , nahiz eta urduri egon, herritarren aurrean saio ona egin zuten (Sonia, Jone, Nora, Eneritz eta Leire).

**AUKERAN DANTZA TALDEA**

Gimnasten saioen artean iritsi zen Edu Muruamendiarazen taldearen txanda. Eta, herritarren aurrean dantza egitea berezia izan zela onartu zigun bergararrak. Gainera, Ariznoako ordezkariek berba onak izan zituzten: "Eskerrak eman behar dizkiegu, oso ondo portatu direlako gurekin. Hitzordu mordoa dituzte, eta esfortzua egin dute gurera etortzearren".

Ordura artekoarekin batera, Aukeran dantza taldeak beste osagai bat gaineratu zion jaialdiari, eta ikusle asko harrituta geratu ziren emandako dantza erakustaldiarekin, baita dantzari bat baino gehiago ere: "Gurako genuke horrelako koordinazioa izan. Zelan egiten duten dantzan!", esan ziguten minutu batzuk lehenago itzulipurdika ibiliz sekulako gorputzaldian daudela erakutsi zuten Samu Crew taldeko lagunek. Gainera, Aukeran dantza taldeak Mikel Laboari omenaldia egin zion atzoko saioan.

**GIMNASIA GEHIAGO**

Donostiako Oleksandra Vasylchu gimnastaren –Erreginaren Kopan bigarren– txanda etorri zen ondoren, eta Ariznoako infantil eta kadeteen gimnasia saioekin batera, koreografia ere egin zuten

ESANAK

**"Gimnasten ilusio aurpegiek erakusten dute, duda barik, merezi izan duela jaialdi hau antolatzeko esfortzua egiteak"**

**Txomin Cabo** > Ariznoako kidea

DATUA

# 1.000

**IKUSLE PILOTALEKUAN**

Bergarako pilotalekua bete egin zen atzo Ariznoaren 25. urteurreneko jaialdia bertatik-bertara ikusteko. 16:00etan jende ilara luzea zegoen sartzeko zain.



Olinpiar Jokoetan lautan esku hartu duen Almudena Cid, *Circus* telebista saioko irakasle Eduard




Ariznoa gimnasia elkartea, familia erretratuan; eta, eurekin da Almudena Cid. JOSETXO ARANTZABAL



Ariznoako neskek egindako koreografiako une bat. J. A.



o Fedrianirekin batera, atzoko dantza saioan. JOSETXO ARANTZABAL

etxeko gimnastek. Eta, orduan etorri zen esperotako unea: Almudena Cid dantzan ikustea, Eduardo Fedrianirekin batera. Behar den moduko aurkezpena egin zuen esatari lanetan ibili zen Teresa Aranzibiak, eta txalo zaparrada eten zenean ariketa hasi eta bikoteak sekulako elkar ulertzea erakutsi zuen, puntako gimnastak direla azalduz. Jaialdi biribila amaitzeko, Ariznoak gogoan izan zituen klubeko entrenatzaile eta lehendakari guztiak.

**Almudena Cid** > Gimnasta ohia

# "Jendeak uste du ezin dela gimnasia egin adin batetik aurrera; kontrakoa erakutsi dut nik"

**X.U.** > BERGARA

**Almudena Cid (Gasteiz, 1980) ekartzeko ahalegin handia egin du Ariznoa Gimasia Elkarteak, baina merezi izan du. Jaialdian ikuskizun polita egin zuen gimnasta olinpikoak; eta horrekin batera, gertuko neska dela erakutsi zien herriko gimnastei, antolatzaileei eta baita kazetarioi ere. Jaialdia hasi aurretik izan ginen harekin.**



XABIER URTZELAI

**Zer moduz hartu zaituzte Bergaran?**

Oso ondo, dagoeneko berriro itzultzeko gogoz nago. Goizean Ariznoako gimnastekin izan naiz berbetan eta nire esperientziaren berri eman diet, eta ondoren bazkaltzera joan gara. Ederto bazkaldu dugu, eta ez dakit ni beroketa ariketak egiteko moduan nagoen. Akaso, itxaron egin beharko dut apur bat, digestioa egin arte edo...

**Gimnastekin izan duzun berbaldian, zer kontatu diezu?**

Gimnasia erritmikoaren gainean ibili gara berbetan. Nik nire esperientzia kontatu diet, zer eman didan gimnasiak eta iritsi naizen lekura iristeko zer utzi behar izan dudan alde batera. Horrekin batera, eurek ere hainbat galdera egin dizkidate, gimnasiaren inguruan dituzten dudak, ardurak eta bestelakoak.

**Lau Joko Olinpikotan izan den gimnasta bakarra zara; bada zerbait.**

Bakarra banaiz, bai, izango da zerbait. Gimnasia erritmikoan beti uste izan da adin batetik aurrera ezin daitekeela goi mailan jardun, eta horren kontra egin dut, azken Olinpiadetan ere fisikoki eta taktikoki maila oso onean nengoelako.

**Abuztuan utzi zenion kirolari profesionala izateari, baina gorputzaldi onean ikusten zaitugu.**

Bai, zaindu egiten naizelako. Nire asmoa da gaurko ekitaldian erakustea oraindik maila onean nagoela, baina orain egiten dudan ikuskizunean lasaiago ibiltzen naiz, epaile zorrotzen begiradatik urrun.

**Cuatro telebista katean ikusten zaitugu eguenero, inurriekin batera. Zer moduz?**

Oso ondo, esperientzia berria da niretako. *Circus* saioan ibili nintzen lehenago, eta orain Pablo Motosekin batera nago, *El hormiguero* saioan. Kontua da kamera aurrean eroso sentitzen naizela, eta horrek asko laguntzen duela.

**Hortik bideratu gura duzu zure ibilbide profesionala?**

Probatzeko gogoa dut, baina badakit oraindik asko dudala ikasteko, eta ez dela batere erraza programa bat amaitu eta beste baten hastea. Dena dela, telebistan badut beste proiektu bat esku artean, baina momentuz ezin dut ezer aurreratu. Oraingoz zorte handia izan dut.

## ARIZNOAREN JAIALDIAREN GAINEAN



**Edu Muruamendiaraz**
Aukeran dantza taldea

Asko gustatu zaigu Ariznoakoek antolatu duten jaialdia. Guk egiten dugun ikuskizun motarako ez zen leku aproposena, baina gustura geratu gara. Gainera, herrian dantza egitea beti da berezia. Horrekin batera, ondo dago herrian dantza estilo ezberdinak daudela ikustea.



**Sonia Corredera**
Ariznoako entrenatzailea

Oso gustura geratu gara, nahiz eta entrenatzaileok gozatu baino sufritu egiten dugun. Azken batean, ariketa bakoitza goitik behera ezagutzen dugu, eta akatsak nabarmenago ikusten ditugu. Gu, baina, denboraldi hasieran gaude eta pozik nago neskek egin duten lanarekin.



**Txomin Cabo**
Ariznoako kidea

Hilabeteetako lana izan da, eta egia esan behar badut, oso nekagarria. Baina, pilotalekua zelan bete den ikusteak, herriak zelan erantzun duen ikusteak eta Ariznoako neskek zituzten ilusio aurpegiak ikusteak bete egin gaitu. Espero dezagun 50 urte egiten ditugunean erreleboa izatea.



**Noisy, Shy eta Amy**
Samu Crew taldea

Oso gustura ibili gara eta asko gozatu dugu hemen antolatu duten ikuskizunarekin. Gogoz prestatu dugu gure ekitaldia, baina dagoeneko ohituta gaude eta erraz egin dugu. Gainera, berezia da herrian dantzan egitea. Lehenengo aldiz Simon Arrieta plazan egin genuen ikuskizuna, herriko jaiak ziren eta konturatu ginenerako jende mordoa zegoen gure inguruan, dantzan zelan egiten genuen ikusten. Eta berezia izan zen normalean herriko kaleetan ikusten duzun jendea publiko bezala izatea. Gainera, guk breakdancea egiten dugun arren ere dantza estilo guztiak ditugu gustuko; hala, Aukeran dantza taldea gustatu zaigu asko.

**Selene Sifuentes** > Eskubaloi jokalaria

# "Nire ezaugarrietako bat bi eskuekin jaurtiketak egiteko gauza naizela da"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Selene Sifuentes mexikarrak Aloña Mendi eskubaloi taldean jokatuko du datozen hilabeteetan. Mexikoko selekzioan dihardu, eta beka bidez etorri da gurera eskubaloi jokoa hobetzera. Helburua Txinan jokatuko den Mundialetarako sailkatzea izango da.**



Selene Sifuentes Aloña Mendiko kamisetarekin. ALOÑA MENDI

**Nola iritsi zaizu Aloña Mendin jokatzeko aukera?**

Batez ere Mexikoko entrenatzaileak Edu Orgazekin duen harremanaren ondorioz nago hemen. Oso lagunak dira; horregatik, Lourdez Martinezek Edu Orgazi galdetu zion ea nik jokatzeko bezalako talderik zegoen. Hala iritsi naiz Aloñara, eta oso pozik nago.

**Gaztetan hasi zinen eskubaloian eta selekzioan, ezta?**

12 urterekin hasi nintzen eskubaloian jokatzen; aurretik, baina, beste hainbat kirol ezagutu ditut, tartean eskubaloia eta saskibaloia. Pixkanaka hasi nintzen eta dagoeneko 8 urte egin ditut gorenean mailan.

Mexikon Nuevo Leon taldean jokatzen dut –Monterrey probintziakoa naiz–. 2003. urteaz geroztik, Mexikoko selekzioan jokatzen dut; 14 urterekin egin nuen debuta. Oso gogorra izan zen; gogoratzen dut erronka handia izan zela eta lehiakortasunhandia zegoela.

**Ze postutan jokatzen duzu?**

Erdialdean jokatzen dut, lehenengo lerroan. Panamerikako jokoetan laugarren golegile onena izan nintzen; nire aurretik kubatar bat, brasildar bat eta Paraguayko jokalari bat geratu ziren. Joko Olinpikoetara joateko txartela ematen zuten joko horiek; bosgarren geratu ginen eta lehenengo laurak bakarrik sailkatu ziren.

Orain, horretarako entrenatzen gabiltza. Hurrengo joko panamerikarrak 2011ean izango dira, Guadalajaran (Mexiko); eta, lehenengo hiruak sailkatuko dira Londresko Olinpiadetara.

**Hori dela-eta, gogor entrenatzeko asmoarekin, beka bidez etorri zara gurera.**

Bai, hala da. Beka bidez etorri naiz. Mexikoko hainbat babesle elkartu dira kirolaren alde lan egiteko. Nuevo Leon estatuko kirolari onenak laguntzea da bekan horien helburua. Batez ere, gimnasia taldeak laguntzen dituzte; baina, baita boleibol eta eskubaloiko jokalariak ere.

Mexikon baliabide gutxi daude kirolaren inguruan; horregatik, beka hauek baliabide horiek eman gura dituzte. Batu egin dira Nuevo Leonen alde, eta era berean Mexikoren alde. Esaera bat dago dioena: gaur *Nuevo Leonen alde, bihar Mexikoren alde.*

**Esan daiteke eskubaloian buru belarri sartuta zaudela?**

Bai, orain bai. Mexikon, adibidez, ikasi ere egiten dut. Enpresa administrazio ikasketak egiten nabil, baina hona etorri ahal izateko, ikasketak utzi egin ditut. Izan ere, ekainaren 27an Mundial aurrekoa jokatuko dugu Txilen eta gogor prestatu beharra daukagu. Emaitza onak lortzen baditugu, Txinako mundialerako sailkatuko gara.

**Aurretik egon izan zara hemen: Bilbon, eta baita Coruñan ere.**

Bai, Bilbon Kukullagan ibili nintzen entrenatzen; baina, gazte samarra nintzen eta ez nintzen ausartu han geratzera.

**Alde handia dago Mexikoko eskubaloiaren eta hemengo eskubaloiaren artean?**

**"12 urterekin hasi nintzen eskubaloian, eta selekzioarekin 2003an debutatu nuen"**

**"Ekainean Mundial aurrekoa jokatuko dugu Txilen; Txinarako pasea lortu genezake han"**

**"Hainbat babeslek emandako beka baten bidez nago hemen, nire jokoa hobetzeko"**

Ez, hori da kirolak duen onena. Azken finean kirola da. Maila ezberdinak egon arren, eskubaloia eskubaloia da hemen eta han. Berdin gozatzen dut eskubaloiarekin Mexikon eta hemen.

**Goiz eta arratsalde entrenatzen duzu?**

Alde batetik prestaketa fisikoa dago; hori ez dut alde batera utzi. Baina, bereziki prestaketa taktikoa dago. Aste bukaera guztietan ditugu partiduak eta horrek erritmoa ematen du; hori, ez daukagu Mexikon. Han entrenatu egiten dugu, baina ez dugu partidurik izaten.

Esan behar da Mexikoko selekzioan ardura handiko postua dudala; hortaz, nire entrenatzaileak lana ondo egiten nabilen konfiantza osoa dauka.

**Gainera, Aloña Mendirekin ere entrenatu eta jokatzen duzu.**

Bai, astean hiru entrenamendu egiten ditugu, eta gero aste bukaeran partiduak izaten ditugu gainera.

**Zein da zure ezaugarri onena eskubaloi jokatzen?**

Esan daiteke golegilea naizela. Jaurtiketa asko egiten ditut, batez ere bederatzi metrotatik. Hori da ezaugarri garrantzitsuenetakoa.

Gainera, oso kuriosoa den arren, bi eskuekin jokatzeko gauza naiz: eskumarekin eta ezkerrarekin. Entrenatzaileak txikitatik erakutsi zidan hori egiten.

**Aloña Mendirekin, helburua gorengo mailara igotzea izango da, ezta?**

Bai, hori da. Sei partidu geratzen dira liga amaitzeko eta helburua Euskadiko lehenengo mailara igotzea da. Uste dut talde polita dela Aloña, eta badaukagula igoera lortzeko asmoa.

ARRASATE

# Ibarreko gaztetxo ugarik kirola egiten hasten dute asteburua

**KIROL BI** Eskubaloian eta saskibaloian aritu ziren gaztetxoak 9:30etatik aurrera Iturripen eta Gazteluondon

**ELKARREKIN JOLASTU** Eskola askotariko haurrek elkarrekin jolastu eta lagun berriak egiten dituzte zapatuan

**EGURALDI ONA** Zeruan eguzkia izan zen nagusi goiz eta eguerdi osoan zehar; pozik zeuden neska-mutikoak

**NEREA MENOR** > ARRASATE

Asteburuan, Leintz bailarako neska-mutikoekin egon ginen Iturripeko kiroldegian. Otsaileko azken zapatuan, saskibaloian eta eskubaloian aritu ziren Aramaio, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Otxandioko gaztetxoak.

Kirola egiteko arropa soinean zutela, ehunka haur kiroldegira abiatu ziren goizean goiz. 9:30etatik aurrera saskibaloiko partiduak jokatu zituzten 3. eta 4. mailakoek Iturripen. 5. eta 6. mailakoek, aldiz, eskubaloian aritu ziren kiroldegi ezberdinetan: goizago jaiki zirenak, 9:30ean, Gazteluondon aritu ziren, eta 11:45etatik aurrera Iturripeko kantxak okupatu zituzten gaztetxoek.

**GIRO POLITA**

Beti bezala, erabat beteta egon ziren Iturripe kiroldegiko harmailak. Aurreko astean jai eduki zuten Leintz bailarako umeek eta beti gogoz jokatzen duten arren, aste honetan, gehiago saiatu ziren partiduak irabazten. Bi asteetan atseden hartu ondoren indarberrituta heldu ziren kiroldegira.

Entrenatzaile eta arbitroek ere gogoz egin zuten lan zapatuan eta aulkian zeuden gaztetxoek ere bazuten lana jokaldiak komentatzen eta partiduen emaitzak idazten. Halakoetan, ikusleen lana izaten da errazena, euren semealabak animatzea. Txaloak eta txistuak kiroldegitik kanpo entzun zitezkeen.



N.M.

**Kurtzebarri.** Aitorrek, Aritzek, Ibaik, Julenek, Markelek, Asierrek eta Iagok osatzen dute taldea.



N.M.

**San Biator.** Zutik: Unai, Edu, Joseba, Andoni, Markel, Xabi eta Maitane. Eserita: Joseba, Aitor, Irene, Jokin eta Aritz.



N.M.

**Otxandio.** Amaia, Pilar, Maria Elis, Lore, Maria, Irati, Neieli, Naike, Leire, Ane eta Paula saskibaloian aritu ziren.



N.M.

**Santa Teresa.** Naiarak, Jonek, Liernik, Maiderrek, Leirek, Ainhoak eta Eiderrek Iturripen jolastu zuten.



**Maialen Garai eta Ainitze Biteri**
Almen

Partidua amaitu eta bazkaldu ondoren, Ainitze Debara joango da: "Etxea daukagu bertan eta askotan joaten gara, udaran egunero". Maialen paseatzera doa: "Landara joango naiz gurasoekin eta bertan ibiliko gara, paseatzen".



**Aritz Fernandez**
Kurtzebarri

Partidua jolastu eta gero, aurkitu genuen Aritz. Asteburuan lagunekin ibiliko zela azaldu zigun: "Futbolean, harrapaketan eta gorde-gordekan jolasten dugu Aretxabaletan. Lana ere egingo dut aitarekin".



**Alaitz Beltran eta Leire Astiazaran**
Almen

Bi neskek saskibaloian jolastu zuten zapatu goizean eta arratsaldean gauza bera egingo zutela esan ziguten: "Lagunekin geratu eta saskibaloian arituko gara. Gainera, ludotekan gaudenak izotz pistara goaz".



**Ibai Alberdi**
Kurtzebarri

Eskola kirolarekin amaitu ondoren, asteburuan, zer egingo zuen galdetu genion Ibairi: "Behiei janaria emango diet baserrian, aitari pixka bat laguntzeko. Domekan, bazkaldu eta gero lagunekin irtengo naiz herrian".



**Pilar Morote eta Ane Unzalu**
Otxandio

Kirolzaleak dira bi neska hauek: "Asteburuan saskibaloian, eskubaloian, esku pilotan eta futbolean jolastuko dugu. Aurreneko biak gustatzen zaizkigu gehien. Astelehenean eskolara joateko gogo handirik ez dugu izaten".



Dabid Berezibar
> Irakaslea

Ez gara eskiatzaile hasiberriak, badaramagu hainbat denboraldi eski estazioetara joaten, eta ziurrenik, inoiz pista ez den malda batetik ere jaitsi izan gara. Horietako baten, nori ez zaio elur hautsa tokatu eta pista guztia pistaz kanpoko malda balitz bezala topatu?

Tratatu edo zapaldu gabeko elurra denez ez dugu behar bezala eskiatzen, gure teknikak okerrera egin duen sentsazioa izango dugu. Normala da: teknika eta konfiantza kontua besterik ez da.

Bestalde, askoz gehiago nekatzen gara, horra hor indar entrenamenduaren beharra. Halaber, trabesiako eskian hasi nahi dutenek ere pistaz kanpo nola moldatzen diren jakin behar dute. Erronka berriari segurtasunez eta arriskuak zeintzuk diren jakinda hobeto ekingo diogu.

Pistaz kanpo eskiatzeak badu arriskurik eta ongi ezagutu behar dira bertatik jaisten hasi aurretik.



Pistaz kanpo egiten den eskiak baditu arriskuak. Komeni da neurriak eta eta hainbat aholku aintzat hartzea. ARIZMENDI

**ESKIA** > JARDUERA

# Pistaz kanpoko eskia

**ARRISKUAK**

**Haitz ezkutuak:** elur azpian beti agertzen dira erdi ezkutuan dauden harkaitzak.

**Zuloguneak:** mugitu diren elur plakak edo erliebearen aldaketak.

**Elurraren egoera:** pistan ez bezala elur ezberdina egon daiteke.

**Galtzeko arriskua:** ezagutzen ez dugulako edo eguraldiaren ondorioz.

**Gehiago nekatzea:** nekeak lesioak ekar ditzake.

**Elur-jausiak:** elur asko eta bero egiten duenean gehienbat (ikus taula).

**SEGURTASUNA**

**Kaskoa:** gordeta dauden haitzei aurre egiteko.

**Beti norbaitekin:** saiatu ez bakarrik ibiltzen, lagunen batekin eskiatu.

**Abisatu:** norbaiti abisatu nondik ibiliko zareten esanez.

**Fisikoki prestatua:** pistan eskiatzea baino askoz nekagarriagoa da, beraz, egoera fisiko egokiak asko laguntzen du.

**Estazioa ezagutu:** nahiz eta beti egon lehen aldi bat, aurrez aztertu ibilbidea edo dakien norbaiti galdetu.

**Eski asegurua:** pistaz kanpo zerbait gertatuz gero estaziokoek ez dira kargu egiten, horregatik, eskian federatua egotea komeni da.

## ELUR-JAUSIEN INGURUKO INFORMAZIOA

Mendian eta pistaz kanpo aritzen garenean elur-jausiak garrantzitsuak dira, urtero harrapatzen baitu eskiatzaile bat edo beste. Elur-jausi arriskua bost mailatan neurtzen da eta eskiatzen hasi aurretik ondo informatua egotea eskatzen da. Laugarren mailatik aurrera ez da komeni pistaz kanpo aritzea eta are gutxiago mendian. Informazio puntuetan elur-jausien arriskua nolakoa den jakin ostean hasi gaitezke eskiatzen. Hona hemen elur-jausi arriskuen Europako eskala:

| Arrisku maila | Elur Geruzaren egonkortasuna | Aukerak | Jarduera egiteko aholkuak |
|---|---|---|---|
| 1 **Ahula** | Mendiaren hegoalde zein ipar isurialdean egonkortasuna | Malda asko eta oso beteta dauden eremutan | Ia arazo gabeko jarduera |
| 2 **Mugatua** | Elur-jausiak izateko joera duten maldetan, orokorrean nahiko egonkorra | Elur ugari pilatu den tokietan. Berehalako elur jausi handirik ez da espero | Ibilbidea ongi aukeratu. Informazio puntuetan esandako isurialdeak saihestu |
| 3 **Arriskutsua** | Hainbat maldatan gerta daiteke, joera dutenetan batik bat. Elur ezegonkorra dago | Joera duten maldetan nahiz eta elur gutxi pilatua egon. Elur-jausi txiki zein handiak gerta daitezke | Informazio puntuetan esandako isurialdetan ez eskiatu. Eskiatzean atzean uzten ari zaren maldari sarri begiratu |
| 4 **Arrisku handia** | Elur ezegonkorra; ia malda gehienetan dago arriskua | Berehalako elur jausi handi eta ertainak gerta daitezke | Malda txikiko zonaldetan baina elur-jausiak izateko joerarik ez duen tokitan (nik ez nuke eskiatuko). |
| 5 **Oso arrisku handia** | Erabateko ezegonkortasuna | Edozein unetan eta tokitan eror daiteke | Baztertu edozein jarduera. |

Eski estazioetan, aterpetxeetan, meteorologia zerbitzuetan...
Interneten: *www.aemet.es*, *www.meteocat.com*, *www.icc.es edo www.meteofrance.com* webguneetan.
Telefonoak: Pirineoak: 807 17 03 80 / Picos de Europa: 807 17 03 81

## Eskiatzeko teknika

Pistaz kanpo pistan bezala eskiatzea ez dago gaizki baina bi teknika ezberdin erabiltzen dira elur motaren eta inklinazioaren arabera;

**Saltoen bidezko biraketa**: malda handia (35º- 40º graduko inklinazioa) eta elurra gogorra dagoenean erabiltzen da.

> Sorbaldaren linea behera begira izan behar dugu beti, besoak aurrean eta eskiak bi bastoien artean. Posizio horretatik eski puntak beheraka erortzen utziko ditugu eta irristatzen hasten direnean, orpoak altxatu gorputza beherantz bota eta eski atzeak beste aldera pasatu.

**Hanka bat eta gero bestearen teknika**: elur hautsa dagoen maldatan erabiltzen da.

> Gorputza guztiz flexionatua eta aurrera botata egotea komeni da. Kanpoko hankak elurretik eskia atera eta kanporako mugimendua egingo du, gauza bera beste hankarekin. Hankek pixka bat irekita eta bananduta joan behar dute.

## ARIKETA TAULA

**Beroketa** Eliptikan 8 min.
**1. ariketa** Abdominalak 3x15
**2. ariketa** Prensa
**3. ariketa** Bularra



**4. ariketa** Kuadrizeps luzaketa
**5. ariketa** Dorsala
**6. ariketa** Femorala-gluteoa
**7. ariketa** Sorbalda



**8. ariketa** Abduktoreak
**9. ariketa** Bizepsa
**10. ariketa** Bikiak
**11. ariketa** Trizepsa



**12. ariketa** Zankada
**13. ariketa** 2x15 oblikuoak. Beheko abdominalak
**Trote edo bizikleta15 minutu** Ondoren luzaketa



Orain dela bi asteko astelehenkarian agertzen den hilabeteko planifikazioan jarraitu beharreko indar zirkuitoa. Erabili beharreko karga; errepikapenak ondo egiteko modukoa. 12 errepikapen baino gehiago egiteko gai izan

## Datorren astean...

Eski denboraldi osasuntsua. | Eskia eta bere arriskuak. | Eskirako prestakuntza fisikoa eta entrenamenduak. | Eskiko lesioak eta berauek errekuperazioa. | **Pistaz kanpoko eskia.** | **Mendiko eskia.**

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> DANTZA**
'Lur Sagar' ikuskizunak dantza garaikidea ekarri zuen Arrasatera **> 30**



**> ETXART FAMILIA**
Zuberoako kantutegia izan zuten ardatz Nikok eta familiak Bergaran **> 30**



**> DELOREAN**
Rocka eta elektronika batu zituen Zarautzen sortutako taldeak **> 31**

# Musikagida: hamar musikariren disko kuttunak, partekatzeko

Arrasateko Kulturatek ezinbesteko diskoen zerrenda eskatu die hamar musikariri

Gida hori doan hartu daiteke Kulturaten bertan eta baita BAZen ere

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Egubakoitz iluntzean Azkoitiako Anari musikaria Arrasateko Kulturateko agertokira igo zen bere gitarra beltza aldean daukala. Esan zigun musika asko entzun behar dela eta musika zaletasuna Herri Irratian *Forki*-k egiten zuen irratsaioa entzuten piztu zitzaiola. Orain, *Forki*-k eskatu dio hamar disko kuttunak aukeratzeko.

Anari da beste bederatzi musikarirekin batera, ezinbestekoak diren hamar diskoren zerrenda osatu duena. Horiekin musikagida osatu dute Kulturateko arduradunek, aurretik liburu eta poesia gidak egin zituzten moduan. Gida eskuragarri dago Kulturaten eta BAZen.

**AZKOITIARRAREN BILAKAERA**

Hala, musikagida aurkezteko, Anari gonbidatu zuten, gitarra akustikoarekin lagunduta emanaldi labur bat egin zezan.

Bere hastapenetako *Gure mundua* kantuarekin hasi da, disko bakoitza bidaia bat dela azalduz. Horri, bigarren laneko *Denbora*-k jarraitu dio. Bere ibilbidean ezinbestekoak diren Tindersticks eta batez ere Nick Cave azpimarratu ditu; baita hitzak idazteko beste modu bat lantzen hasi izana. *Zebra* lan barnerakoielektrikoa dator atzetik: *Erori banaiz ere* eta *Gu* hautatu ditu. Giant Sand eta Thalia Zedeken arimak ia bistan. *Zebra* diskoa berak egin zuela, baina diskoak bera ere egin zuela azaldu digu. Bestalde, Laboak bi akordekin kantu ederrak egiteko gaitasuna zuela-eta, *Gu* kantuaren bukaera Laboarekin lotu du. Ederra!



Azkoitiako Anari musikariak kontzertua egin zuen egubakoitzean Kulturateko areto nagusian, kaleratu berri duten musikagida aurkezteko. JOSETXO ARANTZABAL

## Hamar artistak esku hartu dute

- Anari
- Coti
- Evaristo
- Fermin Muguruza
- Benito Lertxundi
- Ruper Ordorika
- Ines Osinaga
- Iñaki Salvador
- Carlos Tarque
- Gorka Urbizu

**'Forki'** > Herri Irratiko eta Gaztemaniakeko musika aditua

## "Disko-proposamen interesgarriak jaso ditugu"

**I.B.** > ARRASATE

***Forki*** **Herri Irratiko musika aditua da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztemaniak musika ekimenean lanean dihardu aspaldian. Berak koordinatu du gida.**

**Zein da gida horren helburua?**

Batetik, Euskal Herriko eta kanpoko musikari esanguratsu batzuen bitartez irakurleek disko proposamen interesgarriak jasotzea; hala, talde eta disko gehiago deskubritu ditzakegu. Eta bestetik, musikari horiek proposatutako diskoak Arrasateko bibliotekara eramatea. Are gehiago, beste biblioteka batzuk ere eskatu dute jaso dugun gida hori, eurek ere aintzat hartzeko. Musika zaleek eskertu dute lan hori egitea.

**Zeren arabera egin duzue musikarien aukeraketa?**

Kulturateko arduradunek nigana jo zutenean, saiatu nintzen musika estilo eta adin desberdinetako artistak aukeratzen. Horien artean, badira beteranoak, Benito Lertxundi eta Ruper Ordorika, adibidez; baita Arrasateko Ines Osinaga ere; eta salbuespen moduan, MClan taldeko Carlos Tarque eta Coti.

**Ruper Ordorikaren kasua bitxia da. Bera da euskal artistekin soilik osatutako zerrenda egin duen bakarra...**

Bai, Ordorikarengana jo nuenean bestelako zerbait egitea proposatu zidan. Hain zuzen ere, euskal diskoak aukeratu zituen; eta horien artean, badira kasetean bakarrik argitaratutakoak, gaur egun aurkitu ezin daitezkeenak.



J.ARANTZABAL



Bi neskek dantzatutako 'Jaar Eden' piezak eman zion hasiera ikuskizunari.
JOSETXO ARANTZABAL

**DANTZA** > 'LUR SAGAR' IKUSKIZUNA

# 'Zisneen lakua'-z gain, badago dantzarik

**NON:** Arrasateko Amaia antzokia.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 28.
**ZENBAT JENDE:** 120 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Biarritzeko Dantzaz konpainiara sartu nahi dutenek aukeraketa gogorra pasa behar izaten ei dute. Gogorra, baina zapatuan Amaia Antzokian ikusitakoak ikusita, merezi duena.

*Lur sagar* izeneko ikuskizuna aurkeztu zuten bertan. Dantza garaikidea izanda, baliteke hasieran ondo ulertzea kostatzea. Baina behin jokoan sartuta, ezin utzi. Ordubete eskas iraun zuen ikuskizunak, hiru zatitan banatuta.

**HIRU ZATI, HIRU ESTILO**

*Jaar Eden* izan zen lehenengo pieza. Akaso berau izan zen ikuslearendako zatirik zailena: musika elektronikoak eta intsektuen hotsak nahastuta, bi neska izan ziren protagonista. Aipatu beharra dago uneoro erakutsi zuten konpenetrazioa, mugimenduen sinkronia ia perfektua.

*Songeurs* zatiarekin dibertsioa heldu zen ikuskizunera. Taula gainean hiru mutil, euren pausu, dantza eta keinuekin, ikusleei irrifarre bat baino gehiago eragin zizkietenak. Benetan pieza alaia izan zen hori.

Lan osoari bezala *Lur sagar* izena duen zatiak eman zion amaiera ikuskizunari. Kasu honetan, sei neskek Mercedes Sosa abeslariaren doinuak dantzatu zituzten. Indarra eta sentimendua, esfortzu fisikoa eta dotoretasuna maisuki uztartu zituzten; eta amaieran, ikusleen txalo zaparrada luzea izan zuten sari.



Hiru mutilen ikuskizuna izan zen dibertigarriena.
JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

## Gatibu, arrakastatsu 3.60 aretoan

Adin guztietako jendea bildu zuen egubakoitzean Gatibuk 3.60 aretoan: 300 pertsona inguru, asko gaur egungo zaleak, baina baita Alex Sardui Exkixun ibili zen garaikoak ere. Disko berriko kantez gain, *Musturrek sartunde* bezalako kantu ezagunak ere jo zituzten bizkaitarrek. Jotako hiru bisak dira izandako arrakastaren erakusgarri.

**KONTZERTUA** > ETXART AITA-SEMEAK ETA LARRANDABURU

# Zuberoako sentimenduen bozak

**NON:** Bergarako Zabalotegi aretoa.
**EGUNA:** Egubakoitza, otsailak 27.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**ESTILOA:** Zuberoako folka.

**T.M.** > BERGARA

Niko Etxartek ondo ezagutzen ditu Bergara eta inguruak, bertan bizi izan zen-eta garai baten; eta akaso horregatik, giro berezia sortu zen egubakoitzean Zabalotegi aretoan emandako kontzertuan.

Taula gainean, apaingarriakgutxi, baina garrantzitsuena soberan: Niko Etxart, bere aita Dominika eta koinatu Robert Larrandabururen ahotsak, patxadaz eta naturaltasun osoz abesten, Zuberoako kantuak guregana hurbiltzea lortu zutenak. Zentzu horretan, hunkigarria izan zen oso egubakoitzeko emanaldia.



Niko eta Dominika Etxart, *a capella* abesten.
JOSETXO ARANTZABAL

**AHOTSEKIN JOLASEAN**

Gehienetan *a capella*, baina batzutan gitarraz lagunduta, *Eperrak* bezalako kantu ezagunak hain entzunak ez ditugun beste batzuekin tartekatu zituzten. Bereziki politak izan ziren hiru ahotsetara abestutako piezak. Kantu artean emandako azalpenei eta erakutsitako gertutasunari esker, ikusleekin harreman estua lortu zuten abeslariek, eta zenbait unetan, publikoa ere kantuan jartzea lortu zuten.

**KRONIKA** > DELOREAN

# Giro elektronikoari arima saldu ziotenekoa

**NON:** Bergarako Jam aretoa.
**EGUNA:** Egubakoitza, otsailak 27.
**ZENBAT JENDE:** 300-400 lagun.
**IRAUPENA:** Ordu pasatxo.


Teklatu, baxu eta bateria jotzaileek eraman zuten emanaldiaren pisua; gitarra bigarren maila gelditu zen. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA
Milurte honen hasieran Zarautzen sortutako talde horrek bazterrak harrotu zituen rocka eta doinu elektronikoak ederto ezkonduz. The Cure eta antzekoen post-punka aintzat hartuta, gitarra gogorrak, rockeroak, batu eta oinarri dantzagarriekin jantzi zuten euren eskaintza.

Kontzertuz kontzertu ezohiko proposamen hori defendatuz, azkenean arrakasta lortu zuten; lehenengo Euskal Herritik kanpo eta gerora gurean. Hain zuzen ere, azken urteotan taldekideak Bartzelonan bizi dira; eta taldea ezaguna da nazioartean.

**ASPALDI, BISITATU BARIK**

Aspaldiko partez, ibarrera jotzera etorri ziren egubakoitzean eta jende nahiko batu zuten Bergarako Jam aretoan: bergararrak, arrasatearrak, aretxabaletarrak eta baita hiriburuetakoak ere. Ikusleen artean gazteak eta elektronikaren zaleak asko, baina baita rocketik hurbilago dauden zaleak ere, adinez nagusiagoak. Lan berria aurkeztera etorri ziren, eta, aldi berean, gitarra jotzailea aldatu berri dutela jakin ahal izan genuen. Argiekin lagunduta, giro intimista eta dantzapistakoa lortu zuten: hor zegoen etorriko zenaren iragarpena. Hain zuzen ere, Katalunian bizi diren zarauztar horiek emanaldi osoan ez zuten iraganeko basakeria edo kontrol-galtzera pasa gura izan.

Horren ordez, emanaldia aurre-grabatu eta erritmo elektronikoen gainean oinarritu zuten, bi teklatu moog-en laguntzarekin; eta oso eraginkorra den bateria jotzaile baten pultsupean. Hala, gitarra jotzailea izan zen jarrera makalena izan zuena: zuku txikiegia atera zion bereari; eta arlo horretan igarri zen aldaketa (nire ustetan, gabezia) handiena. Hortaz, aipatutako bateria irmo eta aberatsaz gain, baxu jotzaile eta teklatu jotzaile organikoak eraman zuten emanaldiaren zama.

Oinarri elektroniko aberatsak, giroekin asko jolastuta, elektronika dantzagarrienetik abiatuta dub edota sanba moduko doinuetara heltzen zirenak.

Zoritxarrez, gitarraren apaltasunak indarra eta ukitu rockeroa kendu zion emaitzari; eta proposamen elektronikoagoa bihurtu da. Horren ondorioz, zaila da aldaketa gutxiko abesti luzeetan arretari, lehen moduan, eustea. Hala ere, bukaeran, kantu zaharretan igarri zen taldeak iraganean bestelako bizitasuna zeukala.



**KRONIKA** > BERTSIOEN JAIA

# Estiloen entsalada, bertsioen jaiko menua



Xasta Againts the Machine, jaian parte hartu zuen taldeetako bat; birritan aritu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

**NON:** Arrasateko gaztetxea.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 28.
**TALDEAK:** 12 talde.
**IRAUPENA:** 11 ordu.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Sarrerak balio zituen bost euroen truke, musikaren azken hamarkadetako abesti eta talde ezagunen bertsioetaz gozatzeko aukera izan zuten zapatuan Arrasateko gaztetxera hurbildu zirenek.

12 izan ziren taula gainean aritu ziren taldeak; talde batzuk gainera, espresuki jai horretarako sortuak. Hori izan zen adibidez, Anger Surrenderen kasua: Anger eta Never Surrender taldeetako kideek jardun zuten bertan.

**GUSTU GUZTIENDAKO**

17:30ean hasi zen festa, eta heavy metala, rock-and-rolla edo doinu akustikoak, denetariko estiloak erabili zituzten abesti ezagunak eta ez hain ezagunak bertsionatzeko.

Lehen aipatu ditugun Anger Surrender taldekoek adibidez, honez gero klasiko bihurtu den The Police taldearen *So Lonely*-ren moldaketa jo zuten, eta Dirty Acoustic Coversekoek, beste askoren artean, Ume Gaiztuaken kantuak. Juke-Ciferrekoak bestalde, The Dictators hartu zuten eredu. The Sonics, Ramones edo Led Zeppelin bezalako historikoek ere euren bertsioak izan zituzten.

Talde bakoitza hiru ordu laurden inguru zituen bere kontzertua eskaintzeko, eta aipatzekoa da emanaldi batetik bestera egon ziren estilo aldaketek ekarri zuten aberastasuna.

Jende kopuruari dagokionez, akaso Des-Kontrol taldeko kideek osatutako Deef-Coversen kontzertua izan zen jende gehien erakarri zuena, baina orokorrean, eta zegoen aukera zabalari esker, kontzertu guztietan egon zen ikusle dezente.

Baina gaua ez zen amaitu 12 taldeen kontzertuekin. Izan ere, DJen saioak hasi ziren orduan: batzuek punk-oi! musikarekin, besteek rock-and-rollarekin, festari amaiera eman orduko, goizeko ordu txikiak izango ziren.

Soinuari dagokionez, eta estilo ezberdinak uztartzeak ekartzen ditzakeen zailtasunen gainetik, esan daiteke kalitate oso onekoa izan zela. Antolakuntza bikaina izan zen: jaialdietan ohikoak izaten diren atzerapenik ez zuten tokirik izan zapatuan.



ASTE BUKAERA...

## Edu Muruamendiarazekin



Edu Muruamendiaraz, Maier alabarekin, Bergarako emanaldia hasi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

# "Zapatuetan Aukeran dantza taldeko entseguetara eroaten dut alaba txikia"

Aukeran dantza taldeko kidea da Edu Muruamendiaraz, eta dantza eskolak emateten ditu hiru taldetan

Realzale amorratua da, eta azken bost urteotan asko sufritu duela esan digu; taldea motel ikusten du

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Edu Muruamendiarazek (Bergara, 1964) Aukeran dantza taldearekin emanaldia egin zuen atzo Ariznoa gimnasia erritmiko taldearen urteurrenean. Harekin berba egiteko eta Maier alabarekin argazkiak ateratzeko aprobetxatu genuen. Esan zigun gustura zegoela emanaldiarekin: "Mikel Laboaren omenenezko emanaldia egin dugu, eta gustura gaude". Donostian bizi da aspaldi, eta oso gutxitan etortzen da Bergarara. "Etxekoak eta lagunak ikusteko aprobetxatu dut eguna. Emaztearen familia Eibarren bizi da eta nirea Bergaran, baina oso gutxitan etortzen gara, Donostiak aukera asko ditu-eta".

Aste bukaerako konpromisoekin bukatu ondoren, asteko lanari ekiteko ordua heldu zaio Edu Muruamendiarazi: dantza eskolak ematea. "Irakaslea naiz eta dantza eskolak ematen ditut. Hain zuzen, euskal dantzak irakasten ditut, baina ukitu berritzailea ematen diet". Hiru taldetan dihardu irakasle: Urnietako Agape ikastolan 130 neska-mutikorekin eta Villabonako Oinkari eta Ibarrako Alur dantza taldeekin.

Dantza eskola orduetatik kanpoko jarduera denez, berandura arte egiten duela lan esan digu: "Askotan 23:00etan edo 23:30ean afaltzen egoten naiz. Baina dantza nire bizitza da, eta aspaldian, ogibide".

Arratsaldean lan egiten duenez, goizak beste lan batzuk egiteko aprobetxatzen ditu. "7 urteko alaba ikastolara eroaten dut eguero, eta, besteak beste, gimnasiora joaten naiz. Dantzariok fisikoki indartsu egon behar dugu. Gainera, koreografia berriak lantzen ditut", esan digu Muruamendiarazek.

**ALABAREKIN DANTZA SAIOETARA**

Aste bukaerak dantzaren inguruan antolatzen ditu: "Zapatu goizetan entseguak egiten ditut Aukeran taldearekin, eta hilero bi zapatutan Pauera (Frantzia) joaten naiz dantza eskolak ematera". Etxekoekin egoteko denbora laburra duenez, Maier alaba entseguetara eroaten du: "Zapatuetan nirekin eroaten dut entseguetara. Hiru urterekin dantza ikasten hasi zen, eta gustatzen zaio. Gainera, emanaldietara gurekin joaten da". Donostian dauden dantza ikuskizunetara alabarekin joaten dela esan digu: "Zinema baino gehiago dantza zuzenean ikustea gustatzen zait. Halako ikuskizunetan beti dago zer ikasi".

**REALAREKIN SUFRITZEN**

Irakasle izanik, oporrak alabarekin batera hartzen ditu, eta sakratuak dira: "Aste Santuan eta udan elkarrekin joaten gara oporretan. Aste Santuan koadrilako lagunekin joaten gara eta abuztuan, emaztea, alaba eta hirurok".

Kirola egitea eta ikustea gustatzen zaio, eta azken bost urteotan asko sufritu du Realarekin. "Realzale amorratua naiz. Ez naiz Anoetara joaten, baina domeketan futbolaren gaineko irratsaioak entzuten ditut. Gauzak aldatzen ez badira, bigarren mailan geratuko gara".

### "Txapelketak goi-goian nengoenean utzi nituen; erabaki hori oso gogorra izan zen"

6 urterekin hasi zen dantza ikasten Bergaran, Moises Azpiazu maisuarekin, eta 7 urterekin parte hartu zuen lehen txapelketan, Eibarren. Ordutik hona sari asko jaso ditu, garrantzitsuenak 1993, 1994 eta 1995. urteetan irabazitako Euskal Herriko txapelketak. "Amaia Agirrerekin batera hiru aldiz jarraian irabazi nuen Segurako txapelketa. Urte berberetan irabazi nituen Euskal Herriko aurresku txapelketak. Bi txapelketak hiru urtez jarraian irabazi dituen bakarra naiz". 1995. urteko txapelketak irabazi ondoren *krisialdia* izan zuen. "Dantzarekin jarraitu edo ez erabakitzeko unea heldu zitzaidan, eta oso gogorra izan zen erabakia hartzea. Goi-goian nengoenean utzi nuen", gogoratu digu Muruamendiarazek. 1997. urtean Aukeran dantza konpainia sortu zuen jatorri tradizionaleko dantza ikuskizunak egiteko. "Proiektu berria esku artean dugu. Ekainean egingo du aurrestreinaldia Bilboko Euskalduna jauregian".

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza, jantzia. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldea. Garaje irekia, trastelekuarekin. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Aitziber. Deitu 697 78 07 29 zenbakira.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Interesatuak 659 64 67 38 deitu telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Pisu berria. 2 logela, 2 bainugela, trastelekua, garajea eta bista ezin hobeak. Interesatuek 687 73 67 77 telefonora hots egin.

**Etxarri Aranatz.** 2008koa. Igogailuarekin. 75 metro karratu. Logela eta egongela Beriain aldeko begiratokiarekin. Bi logela eta bi komuna ditu. Trastelekua eta garajea etxe azpian. Interesatuek hots egin 688 64 74 04 zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai. Sukaldea, sukalondo edo errekozina, egongela, 3 logela eta 2 bainugela oso. Lau argiko etxea, erabat berrituta. Interesatuek hots egin 630 15 99 54 telefonora.

**Iruñea.** Txantrea auzoan eraberritutako pisua saltzeko premia. Jantzita dago eta 3 gela ditu. Prezio negoziagarria. Hots egin 676 92 71 65 telefonora.

**Marieta (Araba).** 200 metro koadroko etxe bakarra. Bost logela, 37 metro koadroko egongela beheko suarekin. Hiru komun eta sukaldea. Bi autorendako garajea eta 856 metro koadroko lorategia (ureztatze automatikoarekin). Aukera ona. Deitu 628 45 09 65 edo 616 96 99 20 telefono zenbakira.

**Mutriku.** 61 metro koadroko pisu berritua, altzariz jantzita, gas naturalarekin, garaje aukerarekin. 32.000.000 pezeta negoziagarriak.Interesatuek deitu 626 83 33 33 telefono.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Gela alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko eskubidea izanen da. 606 00 23 40.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran, Altamiran. Hiru logela. Deitu 639 96 01 21 telefonora.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Levanteko hondartzako lehenengo lerroan. 630 41 84 65.

**Bergara.** Etxebizitza jantzia ematen da errentan. 943 76 46 15 edo 652 53 42 81

**Berriatua.** Etxebizitza berria. Igogailuarekin. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Guztiz jantzia. Dena kanpoaldera eta oso eguzkitsua. Harremanetarako deitu 666 87 98 48 telefono zenbakira edo idatzi *bixikan@hotmail.com* helbide elektronikora.

**Etxarri Aranatz.** Pisua alokatzen da. Interesatuek deitu 607 31 76 67 telefonora.

**Lekeitio.** Erdigunean, Eskolapean, 75 metro karratuko etxea alokatzen urte osorako. Deitu 667 20 31 71 telefonora

**Lizarraga.** Pisua alokatzen da Lizarragan. Interesatuek deitu 618 85 32 51 telefonora.

**Oñati.** 86 metro koadroko etxebizitza errentan Euskadi etorbidean. Hiru logela, sukaldea, komuna, egongela eta garage plazarekin. Igogailu gabe. Deitu 665 74 68 24 zenbakira.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Presazkoa da. 666 75 73 21.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 645 72 92 87.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Deitu 669 12 70 98 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil nire bikotekidearekin batera. Iris. 610 91 33 40

**Bergara.** Familia batek errentan hartuko luke etxebizitza Bergaran, Antzuolan edo Oñatin. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara.** Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. Deitu 669 64 76 28 telefonora

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Debagoiena.** Bikote arduratsua baserri osoa edo baserri bateko logela alokatzeko gertu. 665 70 10 57

**Debagoiena.** Apartamentua hartuko nuke errentan Debagoieneko edozein herritan. 663 72 78 23

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Deitu 658 70 19 53 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, egongela, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsua. 670 04 27 41

**Arrasate.** Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berogailuarekin eta ikasteko mahaiarekin. Toki lasaia. 630 71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukalde eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. 666 75 73 21

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. 652 73 46 19

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68

**Bergara.** Bolu auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68

**Donostia.** Gela eskaintzen da 65 urteko emakume bati konpainia egitearen truke. Eskaintza aproposa ikasleentzat. Ez da etxeko lanik egin behar, soilik konpainia. Garrantzitsua arratsaldean eta gauean etxean egotea. Posta elektronikoz kontaktatu. Mila esker.

**Donostialdea.** Hernani edo inguruan logela hartuko nuke errentan. Martxotik uztailera bitartean. 652 71 52 50.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Errenteria.** Garaje itxia salgai Errenterian. Bi autorentzako lekua du, eta kanpoaldera ematen duen leihoa. Interesatuek deitu telefono hauetara: 943 39 24 74 edo 667 42 89 4.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan ematen da Espoloian. Deitu 645 00 78 19 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Donostia.** Etxeko lanak eta urtebeteko ume bat zaintzeko 35 urtetik gorako emakume bat behar dugu. Euskalduna izan eta donostialdean bizi behar du. Ordutegia eta lan baldintzak elkarrekin zehaztu beharko genituzke. Deitu 639 10 45 71 telefono zenbakira.

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adinekoak etxean nahiz ospitalean zaintzeko prest. Neska euskalduna naiz eta autoa dut. Interesatuek deitu 652 97 45 24telefonora.

**Altsasu.** Arratsaldez lan egiteko prest. Altsasun edozein lan eginen nuke: etxeko lanak, zaintza, plantxa... Interesatuek hots egin 699 26 76 76 telefonora (Fatima).

**Antzuola.** Arropak konpontzen ditut. 616 45 00 20

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu etxeak garbitu edo joste lanak egiteko. Deitu 678 66 59 54 edo 943 79 12 00 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Arrasate.** Nagusiak gauez edo astebukaeretan zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28

**Bergara.** Neska gertu arratsaldez lan egiteko. Garbiketa lanetan edo umeak edo adinekoak zaintzen. 618 34 09 35

**Bergara.** Bergarako mutil gaztea sukaldeko lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukaldea batu. Galdetu Manurengatik. 610 80 07 39

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 667 94 07 25

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Paperak eguneratuta dauzkat. 686 99 59 41

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. Deitu 664 87 28 31 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 634 45 28 77

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 5 euro orduko. Deitu 669 53 02 92 edo 943 79 70 59 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 21 88 95

**Debagoiena.** 44 urteko emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxerik etxe ile apaintzaile lanak egiten ditut. 650 59 93 91

**Debagoiena.** Mutila gertu baserriko lanak egiteko, ardiak edo behiak zaintzen. 663 60 51 64

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala prest lan egiteko. Esperientzia dut. 617 73 09 02

**Debagoiena.** Bikote arduratsua gertu baserrietan, etxeetan, lokaletan edo elkarteetan garbiketa lanak egiteko. Autoa dugu. 665 70 10 57

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke gauetan. Esperientzia eta geriatria ikastaroa dauzkat. Erreferentziekin. 618 93 59 29

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 628 93 79 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 663 51 44 94 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan jarduteko. 667 90 38 56

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. 696 83 89 37

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. Deitu 628 40 58 27 telefono zenbakira.

**BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu, Bilbon.**

*Lan baldintzak:*

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Egunean 3 ordu.
- Goizeko 05:00etatik 08:00etara.

**Ezinbestekoa da autoa izatea**

Deitu lehenbailehen **94–330 43 41** telefonora edo bidali zure datuak helbide elektroniko honetara: **lanpoltsa@etxeraino.net**

**Jarduna**
administrazio zerbitzuak

**Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jardunak.**

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

bai euskarari
zerbitzu eta lana euskaraz

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK

Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net
**www.jarduna.net**

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. 695 78 91 04 edo 695 78 41 14

**Debagoiena.** Igeltsero ikasketak eginda dituen gizonezkoa gertu edozein lan egiteko. 680 91 16 83

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko. Deitu 699 63 12 02 telefonora.

**Debagoiena.** Zerbitzaria. Astelehenetik eguenera lan egingo nuke. Eneko. Deitu 690 17 45 60 zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin eta nagusiak egunez edo gauez zainduko nituzke. Esperientzia. Erreferentziaduna. Paperak ditut. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Edozein desbrozadora lan mota egiteko gertu. Euskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein lan egiteko. Deitu 649 70 51 74 telefonora.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ainhoa. 671 35 22 60

**Donostia.** Ikasketekin konpatiblea den lan baten bila nabil. Asteburuak ditut libre eta taberna edo dendaren batean egingo nuke lan. Ez dut esperientziarik horretan. Jostunen laguntzaile gisa ere ariko nintzateke, edo denda batentzat arropak konpontzen. Proposatu beldurrik gabe!

**Eibar.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientziarekin, nagusiak eta umeak zaintzeko eskaintzen da.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Interna egongo litzateke. 679 67 36 22.

**Elgoibar.** Emakumea, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka edo lanaldi osoa. 636 12 04 25.

**Elgoibar.** Mutila zerbitzari lana edo hoteletako harreran lan egiteko prest. 662 26 15 75.

**Elgoibar.** Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. 616 23 39 96.

**Elgoibar.** Emakume bat haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Astean zehar edo asteburuetan. 680 80 81 25.

**Elgoibar.** Emakumea lanerako prest, sukaldari laguntzaile lanetarako, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko. 671 34 36 12 eta 943 53 19 31

**Elgoibar.** Mutil gaztea, lan egiteko prest sukaldari laguntzaile, sukaldari edo zerbitzari bezala. 616 69 04 15

**Elgoibar.** Emakumea haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Marta. Deitu 616 69 04 15 zenbakira.

**Gipuzkoa.** Garbiketa, gizarte laguntzaile edota igeltsaritza lanak egingo nituzke. Legezko paperak dauzkat. Rolando Melgar. 672 25 92 18

**Goierri.** Erizain laguntzaile titulua daukat eta adinekoak edo gaixoak zaintzen lan egingo nuke. Etxebizitzetan, zahar etxeetan edo hospitaletan. Eguneko edo gaueko edozein ordutan nago libre. 616 60 05 15

**Goierri.** Neska arduratsuak garbitzen edota umeak zaintzen lan egingo luke. Deitu: 697 91 55 27

**Goierri.** 2 neska arduratsu adinekoak edo umeak zaintzen, eta garbiketa lanetan lan bila. Erreferentzi onekoak. Deitu: 690 70 63 39

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo 3 egunetarako. Esperientzia handia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgonetarekin aukeran. Informazio gehiago *lorazain@ozu.es* edo 679 60 04 44 telefonoan

**Tolosaldea.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inungo konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04. Itxaso: 695 70 82 71

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. Deitu 627 65 34 33 telefono zenbakira.

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

SALMENTAN
**LEZO** Erdigunean. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 34.950.000
**LEZO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Balkoia. Igogailua. 37.500.000
**PASAI SAN JUAN** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ikuspegi ederrak. 33.400.000
**PASAI SAN JUAN** Berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Garajea. Trastelekua. Igogailua. 39.800.000
**ANTIGUA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 41.950.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Estreinatzeko. 36.500.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**HIRIGUNEA** Azkena. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**HIRIGUNEA** Arrasate kalea. Azkenekoa terrazarekin. Kalera begira. Igogailua. 56.950.000
**AMARA** Felipe IV.aren hiribidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 36.200.000
**AMARA** 70 $m^2$. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Trastelekua. 40.990.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000
**AMARA** Madrid hiribidea. 80 $m^2$. Guztiz berritua. Terraza. 62.990.000
**ALDE ZAHARRA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 45.990.000
**GROS** itsasora eta hondartzara begira. Apartamentua. Oso polita. 52.500.000
**MARTUTENE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 43.500.000
**ALTZA** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Lorategia. Sartzeko moduan. 24.000.000
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kalera begira. Ikuspegi ederrak 31.300.000

ALOKAIRUAN
**LOIOLAKO ERRIBERA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 950 €
**LEZO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berria. Aparkalekua. 700 €
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750 €
**MARTUTENE** 2 edo 3 logela. 2 bainugela. Igogailua. 650 € eta 790 €

**Urola Kosta.** Esperientzia duen emakumea umeak zaindu, adinekoak zaindu edo ostalaritzan eta garbiketan lana egingo luke. Erreferentziekin. Telefonoa: 685 71 24 97

**Zarautz.** Emakume euskalduna familia euskaldun baten bila, etxeko lanak egiteko. 20 urteko esperientzia daukat. Astean 2 egun , azteazkena eta ostiraletan, goizez. Harremanetan jartzeko: 634 45 91 59.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Altsasu.** Irakaslea. Pertsona bat behar da DBH 2 mailako neska bati klase partikularrak emateko. Interesatuek deitu 650 47 17 13 telefonora.

**Beasain.** Lehen hezkuntzako neskato bati laguntza eskolak emateko, ikasle edo litzentziatu bat beharko genuke. Deitu arratsaldez 18:00etatik 20:00etara, telefono honetara: 685 76 90 54

**Bergara.** Lehen hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 675 70 10 63

**Bergara.** Maisu maistra ikasketak egiten ari den pertsona bat behar dut, 6 urteko ume bati entzumenaren eta hizkuntzaren gaineko eskolak emateko. 943 76 99 65 edo 943 76 20 94

### 502. EMAN

**Altsasu.** Sakanako Belenzaleen elkarteak antolatuta. Belenak egiteko teknikak ikasi nahi dituenak ondoko telefonoetan eman beharko du izena: 606 22 76 12; 696 73 45 81; 647 70 58 33; 948 56 24 24 eta 948 56 39 14.

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira Arrasate eta inguruetan. Taldeka edo banaka. Esperientziadun irakaslea. Maila guztiak. Deitu 635 12 87 82 telefonora.

**Arrasate.** DBHko eta LMHko eskola partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Esperientzia handia. 658 70 67 84

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest, Azpeitian. Informazio gehiago: 637 11 39 09

**Bergara.** Ingeles irakasle ezaguna berriro ere eskolak ematen. Etxeko lanekin edo azterketak gainditzeko laguntza. 616 12 56 29

**Debagoiena.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, etxerik etxe. Maila guztiak. 619 38 62 56

**Debagoiena.** LMHko eskola partikularrak emango nituzke. 605 71 09 07

**Lasarte Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Deitu 646 71 76 76 telefonora.

**Oñati.** Ingeniaritzako eskola partikularrak emateko prest: matematika, fisika, kimika... 646 42 13 63

**Oñati.** Urte askoko esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. LH eta DBH. Ordutegi malgua, nahi dituzun orduak (aste osoan, astean ordu bat...) eta talde txikiekin. 943 78 28 43

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Seat Alhambra** monobolumena. 1.9 TDI. 115 ZP. 2002koa. Gaur egungo azken modeloa. 99.500 km. Oso egoera onean eta estra askorekin. 9.000 euro + BEZa (negoziagarriak). Aukera aparta. 610 38 12 44.

**Renault Megane salgai .** Autoa salgai: Renault Megane 1.6. V. 110 zaldi. Gasolina. BMY matrikuladuna, 7 urte eta 100.000 km. 2.800 €. Prezio negoziagarria. 665 70 62 39 telefono zenbakira deitu gauez (Iker).

**Seat Leon CCV autoa salgai.** Seat Leon CCV autoa salgai. Gris metalizatua. Deitu 659 07 87 88 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 300 euro. 618 00 08 28.

**Podenko** eta mastin arrazako nahasketa diren urtebeteko txakurrak saltzen ditut, ezin ditudalako zaindu. Prezioa adosteko. Deitu 678 88 05 64 edo 678 53 82 11 telefono zenbakira.

**Border kollie txakurkumeak salgai.** Abenduan jaiotako border kollie txakurkumeak salgai. 250 €. Interesatuek deitu 636 39 26 11 telefono zenbakira.

**Labrador txakurkumeak.** Pedigreea duten labrador txakurkumeak saltzen ditugu. Beltzak eta hare koloretakoak. Zoragarriak. Urtarrilaren 30ean jaioak. Oso prezio interesgarria. Deitu hona 607 28 04 83.

### 702. EROSI

**Basurde** ar handiak erosiko nituzke. 678 72 75 72.

### 703. EMAN

**Ardi txakurra** opari egiten dut, ezin atenditzeagatik. Deitu 678 61 50 40 telefonora.

### 704. BESTELAKOAK

**Ehiza txakurkume marroia Etxarrin.** Etxarri Aranazko eskoletako bidean aurkitu da. Jabeak dei dezala 628 06 52 95 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak oso merke.** zaharberritzea behar dute. Oso merke. 615 74 13 47

**Arropa lehorgailua salgai.** Fagor etxekoa. Nahiko berria. 200 euro. 943 77 00 26

**Bidaia-kuma.** Parke moduan ere erabil daiteke. Koltxoia eta gordetzeko poltsa barne. Play etxekoa. 50 euro. Mari. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

**Bizikleta beltza salgai.** Oso polita. Mountain estilokoa. 120 euro. 679 74 00 61

**Brain training.** Joko berria salgai. 20 euro. 617 13 17 51

**Chicco synthesis etxeko autorako aulkia salgai.** 0+ taldekoa. 13 kilo artekoa. 25 euro. Deitu 672 25 74 24 zenbakira.

**Eskiatzeko botak.** Salomon Performa 6.99 eski alpinoko botak salgai. 38 zenbakia. Deitu 699 40 96 97 telefonora.

**Ezkontza soinekoa salgai.** Merke. 635 75 54 30

**Hesiak egiteko landareak salgai.** Landareak: thuyas, leylandi, nekosta... Euro batetik aurrera. 686 39 57 59

**Jaunartzeko soinekoa salgai.** Merke. 635 75 54 30

**Josteko makina industrialak salgai.** Bata, Refley etxekoa, automatikoa. Bestea, Jack etxekoa, 757 modeloa. 677 04 26 73

**Marinel jantzia salgai.** 11 12 neurrikoa. Berri-berria. 90 euro. Narruzko oinetakoak barne. 679 74 00 61

**Motorrerako arropa salgai.** Motorrerako arropa. Kaskoa: Arai etxekoa, S neurria. Eskularruak: Dainesse etxekoak, M neurria. Jaka: Dainesse, 46 neurria. Prakak: gore-texdunak, 52 neurria. Bizkarra babestekoa eta 39 neurriko botak ere Dainesse etxekoak. Oso egoera onean. 616 77 28 06

**Nintendo DS lite zuria saltzen dut.** M3 Rumble Ram Pack txipa jolasen kopiak erabiltzeko eta bibrazioarekin. 2 Gb microsd. Funda eta guzti. Aukeratutako hamar jolas eta Opera internet nabigatzailearekin saltzen da. 220 euroren truke. Idatzi mezu bat *radikalshop@gmail.com* e-postara edo deitu 686 62 66 24 zenbakira.

**Ordenagailuko jokoak.** Jatorrizkoak eta dibertigarriak. *Los Sims, magia potagia, Los Sims de vacaciones, Cesar Trivial* eta *Battle chefs.* Bakoitzak 15 euro eta denak hartuz gero 40 euro. 943 53 27 60

**PSPrako jokoak.** Bi joko. Oso interesgarriak. *Yoshi, Super Marioren zaldi berdea* eta *Insected.* Bakoitzak 15 euro eta biak erosita 22 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

**Silver-Cross etxeko umeendako karroa.** Urdina. Oso egoera onean. 300 euro. Interesa dutenek telefono zenbaki honetara dei dezatela: 615 74 13 47

**Trabesiako eskiak salgai.** 1, 85 m. Silvretta 405 fijazioak. Foka larruak eta kutxillak. 200 euro. 658 75 84 58

**Trialeko bizikleta salgai.** Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro. Deitu 943 79 54 21 telefonora.

**Trona. Jane etxekoa.** Mahairako aulkia. Jane etxekoa. Ipini eta kentzeko erraza. 15 euro. 672 25 74 24

**Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. 618 62 83 11 edo idatzi: *garitxu70@hotmail.com*

**Umeendako aulkia.** Kapazo eta kapotarekin. Bebecar etxekoa. 2001ekoa. 100 euro. Deitu 672 25 74 24 telefonora.

### 802. EROSI

**Erremolkea** erosiko nuke. Neurria: bi metrotik aurrera. Deitu 651 70 79 96 telefonora.

**Nintendo DSrako kargadorea** erosiko genuke. Deitu 605 72 72 39 telefonora.

**Bigarren eskuko eskiak.** Bigarren eskuko eskiak erosiko nituzke. 1, 75 m. baino laburragoak. Tel. 665 72 61 46

**Eskiak eta botak.** Metro bateko eskiak eta 27 30 zenbakiko botak erosiko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 608 77 38 59

**Klarinetea erosiko nuke.** Klarinetea. Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke. Deitu 655 74 89 19 zenbakira.

### 803. EMAN

**Simaurra ematen da.** Untxi-simaurra ematen dut opari. 608 40 42 61.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak.** Betaurrekoak galdu nituen Beroa okindegian. Armani etxekoak. Funda gorriarekin. 943 79 16 24

**Argazki kamera.** Canon markako kamera digitala galdu nuen Aretxabaletan. Urtarrilaren 26an, astelehenean, Zaraiako aparkalekuan. Mikel. Deitu 605-73 14 33 telefonora.

**Argazki kamera.** Argazki kamera bat galdu nuen larunbat gauean. Pasa den larunbat gauean ( hilak 21 ), argazki kamara bat galdu nuen, kamara Fuji Finepix bat da, 3.2 megapixelekoa, memoria txartela behintzat, gustatuko litzaidake berreskuratzea. Norbaitek topatu badu, deitu mesedez 943 74 28 08 telefonora gauez (Laura), edo udaltzaingora eraman. Memoria txartela behintzat, mesedez! Mila esker!

**Eskularru gorriak Altsasun.** Artilezko eta oihalezko eskularru gorriak galdu dira Altsasun. Topatu dituenak hots egin dezala 948-46 84 62 telefonora.

**Eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten.** Urrezkoa da eta urtarrilean galdu nuen. Deitu 652 70 23 50 telefonora.

**Karpeta gris gomaduna Altsasun.** Otsailaren 12an, goizeko 07:00etan Altsasuko osasun etxearen inguruan karpeta gris gomaduna galdu zen. Topatu duenak dei dezala 679 21 65 06ra. Oso garrantzitsua.

**Oñati.** Plaza aldameneko aparkalekuan zorro bat galdu nuen otsailaren 6an, ilunkaran. Barruan, eskiatzeko kaskoa, betaurrekoak eta ipurdia babestekoa zeuden. 649 96 92 96

**USBa galdu nuen Oñatin.** Usba galdu nuen otsailaren 10ean, oñatin. Grisa da eta LG etxekoa. Mesedez, norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara: 670 52 58 74

**Giltza.** VW auto bateko giltzak dituen giltzaria galdu da Altsasun. Aurkituz gero Beleixe irratian utzi, mesedez.

**Zilarrezko apaingarria Etxarrin.** Etxarri Aranatzen zilarrezko apaingarri bat galdu da, bere kate eta guzti, medailoi erakoa. Aurkituz gero mesedez deitu 665 72 25 58 telefonora.

### 807. AURKITU

**Aretxabaletako ilargi plazan Nintendo bat aurkitu da.** Ilargi plazan Nintendo bat aurkitu zuten ume batzuek urtarrilaren 9an. 943 79 99 18

**Betaurrekoak Etxarri Aranatzen.** Etxarri Aranazko musika eskola inguruan betaurreko batzuk topatu ziren orain dela hilabete bat. Galdu dituenak pasa dadila Beleixe irratitik.

**Giltzaria eta giltzak.** Donostiako Haizearen Orraziaren irudia duen giltzaria eta giltza batzuk topatu dira. Jabea Beleixe irratitik pasatu dadila.

**Haurren baserritar zapia Etxarri Aranatzen.** Santa Ageda bezperan Etxarri Aranazko Mundiño kalean haurren baserritar zapi bat topatu zen goizean. Galdu duena pasatu dadila Beleixe irratitik.

**Txanoa aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean .** Txanoa aurkitu dut Eskoriatzako San Juan kalean asteburuan. Deitu 943 71 46 50 zenbakira.

**Urre eta zilar koloreko erlojua.** Otsailaren 13an aurkitu genuen Laubideko azoka txikiaren inguruan. Atzean esaldia eta data dauzka idatzita. Galdu duenak BAZen galde dezala.

### 808. DENETARIK

**Zarautzen lursaila.** Zarauztik oso gertu lursail zati txiki bat hartuko nuke, errentan edota zeozeren truke. Intersa izan ezkero deitu 636 62 14 21 telefono zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostia alde zaharreko joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Egunero Gernikarako joan-etorria egiteko.** Egunero Gernikarako joan-etorria egiteko autoa partekatuko lukeen norbaiten bila nabil. 685 77 64 06

**Ongi etorri Amaia!** Sei urte eta gero, aurten behintzat aratusteak ospatzeko moduan! Ongi etorri, Amaia!

**Roman.** Hilan 17ko partez. Lortuko dugu! Muxutxuek Ondarrutik.

**Neska erakargarri bat ezagutzeko irrika.** 33-40 urte bitarteko neska erakargarri bat ezagutuko nuke aski gustura. Ni irundarra naiz, kirolzalea, bertsozalea, parrandazalea eta onean aski umore oneko, adarjozalea. Ez lotsatu ezta pentsatu gehiegi, ez dugu ezer galtzeko eta. Deitu 628 55 37 35 telefono zenbakira.

**Oñatitik Legazpira joan behar dut egunero.** Astelehenetik ostiralera. Autoa partekatuko lukeen norbaiten bila nabil. Deitu 619 38 62 56 telefonora.

**Sasi-musika - ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat.** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisazioa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio gehiagorako *sasimusika.blogspot.com* bloga.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

SORALUZE
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

Elgeta:
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | | | | 5 | 1 | |
| 7 | | | 2 | 9 | | | | |
| 3 | | | | | | 4 | | |
| | 8 | | 1 | | 6 | | | |
| | 1 | | | | | | 6 | |
| | | | 3 | | 7 | | 9 | |
| | | 2 | | | | | | 8 |
| | | | | 6 | 5 | | | 1 |
| | 7 | 4 | | | | 3 | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Kanposantu
Garratz
Lanbroa
Arrain mota
Gari sorta
Frontoi mota
Frantziako ibaia
Airea
VII. hilabete
Gasteizko herrixka
* Irudiko mendia
Amerikako estatua
Pobreak
Baino
Korrikaren antolatzaile
Bizkaiko herria
Begira
Bilo
Metalen nahastura
Soldadu talde
Kontso-nantea

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Gipuzkoako herri bat.




## hizki salda

Euskal Herriko 5 hondartzen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | O | T | L | O | G | O | D | O |
| T | A | N | A | A | Z | T | I | E |
| Z | E | G | G | A | I | P | R | T |
| U | T | A | A | T | S | D | B | T |
| R | I | D | Y | A | E | E | A | E |
| U | N | K | R | A | B | E | X | S |
| N | O | R | E | N | I | A | E | H |
| X | A | L | O | I | R | R | U | Z |
| K | N | A | M | R | E | B | O | D |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | O | T | L | O | G | O | D | O |
| T | A | N | A | A | Z | T | I | E |
| Z | E | G | G | A | I | P | R | T |
| U | T | A | A | T | S | D | B | T |
| R | I | D | Y | A | E | E | A | E |
| U | N | K | R | A | B | E | X | S |
| N | O | R | E | N | I | A | E | H |
| X | A | L | O | I | R | R | U | Z |
| K | N | A | M | R | E | B | O | D |

**Hieroglifoa:**
Pasaia

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 4 | 8 | 6 | 7 | 3 | 5 | 1 | 9 |
| 7 | 5 | 1 | 2 | 9 | 4 | 6 | 8 | 3 |
| 3 | 9 | 6 | 5 | 1 | 8 | 4 | 7 | 2 |
| 9 | 8 | 7 | 1 | 4 | 6 | 2 | 3 | 5 |
| 4 | 1 | 3 | 9 | 5 | 2 | 8 | 6 | 7 |
| 6 | 2 | 5 | 3 | 8 | 7 | 1 | 9 | 4 |
| 5 | 6 | 2 | 7 | 3 | 1 | 9 | 4 | 8 |
| 8 | 3 | 9 | 4 | 6 | 5 | 7 | 2 | 1 |
| 1 | 7 | 4 | 8 | 2 | 9 | 3 | 5 | 6 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | H | | L | | A |
| | | | M | I | K | A | T | Z |
| | | | | L | O | I | R | A |
| | U | | H | E | R | N | I | O |
| E | Z | T | A | R | R | O | N | A |
| | T | X | I | R | O | A | K | |
| B | A | I | Z | I | K | | E | A |
| | I | L | E | | O | S | T | E |
| A | L | E | A | Z | I | O | A | K |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Egun hauek emankorrak izan daitezke sormenerako edo artearekin lotutako ekimenetarako. Istilutsuak izan daitezkeen kontuak ekiditen saiatu zaitez.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Egun kaotiko samarrak, baina era berean, alaitsu eta positiboak. Lan kontuak ahaztu eta etxean familiarekin egoteko egun aproposak. Amodioko gaietan primeran ibiliko zara.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Irudia aldatzeko egun egokiak. Orrazkerari, janzkerari eta etxeko dekorazioari garrantzi handiagoa emango diezu. Gai ororen gainean hausnarketa egiteko ere egun aproposak.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez ezazu laga inbidiak lagunen arteko harremanak izorratzea. Asmo txarreko pertsonek ez dezatela zugan eraginik izan, ez kasurik egin kontakatiluen txutxu-mutxuei.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Eguneroko kontuei garrantzi handiagoa eman beharko zenieke. Amodiori dagokionez, zure bikotekidearekin praktikoa izan zaitez eta eduki hankak lurrean.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Egoista eta lotsabakoa ez bazara, une ederrak izango dituzu amodio kontuetan. Lan arazoak direla-eta, aisialdirako denbora laburragoa izango duzu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Amodioari eta familiari dagokionez, ondo ibiliko zara. Iraganeko oroitzapenak bizibiziak izango dira egun hauetan. Gauza txikiei garrantzi handia emango diezu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Ustekaberen batek ondo igarotzeko egunak izorratu ahalko dizkizu. Pazientzia izan. Amodioari eta sexuari dagokienez, dena izango da arrosa kolorekoa.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Sexua eta amodioa gori-gorian izango dira. Pasioa, erromantizismoa eta ametsak nagusituko dira. Familiari eta etxeko jarduerei denbora luzeagoa eskaintzeko egunak.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Bikotekidearekin harremanak bikainak izan daitezke. Bestalde, jaietarako eta sormenerako egun egokiak izango dira. Urruneko norbaiten berri pozgarriak jasoko dituzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Astia atera familiarekin egoteko. Gerta liteke, bestalde, beti amestu duzun bidaia egitea. Arretaz ibili gastuekin, ez itzazu desioak eta errealitatea nahastu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Bestetan baino animosoago ibiliko zara eta festarako gogotsu. Kirolak eta jarduera fisikoak arazoei errazago aurre egiten lagunduko dizute.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Mugikortasun Bekak.** La Caixa Fundazioa. Espainian Master Ikasketak egiteko Mugikortasun Bekak. Epea: apirilaren 1a.

**> Mendia.** Azpeitiko Udala. 2009ko Joxe Takolo Beka. Alpinismoari lotuta dauden maila oneko proiektu originalak bultzatzeko bekak. Epea: martxoaren 1etik 31ra.

**LANA**

**> Begiraleak.** Xipizaro. Bergaran uztaileko udaleku irekietarako begirale euskaldunak behar dira. Izena emateko interesa duenak Bergarako Agorrosin kiroldegian dagoen Xipizaro ludotekan egin dezake. Informazio gehiago 943 77 91 60 telefonoan.

**> Sukaldari eta begiraleak.** Bertsozale elkarteak uztaila eta iralerako antolatutako udalekuetarako sukaldariak eta begiraleak behar ditu. Informazio gehiago: 943 69 41 29 / 685 73 40 85.

**> Dinamizatzailea.** Arrasateko Udala. Udalaren Emakume Txokorako dinamizatzailea behar da. Epea: martxoaren 13a.

**> Teknikoa.** Oñatiko Udala. Oñatiko Udalean Administrazio Bereziko teknikarilanpostu bat (web masterartxibozain dokumentalista) betetzeko oposaketa-lehiaketa. Epea: martxoaren 13a.

**IKASTAROAK**

**> Sorospena.** DYA Gipuzkoa. Mutrikuko sorosle eta sorospen ikastaroa. Epea: plazak bete arte.

**> Boluntario-lana.** Hezkide Eskola. Hezkide eskolak boluntario-lanari buruzko oinarrizko ikastaroa antolatu du. Epea: martxoaren 29a.

**LEHIAKETAK**

**> 'En construcción'.** bideoklipak, film laburrak, spotak eta bideoblogak. Lehiaketa honen bidez TVEko La2eko *En Construccion* saioan emango diren edukiak aukeratuko dira. Helburua gazteen sorkuntzak ezagutzera ematea da. Epea: martxoaren 3a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 2

M-1 EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009

**> Hauteskundeen gainean iritzia emanez
19:45**

Hauteskundeen biharamunean, Goiena Telebistako *Goiena Magazinea* saioan analisi politikoak, hainbat adituekin.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Wasemak
**13:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Martitzena, 3



**> Kooperatibaren legearen gainean, Goiena Telebistan
19:45**

Lankiko ordezkariekin batera, Brasilgo eta Euskal Herriko kooperatiba legearen gainean jardungo dute eguenean.

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 4



**> Antzuolako iturriak 'Erreportajea'-n
22:15**

Antzuolako iturriak dira protagonista eguazteneko *Erreportajea* saioan. Jose Mari Iturbe lagun izango du Iriondok.

**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguena, 5

MUSIKANTOI

**> Bertsioen jaia eguneko 'Musikantoi'-n
18:15**

Zapatuan Arrasateko gaztetxean egin zen bertsioen jaian aritu ziren taldeak ekarriko dituzte telebistara *Musikantoi* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Arte irekia: Eusebio Gomez.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 6



**> Debagoieneko albisteak egunero Goiena Telebistan
14:45**

Goiatz Aranaren eskutik jasoko duzue egunero Debagoienean gertatzen denaren berri. 14:45ean izango da hori.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz: Christian koxholt quartet
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide: Solaskide
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Antzerkia eta kontzertuak ikusteko sarreren zozketak, astean Arrasate Irratian
10:30**

Martxoaren 8aren harira, Amaia Antzokian izango den *Lilas* umorezko antzezlanerako sarrerak opurituko dituzte Arrasate Irratian aste honetan. Gainera, martxoaren 6an Discipulos de Dionisos eta Motociclon taldeek jardungo dute eta horietarako sarrerak ere eskuratu ahalko dituzue.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > MULTIMEDIA LANA

# Publizitatea %11 jaitsi da telebistan

Telebista kateek %11 gutxiago fakturatu dute publizitatetik 2007an baino. Publizitate bidezko diru sarrerak igo egin dira Cuatron eta La Sexta-n

**M.A** > ARRASATE

Espainiako Telebista kateek publizitatetik jasotzen dituzten diru sarrerak asko jaitsi ziren 2008an. Infoadex agentziak urtero argitaratzen duen informeak adierazten du 2.668 milioi euroko diru sarrerak izan dituztela Espainiako telebistek 2008an, hain justu, 2007an baino 350 milioi gutxiago.

**PUBLIZITATEA BEHERA**

Tele 5 katea, 2007an irabazi zituen 1.036 milioi eurotik, 2008an 919 milioi euro irabaztera pasatu zen. Horrek esan gura du %11,3koa izan dela jaitsiera. Antena 3k, berriz, %17,9ko jaitsiera izan zuen, eta 684,5 milioiko diru sarrerak izan zituen publizitatetik. RTVEk 2007an baino %16,7 gutxiago irabazi zuen publizitatearen bitartez. La Sexta eta Cuatro telebista kateek, berriz, gora egin zuten 2008an 2007arekin alderatuta: lehenak, %24,2a igo zituen publizitate bidezko diru sarrerak 165 milioiko diru sarrerekin, eta bigarrenak, %7,1ean.

Irratian ere publizitate gutxiago sartu zen 2008an 2007an baino eta prentsa idatziak 2007an fakturatu zuena baino bost bider gutxiago lortu zuen 2008an.

**TELEBISTA** > MULTIMEDIA LANA

# On-line publikatutako euskal lan bat sariketa garrantzitsu baten hautagai

AEBetako Society for News Desing sarietarako hautagaitza lortu du klima aldaketaren gaineko erreportajeak

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta *Eitb.com*-ek elkarlanean landutako erreportajea AEB-ko Society for News Desing sariketarako hautatua izan da.

Iazko uztailean on-line publikatutako erreportajerik onenaren saria eman diote; eta hori dela eta, izango da hautagai Society for News Desing sariketan. Erreportaje horrekin batera sariketarako hautatua izan da *Washington Post*-ek Amerikaetako Estatu Batuetako etxebizitzen gainean egindako lan bat.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta *Eitb.com*-ek elkarlanean burututakoa, klima aldaketaren inguruan sakontasunean egindako lantzat hartu du epaimahaiak, eta 5etik 4,5eko puntuazioa eman dio.

Klima aldaketaren gaineko on-line bidezko multimedia lanak SND urteko sari nagusietan saririk eskuratuko duen ala ez, abuztuan erabakiko da Carolina Iparraldeko Chapel Hill Unibertsitatean; eta sariak Buenos Airesen emango dira irailaren 24an eta 25ean.

## zorion agurrak


OÑATI
**Helen Carr**
Otsailaren 23an, 12 urte bete zituen. Zorionak, Helen! *Wapixima*! Ondo-ondo pasatu zure eguna, merezi dozu-eta! Eta bixar ondo pasatu erromeixan, e! Patxo handi bat zure kuadrilian partetik!


BERGARA
**Esti Llodio**
Otsailaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat, zuri eta familia osoari, Amaiur jaioberriagatik. Aranzadi ikastolako gurasoen euskara batzordeko lagunak.


BERGARA
**Uxue eta Maialen Agiriano**
Uxuek otsailaren 23an, 8 urte eta Maialenek 5ean, 3 urte beteko ditu. Zorionak eta laztan handi bat, etxekoen partetik.


ARRASATE
**Maider Gomez Ibaibarriaga**
Otsailaren 25ean, 3 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi bat, etxeko guztion partetik. Ondo ibili zure urtebetetze egunean!


BERGARA
**Rakel Bouzon**
Otsailaren 27an, urtebetetzea. Zorionak!


ARETXABALETA
**Iñigo Arkauz Uribesalgo**
Otsailaren 27an, 9 urte. Zorionak eta laztan handi bat, etxeko guztion partetik.


ARRASATE
**Mari Cruz Arribas**
Otsailaren 28, urtebetetzea. Zorionak, amama! Eta patxo handi bat, Juneren eta Alazneren partetik.


OÑATI
**Urko Gomez Barrena**
Otsailaren 28an, 3 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxeko guztion partetik.


OÑATI
**Ane Zarketa**
Otsailaren 28an, 22 urte bete zituen. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasatu zeure eguna eta patxo handi bat kuadrilakuon partetik.


BERGARA
**Iker Moncayola**
Otsailaren 29an, urtebete. Zorionak guraso eta amamaren partetik.


ESKORIATZA
**Manel Sancho**
Otsailaren 29an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat Iratiren partetik.


ARRASATE
**Mari Aranegi, Imanol Iria eta Andoni Axpe**
Imanolek martxoaren 1ean, Andonik 2an, eta Marik 5ean. Zorionak, Imanol, aitaita eta amama! Zigarrolako, Elorrioko eta Garagartzakoen partetik.


ELGETA
**Mikel Canelo Ubera**
Martxoaren 1ean, 11 urte bete zituen. Zorionak! Oso ondo pasatu zure eguna. Familiaren partetik.


ARETXABALETA
**Andoitz Gomez Iturbe**
Martxoaren 1ean, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean! Etxekoen partetik, patxo handi-handi bat.


ARRASATE
**Alaitz Agirreurreta Litago**
Martxoaren 2an, 3 urte beteko ditu. Familiaren partetik, zorionak!


BERGARA
**Ivan Sanchez**
Martxoaren 2an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat, familiaren partetik!


ARRASATE
**Naiara Oroiz Muñez**
Martxoaren 2an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, preziosa! Patxo handi bat, aitatxoren, amatxoren eta familiakoen partetik.


ESKORIATZA
**June Fernandez**
Martxoaren 2an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, familiaren partetik; batez ere, Ikerren eta Malenen partetik. Egun zoragarria pasa dezazula!


ARETXABALETA
**Oier Arizabaleta Irure**
Martxoaren 2an, 13 urte. Zorionak eta patxo handi bat, etxeko guztion partetik.


OÑATI
**Ainhoa Bikuña**
Martxoaren 3an. Zorionak, Ainhoa! Ondo pasatu zure 14. urtebetetzean.


BERGARA
**Ayala Sasieta**
Martxoaren 3an, 12 urte. Zorionak Mari Sorgin! Markel eta Joneren partetik.


ARETXABALETA
**Iker Isasmendi**
Martxoaren 3an, urtebetetzea. Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, etxeko guztien partetik.


ARRASATE
**Alazne Zubillaga**
Martxoaren 3an, 8 urte betetzen ditu. Zorionak printzesa! Familia eta lagun guztien partetik.


ARRASATE
**Joxefan Iria**
Martxoaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, Joxefan!


ARETXABALETA
**Enaitz Arregi**
Martxoaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, *Nano*! Bi urte egin dozu eta ondio ez dakitzu bi esaten, urtebete daukeztu ikesteko. Laztan izugarri bat, etxekuen partetik.


OÑATI
**Mailu Guridi Igartua**
Martxoaren 4an, 51 urte betetzen ditu. Zorionak, ama eta urte askotarako. Zure bazkai goxua jateko irrikittan gauz! Laztan handi-handi bat, etxeko danon partetik eta bereziki Liberen partetik. Patxuak.


ARRASATE
**Joseba Heriz Uribesalgo**
Martxoaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak Pinpirin! 22 urte iada. Ondo pasa ta patxo pila Zigarrolakuen partetik.


BERGARA
**Irune Bergaretxe eta Unai Martinez**
Martxoaren 3an, 38 eta 5 urte betetzen dituzte. Zorionak eta muxu handi bana etxekoen partetik.


BERGARA
**Ana Gartzia**
Martxoaren 5ean, 45 urte. Zorionak! Urte honekin errimatzen du, bai. Paki, Javi, Markel eta Jone.


BERGARA
**Mikel Gartzia**
Martxoaren 6an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Markel, Jone eta zure lanegune partetik.


BERGARA
**Ainara Gomez**
Martxoaren 7an, 6 urte betetzen ditu. Gurasoak, aiton-amonak izeba eta Andoniren partetik zorionak.


BERGARA
**Aitor Arzelus Perez**
Martxoaren 8an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak, maitia! Markel, aitatxo eta amatxoren partetik. Eta segi beti hain irritsu!


OÑATI
**Amaia Diaz**
Martxoaren 6an, 11 urte beteko ditu. Zorionak eta patxo asko familia guztiaren partetik, batez ere Ianiren partetik. Opari asko jasotzea espero dut.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez

### PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

## kuxkuxeroa



Mirian Biteri

# Hauteskundeetaz gain, aste bukaeran badago besterik ibarrean

Sinistea zaila bada ere, Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeetaz aparte, bizitza dagoela konturatu gara aste bukaera honetan. Hori baieztatzeko aukerarik behintzat ez da falta izan Debagoienean. Egubakoitzean, esaterako, arrasatear

**Never Surrender eta Anger taldeko kideak elkartu ziren eta emanaldi bitxia eskaini zuten**

nahiko egon zen Bergarako Jam aretoan **Delorean** musika taldea ikusten. Jakina da Arrasaten, besteak beste, elektronikak zale asko dituela.

Hala ere, egun eta ordu berean, Arrasateko 3.60 aretoan, ETB-ko *Bi errepidean* erreportaje saioan aurkezle lanetan dabilen **Alex Sarduik** gidatutako taldea aritu zen eta aretoa pil-pilean egon zen. Ez dakigu han bero larregi egingo zuen edo ez; baina, agian, batek baino gehiago gogoa edukiko zuten kentzeko *alkondarie*.

Zapatuan, Dantzaz konpainia ikusteko aukera egon zen Arrasateko Udal Amaia Antzokian. Gogoeta eguna modu lasaian hartzea erabaki zuen Aralarreko zinegotzi **Joxe Etxeberriak**; emanaldi horretan ikusi genuen eta.

Arrasateko gaztetxean, bestalde, herriko eta inguruko taldeek gustuko dituzten taldeak omendu zituzten euren bertsioak jotzen. Horien artean, azpimarratzekoa da **Never Surrender** eta **Anger** taldeen emanaldia. Hasiera baten estilo hain ezberdinekoak, talde horietako kideak elkartu ziren eta egun horretarako talde bat osatu zuten; emanaldi bitxia eskaini zuten. Gaztetxean alkandorak baino, kamisetak egingo ziren sobran.

## asteburuko albuma



**Ipuin kontaketa Aretxabaletan.** Zapatu goizean, hitzordu berezia izan zuten Aretxabaletako neska-mutikoek Arkupe kultura etxeko liburutegian. Izan ere, Oihulari klown taldekoak egon ziren bertan umeendako ipuinak kontatzen. Saioko argazkia ikusita, eta Oihulari Klown taldekoen ikuskizunak zer-nolakoak izaten diren jakinda, ziur primeran pasa zutela haurrek, kontu dibertugarriak entzuteaz gain, kantu eta dantza. Beraz zapatu goiza telebistaren aurrean eman beharrean, goizpasa dibertigarria egiteko aukera izan zuten Arkupen.



**Pilota eta trikitia, uztartuta.** Mauri Zubillagak antolatu duen Arrasateko federatu ohien arteko txapelketaren laugarren jardunaldia jokatu zen zapatuan Leintz Gatzagan, eta giro bikaina sortu zuen herrian, pilotariez gain, Arrasateko trikitilariak ere egon ziren-eta inguruak animatzen. Behin jardunaldia bukatuta, Lopez de Munain eta Arroiabek osatutako bikotea da sailkapenean buru. Aramaion izango dira hurrengo norgehiagokak, martxoaren 14an.

## jaiotakoak



**June Barrena Bikuña**
Oñati > 3,840 kilo. Otsailaren 21ean. Gurasoak: Aitor (Oñati) eta Gema (Oñati). Argazkian, June jaioberria, Markel nebarekin.



**Aimar Arregi Iñurritegi**
Oñati > 3,250 kilo. Otsailaren 22an. Gurasoak: Eli (Oñati) eta Iban (Oñati). Argazkian, Aimar jaioberria, sehaskan lo.



**Aimar Fortuna Zubizarreta**
Bergara > 3,600 kilo. Otsailaren 26an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Raul (Bergara). Argazkian, Aimar jaioberria, amarekin.



**Danel Zabala Muruamendiaraz**
Arrasate > 3,390 kilo. Otsailaren 24an. Gurasoak: Mireia (Arrasate) eta Joseba (Arrasate). Argazkian, Danel jaioberria, amarekin.



**Ane Alberdi Sanz**
Bergara > 2,840 kilo. Otsailaren 23an. Gurasoak: Silvia (Bergara) eta Xabier (Bergara). Argazkian, Ane jaioberria, sehaskan lo.



**Angel Riego Guedes**
Arrasate > 1,980 kilo. Otsailaren 19an. Gurasoak: Garazi (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, Angel jaioberria, aitarekin.



**Olaia Romero Fernandez**
Arrasate > 3,580 kilo. Otsailaren 25ean. Gurasoak: Elena (Arrasate) eta Jose (Arrasate). Argazkian, Olaia jaioberria, Elisa amamarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-03-02

**Igor Gonzalez de Galdeano** > Euskaltel-Euskadiko kirol zuzendaria

# "Oraindik ere pasta jaki gogokoenetakoa dut"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Txirrindulari izatetik haiek zuzentzera pasatu da Igor Gonzalez de Galdeano. Denboraldia orain dela gutxi hasi da, eta aurten Tourrean guztia emateko prest datoz Euskaltel-Euskadi taldekoak.**

**Txirrindularitza ibilbidean zeintzuk izan dituzu bidelagun?**

Anaia Alvaro beti nirekin izan dut eta baita ere Gabiño Ereñozaga. Hura izan dut masajista eta baita psikologo ere une askotan.

**Cacao Maravillaon egindako urteak nola gogoratzen dituzu?**

[Barreak] Hor hasi nintzen. Ezberdina zen. Osaba Jacintok animatuta hasi nintzen txirrindularitzan, anaia eta lehengusuekin. Dulantziko peñak ere babes handia eman izan dit beti.

**Oparitu diezu dagoeneko bizikleta alabei?**

Nagusienari bai, eta oso gustura dabil, bestea txikiegia da oraindik. Txirrindulari ohi askok esan didate eurei ez litzaiekeela gustatuko seme-alabek bizikleta profesional moduan hartzea, baina niri bai. Eurek nahi badute, erabaki dezatela, niri asko eman dit-eta.

**Asko ibiltzen zinen bizikletan txikitan?**

Bai, batez ere Larrean, uda sasoia han egiten genuenean. Goizean oso goiz jaikita, egun osoan ibiltzen ginen bizikletan. Gero ra hasi nintzen talde baten eta modu serioagoan.

**TESTA**

**Herria:** Gasteiz. **Adina:** 35 urte. **Taldeak:** Euskaltel-Euskadi, Vitalicio, ONCE eta Liberty taldeetan ibili naiz. **Palmaresa:** Bigarren, Espainiako Vueltan; bosgarren, Frantziako Tourrean; eta Munduko Txapelketan hirugarren, erlojuaren kontrako proban. **Ikasketak:** Soin Hezkuntzako Euskal Erakundean ikasi nuen, txirrindularitza utzi eta gero. **Zaletasunak:** Familia eta lagunekin egon eta kirola eta arrantza.

**Zaila izan zen uzteko erabakia hartzea?**

Adin batetik aurrera ez nuela jarraituko pentsatuta neukan, eta horrela izan zen.

**Bizikleta utzita, dieta zorrotzei agur esango zenien.**

70 kilo pisatzera heldu nintzen sasoi baten. Orain, utzi nuenetik 15 bat hartu ditut, baina zaindu egiten naiz. Hala eta guztiz ere, txirrindularia nintzenean oso argal nengoen eta orain hartutako kiloak ez dira horrenbeste nabaritzen. Oso jatun ona naiz eta zerbezatxoek ez dute barkatzen. Kirol asko egiten dut, hala ere. Txirrindulariak oso apetitu onekoak izan ohi dira, eta ni ez naiz salbuespena. Kontrakoa pentsatuta ere, pastak nire jaki gogokoenetakoa izaten jarraitzen du.

**Faltan igartzen duzu Argantzon?**

Hara joan ginen emaztea eta biok gazteagotan, Gasteizen etxebizitza erosi ezin genuenean. Oso ondo hartu gintuzten eta asko atsegin dut hango lasaitasuna.



**LASAI** Bizikleta utzita, familiarekin egoteko denbora hartu du. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



Etxeko zapatilak itxura askotakoak izan daitezke; animali tankerakoak adibidez, arrakastatsuak dira oso. Baina umeen negarra dela eta gauean lo ezin duten gurasoek, argazkiko zapatilekin har dezakete euren mendekutxoa.

http://www.nopuedocreer.com

## biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

### Pausatu

Tarteka geratu beharrean aurkitzen naiz eguneroko martxari atsedena emateko. Ezagutzen nauenak ondo daki noiz hasten den niretzat tarte hori: eguzkia sartu eta gauak agintze duenean begietako pertsianak ixten hasten zaizkit eta pausatzen hasten naiz. Bakoitzak ikusi beharko du zein den bere bizitzako ordulari biologikoa, nola hartu bere eguneroko dohako opor edo eten horiek. Niretzat gaua sakratua da, atsedenerako garaia, nire ekintzak pausatzeko egun guztiko herena. Urrezko herena. Jakingo duzu zertan ari naizen: heren bat lanerako, beste bat otoitzerako eta azkena, lo egiteko. Hala antolatu zuten ia mila urte moje kontemplariak "ora et labora" laburbilduz. Euskaldunok, bihurriagoak, "ora eta labora" hori "jan ta lo" itzuli dugu. Hauxe ba atsedena hartzeko gure aurrean jartzen zaigun garaia, denboraldia: Garizuma, kristauok Pazko aurretik hartzen dugun 40 eguneko tartea. Festa egiteko aurrez denbora hartu behar dela ko. Bidai luze bat egiteko autoaren azterketa egiten dugun bezala: kurpilak puztu, erregai-depositua bete, bidai lagunak aukeratu, eta norabidea aztertu nahi dugun tokira iristeko. Berez, garizuma aitzakia besterik ez da. Ez dago sinesdun izan beharrik gorputzari atsedena emateko, barrutik garbitzeko. Nahi dituenak hortxe izango ditu 40 egun kanpotik eta barrutik garbitzeko.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +10 | +5 |

Zerua lainotuta egongo da eta zaparradak botako ditu, goizean bereziki. Arratsaldean ostarteak zabalduko dira.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
SATANAS, EH2, SORGIN4, AIZKORAK
TARTALO, IKURRI3, LORA, BABAK
BASAJAUN, IKURRI5, LAU2, ARRANAK

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.